

**JESUS BUENO ASINEN  
HASTAPENAK (1944-1975)  
BELAUNALDI  
OSO BATEN ISLA**

***Unibertsitate masterra Historia,espazio eta ondareari  
buruzko ikasketa aurreratuetan***



**OSKIA RAMIREZ BARAZE  
MASTER BUKAERAKO LANA**

**2015-09-04**

# AURKIBIDEA

<b>0. HITZAURREA</b> .....	2
<b>I. JESUS BUENO, IZABAN BIZITURIKO HAURTZAROA</b> .....	3
1.1. BUENO ASIN FAMILIA.....	8
1.2. JESUS BUENOREN HAURTZAROA ETA ESKOLA URTEAK.....	12
<b>II. IRUÑEKO SEMINARIOKO GARAIA ETA HONEK UTZITAKO URRATSA (1956-68)</b> .....	18
2.1. IRUÑEKO SEMINARIORA IRISTEA, LEHENENGO URTEAK.....	18
2.1.1. Zergatik Iruñeko seminarioa? .....	18
2.1.2. Seminarioko lehenengo urteak.....	20
2.2. VATIKANOKO KONTZILIO II. ETA ELIZA BERRITZEKO EKIMEN EZBERDINAK.....	25
2.2.1 Vatikanoko kontzilio ii.ak eta a.c. mugimenduek izandako eragina diktadura frankistan.....	28
2.2.2. Mugimendu katoliko espezializatuen urrezko garaia Espainian (1960.h).....	29
2.2.3. Mugimendu katoliko espezializatuen metodologia zein ideologia.....	31
2.3. IRUÑEKO SEMINARIOAREN URTE LORIATSUAK ETA HAUEK JESUS BUENORENGAN IZANDAKO ERAGINA (1964-67).....	33
2.3.1. Seminarioko irakasle taldeak izandako eragina eta hauek transmitituriko baloreek zein mezuek izandako garrantzia.....	35
2.3.2. Aparteko formazio ikastaroak seminarioan,(1964-68).....	41
2.3.3. Irakurgaiak Iruñeko seminarioan 1960.hamarkadan.....	43
2.3.4.JARC mugimenduak Nafarroan eta Jesus Buenok honetan izandako inplikazioa.....	46
2.3.5. Iruñeko seminarioa eta euskal zaletasuna;euskal kleroaren eragina Iruñeko seminarioko 1960.hamarkadako giroan.....	59
<b>III. BIZI ESPERIENTZIA BATEN AMAIERA ETA BERRI BATEN HASIERA (1967-74)</b> .....	71
3.1. NOIZ ETA ZERGATIK ATERA ZEN JESUS BUENO SEMINARIOTIK?.....	71
3.2. SEMINARIOAREN ONDOKO GARAIA (1969-74).....	81
3.2.1. Lovaina; unibertsitate garaia (1969-73).....	81
3.2.2. Zain Dezagun Belagoa.....	89
<b>IV. ONDORIOAK</b> .....	100
<b>V. IRUZKIN BIBLIOGRAFIKOA</b> .....	105
<b>VI. BIBLIOGRAFIA</b> .....	110

## HITZAURREA

Jesus Bueno Asín, (Izaba 1944, Iruñea 2006), Trantsizioaren garaiko diputatu nafarra izan zen, zehazki, Industria, lurralde antolamenduaren, obra publiko eta hirigintzako sailaren burua. Kargura Orhi Mendi koalizio politikoak Zangozako merindadean 1979.urteko hauteskunde foralak irabazi ondotik heldu zen eta berau izan zen bere merindadeko azken diputatu hautatua Nafarroako historian. 1983.urtean dimititu eta politika utzi zuen, nahiz eta arlo kulturean eta bestelako ekimen zein mugimendu sozialen agente aktibo izaten jarraitu zuen. Hala nola, Ikastolen Federazioaren buru izan zen, Itoitzeko koordinadoraren kide, Lokarriko partaide, Euskal Herria Irratiaren fundatzaile, Larrako mugimenduaren bultzatzaile, etab.

Iruñeko seminarioan ikasi ondotik, ekonomiako lizentziatura eta Zientzia ekonomikoetan masterra egin zituen Lovainako unibertsitatean (1969-1973) eta bueltan, Madrileko Ingeniaria Eskolan lurralde antolamenduaren diplomatura eskuratu zuen. 1970.hamarkadan Gipuzkoako ESTEan makroekonomiako irakaslea izan zen eta *Las empresas familiares en Gipuzkoa* liburua argitaratu zuen 1977.urtean, zeinean gipuzkoar enpresa familiar ezberdinen inguruko informazioa bildu zuen. 1970.hamarkadan zehar halaber, Belagoan egin nahi zuten eski eta hirigintza proiektuaren kontrako mugimenduaren lider nagusienetako bat izan zen, alegia, "Zain Dezagun Belagoa" izeneko plataformarena. Bertan aukera izan zuen bere merindadeko zenbait pertsona ezagutzeko, hala nola, Mari José Beaumont eta Mirentxu Purroy. Azken honekin, 1976.urtean, *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkarian buru belarri aritu zen lanean. Trantsizioan izugarritzko arrakasta izandako gaurkotasunezko aldizkaria zen honetan, "Hemen" goitizenezkin sinaturiko ekonomiari buruzko hamaika artikulua argitaratu zituen. Trantsizioaren garaiko giro euskalduneari ezagutu zituen orobat, Angel Alfaro Arriola eta Pedro Larunbe Biurrun, zeinekin 1977.urteko hauteskundeetara aurkeztu egin zen "Nafarroa Batua" izeneko alderdi politikoarekin. Ez zuten espainiar Senaturako ordezkartzarik lortu, baina esperientzia honek, Bueno Asin borroka politikoan sartzeko indarra eman zion. Horren proba da Orhi Mendi koalizio politikoa eta Nafarroako lehenengo foru hauteskunde demokratikoetara aurkeztu izana 1979ko apirilean.

Zergatik Bueno Asin? Hasieratik izan nuen figura honen inguruan gehiago sakontzeko eta ikertzeko gogoia, izan ere, biografia historiko gehienak inportantzia handiko pertsonaien inguruan egin ohi dira normalean, ahaztuta utzirik, horrenbesteko izenik ez dutenak baina gertuko historia ezagutzeko, balio handikoak izan daitezkeenak. Emilio Majuelok idazten duen moduan, inork ez badu ohikoak ez diren protagonisten inguruan idazten, hauek historiari egin diezaioketen

ekarpena ez da inolako historia liburu edo lanean agertuko.<sup>1</sup> Bueno Asin, Trantsizioaren garaiko figura politiko garrantzitsuenetako bat izanik ere, ondoren, politika mundua utzirik, bigarren plano batean gelditu zen eta egungo belaunaldientzako, bera eta bera bezalako beste hainbat, erabat ezezagunak diren pertsonalitateak dira, politikan ez ezik, bestelako gai sozial, ekologiko eta kulturaletan nola edo halako urratsa utzi duten arren. Nafarroako orainaldiko historia egin eta berau konprenitzeko, Bueno Asin eta beraren gisako beste hamaika pertsonalitateen izenak berriz ere mahai gainera ateratzea garrantzi handiko dela pentsatzen dut, ezen, haien ekimen, pentsamendu, militantzia, esperientzia, etab.ei hurbilduz, gure historia hobeto ezagutu eta ulertu daiteke. Ukaezina da halaber, Bueno Asinen familiarekin dudan lotura eta harreman pertsonala. Bueno bezalako figurak ikertzeko aukera eduki ahal izateko, nahitaez haien etxeetaraino sartu eta bertako artxibo pertsonalak kontsultatu zein arakatzea beharrezkoa izaten da. Kasu honetan, Buenoren familiarekin dudan gertutasunak aukera paregabe hori luzatu dit, nola edo hala, probestu beharreko abantaila izan dena eta ikerketa lan hau abian jartzeko ezinbestekoa.

Sortu zitzaidan lehenengo kezka lana planteatu nuenean honakoa izan zen; nondik hasi? Zer ikertu? Horrenbesteko inizatiba, mugimendu eta esparruetan murgildu diren pertsonen ikerketetan, garrantzi handikoa da ongi zehaztea zeintzuk izango diren interes puntuak eta non jarriko den zehazki atentzioa. Jesus Buenoren inguruko ikerketa lana egitea planteatu nuenean, hasierako asmoa bere figura politikoa ikertzea zen. Alegia, arreta nagusiki, Trantsizioaren garaian zentratu nahi nuen. Honek ordea, abiapuntu bat behar zuen izan eta ezin nion neure buruari galdetzeari utzi, zer izan zen Bueno bide hori eta ez beste bat hartzera bultzatu zuena. Zergatik sartu zen Bueno politikan? Zergatik bultzatu zituen “Nafarroa Batua” eta “Orhi Mendi” bezalako koaliziozko alderdi politiko nazionalistak? Noiztik zen euskaltzale eta euskal kulturaren defendatzaile sutsua? Zerk eraman zuen “Zain Dezagun Belagoa” mugimenduaren liderra izatera? Zergatik ikasi zuen atzerrian? Zergatik ekonomia karrera? Nolatan egin zuen salto

---

<sup>1</sup> “(...) la historia de esta gente poco conocida (...) No la verán plasmada en libros de texto ni en unidades didácticas al uso, pues suele acontecer en la historia académica que, excepto los grandes procesos socioeconómicos, las instituciones y los personajes de renombre, el resto de actores sociales carece de peso en la narración. Yo no pienso de este modo. Cada línea de historia que se escribe puede contener una densa retícula de acciones correspondientes a personas innominadas por el historiador pero sin las cuales no habrían podido ser reconstruidos los grandes relatos. Es ésta una llamada a la reflexión sobre el modo de historiar (...)”, Majuelo E, *La generación del sacrificio*, Ricardo Zabalza, 1898-1940, Txalaparta, Tafalla, 2008, 13.orria.

panorama politikora balore sozial eta demokratikoen defentsa egitera?<sup>2</sup> Ezin nintzen pertsonaia baten inguruan ikertzen hasi ongi konprenitu gabe zein zen bere lehenaldia eta zerk izan zuen eragina bere izaera zein pentsamenduaren eraketan. Pertsona baten biografia egin nahi izaten denean, pertsona barrutik ezagutu, konprenitu eta ulertzeko beharra izaten da. Eta ikerketaren abiapuntua 1975.urtean jarririk, suertatzen zitzaizkidan zalantza eta jakin-min guztiei ezin nien behar bezala erantzun. Gauzak honela, haurtzarotik hasteko hautua egin nuen, Trantsizio garaira jada baliabide gehiagorekin heldu ahal izateko. Izaban bizituriko haurtzaroa eta Iruñeko seminarioan emandako gaztetako urteak, Trantsiziora iristeko zubi gisa planteatu nituen horrela. Baina erabat ezjakina nuen 1960.hamarkadako Iruñeko seminarioak izan zuen inportantzia bertan zeuden apezgai gazteentzat. Honetan sartu ahala, seminarioko giroak utzitako urratsaren kontzientzia hartu dut eta nire hasierako espektatibak aldatu behar izan ditut. Izan ere, Iruñeko seminarioko esperientzian topatu ditut Bueno Asinen pertsonalitatea, izaera, pentsamendua eta identitatea markatu zituzten zutabe edo pilareak. Seminarioan, hazi eta hezi egin zen pertsona bezala eta bertan izandako esperientziek, zeharo determinatu zuten bere ibilbide pertsonal zein profesionala. Denak zentzua hartu du seminarioko etapa ikertu ahala; zergatik kontsideratzen zuen bere burua euskaldun, zergatik utzi zuen apez izateko bidea, zergatik borrokatu zuen balore demokratiko eta sozialen alde, zergatik erabaki zuen ekonomia karrera egitea... 1960. hamarkadan Iruñeko seminarioan bizituriko giroa ikertzeak, bere gertuko senideek ere ulertzen eta ezagutzen ez zituzten zenbait ondorioetara iristen lagundu didate, Bueno Asinen figura hobeto konprenitzen laguntzen digutenak. Baina ziur nago ere, ikerketa lan xume honetan biltzen dena, Buenoren egoera berean egondako beste hainbat pertsona anonimoen bizitzak eta oro har, Nafarroako gizartearen parte handi baten izaera ulertzeko baliagarria dela, Bueno Asinek bizitutakoa erabat esportagarria izanik bere belaunaldiko pertsona askori ere. Egindako biografia ikerketa xume honek beraz, 1960.hamarkadako nafar errealitate soziala, intelektuala zein kulturala eta ekonomikoa hobeto ulertzen lagundu dezake. Izan ere, helburua azken batean, Jesus Buenoren figura bere testuinguruan kokatuz ikertzea izan da eta horrela, datu biografikoen bilketatik haratago joan den ikerketa lana sortu da. Berau ekoizten, 1960.hamarkadako pertsona askoren memoria kolektiboaren zati txiki bat berreskuratu edo berreraiki egin da eta honek lagundu dit halaber, lehenaldiak itxuraturiko orainaldia hobeto ulertzen.<sup>3</sup>

---

<sup>2</sup> 1992.urtean Deiak egindako elkarrizketa batean, Buenok bere burua horrela definitu zuen; "socialdemócrata en el día a día y utópico a largo plazo" (Deia, 1992.urteko Abenduaren 7an).

<sup>3</sup> "La memoria colectiva es, en definitiva, lo que una generación hace con el pasado (...), "la memoria ya no es lo que era" (Rousso), es decir puro recuerdo, sino que viene a ser un medio excelente para descubrir los entresijos de cómo el pasado configura el presente" (Javier Tusell, "La historia del tiempo presente: algunas reflexiones sobre

Ikerketa lan hau jakin-minek eta zalantzek bideratu dute guztiz eta analisi instrumenturik nagusienak galderak eta hauei erantzuteko nahia izan dira. René Rémondek idazten zuen bezala, Historiaren sinbolorik esanguratsuen galdeketa da eta nire kasuan hau konfirmatu egiten da.<sup>4</sup> Ez da erraza izan ordea, galdera hauen guztien erantzunik topatzea Bueno Asinen fondo dokumentalean, ezta historiografia obra orokorretan ere. Alegia, iturri idatzi zein bibliografikoak ezinbestekoak izanik ere, ez dira nahikoak 1960.hamarkadako Iruñeko seminarioan egosi zen giroaren inguruan sortzen diren hamaika zalantza argitzeko, ezta Bueno Asinen erlazio sareak ikertzeko ere, (eta zer esanik ez, apezgai ikasketak egin zituen belaunaldi oso baten esperientzia eta sentipenetara iristeko). Galdera ikur hauetako gehien erantzunak, soilik eta bakarrik lekuko zuzenen testigantzetan aurki daitezke eta beraz, Bueno Asinen inguruko ikerketa lan honen iturri metodologikorik esanguratsuen dudarik gabe, ahozko iturria izan da. Ahozko historia, historia zientziaren barruko espezialitate baten gisa definitzen du Mariezkurrena Iturmendik, ahozko testigantzen bitartez lehenaldia berreraikitze asmoa duena hain zuzen ere.<sup>5</sup> P.Thompsonen hitzetan, ahozko historia, historia egiteko dagoen eta egon den formarik berriena eta zaharrena da aldi berean, Herodotoen garaietatik erabiltzen zena, baina XIX.mendean zehar, ahozko iturrien objektibotasuna mailak sortzen zituen zalantzak zirela eta, zokoratuta gelditu zena.<sup>6</sup> Baina azken hamarkadetan ahozko historiak berriz ere indarra hartu du, orainaldiko historia egiteko metodo erabilgarri eta arrakastatsuenetako bat bihurtuz. Ahozko historiak, azken baten, aldaketa prozesuan dauden gizarte, kultura eta historia beraren interpretazioa egiten laguntzen digu eta baita, boteretik erabat aldenduta dauden pertsonen esperientzietara heltzen ere; zeinen ahotsak eta bizipenak, inork azaleratzen ez dituen bitartean, ezkutaturik geldituko diren inolako erregistroetan dokumentatuak izan gabe.<sup>7</sup> Honetarako

---

el caso español”, en Carlos Navajas Zubeldia coor, Actas del II.Simposio de Hisotria Actual, Logroño, 2000, 31.orria.

<sup>4</sup> Javier Tusell, “La historia del tiempo presente: algunas reflexiones sobre el caso español”, artikuluan René Rémondek eta Lucien Febvrerek historiari buruz egindako hausnarketa hauek jasotzen ditu, horrela esanez; “*Un historiador (...) empleará como instrumento de análisis, además de la duda metódica porque lo propio de su tarea es siempre presentar problemáticamente el pasado. Por eso Rémond ha llegado a escribir que el símbolo por excelencia de la Historia es la interrogación. La verdadera Historia, aseguraba Lucien Febvre, es la “historia problema”* (ibidem, 27.orria.)

<sup>5</sup> Mariezkurrena Iturmendi, D. “La historia oral como método de investigación histórica”, *Gerónimo de Uztariz*, 23/24.zenbakia, 227.orria.

<sup>6</sup> Ibidem.

<sup>7</sup> Paul Thompson, “Historia oral y contemporaneidad”, *Escuela de Historia*, Anuario n.20, 2003/2004, 15.eta 22.orria.

beharrezkoa da protagonista konkretuen esperientziak entzun eta hauen memoriak erregistratzea. Horiek izan dira zehazki lan honen oinarrizko ikerketa metodologia eta teknikak, hots, elkarrizketa, grabaketa eta transkribaketa. Elkarrizketaturiko pertsonen artean, Buenoren gertuko senideak eta seminarioan bere ikaskide eta irakasle izandakoak nabarmenduko nituzke, hurrenez hurren Koldo Irigoyen eta Jesus Lezaunen elkarrizketak. Seminarioari dagozkien esperientziak osatzeko funtsezkoak suertatu zaizkit halaber, Nerea Perez Ibarrolak Portillori, Ibañezi, Anduezari eta Urrutiari egin eta utzitako elkarrizketak. Era berean, JARCen mugimenduari dagozkien bizipenetan murgiltzeko, Apezetxearekin eta Idareta-Olague senar emaztearekin izandako elkarrizketak interes handikoak suertatu zaizkit. Elkarrizketak zentzu honetan, hiru multzotan egin izan dira beraz; senideei, seminarioko kideei eta JARC mugimenduko partaide izandakoei, ikerketa lan hau egiteko oinarrizko giltza izan direnak. Elkarrizketa hauei guztiei ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatu naiz eta hauen bitartez, Bueno Asin eta bere belaunaldiak bizi izan zituzten esperientzia kolektiboak hobeto konprentzen. Mariezkurrena Iturmendiren hitzetan, ahozko iturrietan oinarrituriko ikerketa lan baten arrakasta, elkarrizketen kalitatean datza eta honetarako, elkarrizketatzaileak batetik, ongi informatua egon behar du eta bestetik, galdera egokiak egiten jakin behar ditu, baliagarriak direnak zehazki interesekoa zaigun informazioa bildu ahal izateko. Informazioa biltzeaz gainera, Mariezkurrenaren iritziz, elkarrizketak funtsezkoak dira halaber, sentipenak eta testuinguru zein esperientziak hobetu ulertu ahal izateko, baina historialariak hauek bilatzen ere jakin behar du egiten dituen elkarrizketa horietan.<sup>8</sup> Bere gomendioei jarraituz, elkarrizketa guztiak aldeztatik sakontasunean mamituriko gidoietan oinarritu dira eta hauek egiteko, iturri idatzi ezberdinak irakurri izan dira, ongi informatuta iristeko elkarrizketa momentura. Elkarrizketen ondotik, berauek transkribatuta izan dira, hitzez hitz jasoz protagonistek esandako guztia. Transkribaketa guztien atzetik halaber, interes puntu nagusien laburpentxoak jaso da eta bertan jasotakoak, zehazki lanaren zein atal osatzeko baliagarria den zehaztu egin da. Elkarrizketarik gabe Bueno Asinen ikerketa lanak ez zuen inolaz ere hartu duen dimentsioa hartu izanen, ezen kate efektuaren moduan, elkarrizketatu batek beste batengana eraman nau eta bide batez, ondorioetara iristeko funtsezkoak izan dira. Elkarrizketak lana aberasteaz gainera, pertsonalki ere aberastu egin naute era-batean.

Lana hiru atal ezberdinetan banatu da. Lehenengoa Bueno Asinen haurtzararoan zentratuta dago eta txikia zela izandako harreman sareak ikertzean oinarritu da, (familiak eta

---

<sup>8</sup> Mariezkurrena Iturmendi, *Gerónimo de Uztariz*, 23/24.zenbakia, 231.orria.

eskolak izandako eraginean hain zuzen ere). Bigarren atal osoak, Iruñeko seminarioari egiten dio erreferentzia eta honetan, Vatikanoko Kontzilio II.aren testuinguruan Eliza Katolikoan gertaturiko aldaketetatik hasita, prozesu honek guztiak diktadura frankistan izandako oihartzuna ikertzen da, ACko mugimendu espezializatuen goratzearekin bat egin zuena. Era berean, Iruñeko seminarioan honek guztiak izan zuen isla aztertzen da, protagonismo berezia emanik une horretan irakasle taldea osatu zuten pertsonei eta hauek apezgai gazteen formazioan izandako eraginari. Lekuko guztiek baieztatu egiten dute, 1964-68.urte bitarteak Iruñeko seminarioan, irekieraren, askatasunaren eta aldaketaren urteak izan zirela eta bertan, euskaltzaletasunaren eta balore demokratikoen defentsaren haziak jarri egin zirela. Honek guztiak jakina, Bueno eta bere belaunaldiko gazteengan eragin bizia izan zuen eta etorkizunean euren ibilbidea definitzen lagundu zien. Bueno 1967.urtean atera zen seminariotik eta bere bizitzan harturiko erabakiak nola edo hala, giro eliztar horretan izandako esperientziek baldintzaturikoak izan ziren. Esperientzia hauek dira zehazki lanaren azken atalean lantzen diren gaiak, alegia, Lovainako unibertsitate garaiak eta “Zain Dezagun Belagoa” mugimendua.

Bueno Asinen hastapenen ikerketa sakona egitea interesgarria izan da oso, ezen uste nuena baino askoz ere mami gehiagorekin egin dut topo. Gauzak honela, hasierako espektatibak ez dira erabatean bete, ezen jada aipatu den legez, hasierako jomuga Trantsizio urteen ikerketa egitea zen. Trantsizioan sartzeak ordea, hamaika ahozko iturri eta dokumentu idatzien lanketa egiteak suposatzen zuen, beste master bukaerako lan bat egiteko adina informazio, esperientzia eta gertaera dokumentatzea eskatuko lukeelako. Trantsizio urteek beraz, etorkizun bateko ikerketa eremuak izaten jarraitu beharko dute.



## II. JESUS BUENO, IZABAN BIZITURIKO HAURTZAROA

### 1.1 BUENO ASIN FAMILIA<sup>9</sup>

Jesus Bueno Asín 1944.urteko Abenduaren 22an sortu zen Izaban, eguberri bezperan, loteria egunean. Sari ekonomikorik ez zen iritsi berarekin etxera, baina dudarik gabe, bere jaiotza izan zen familiaren loteriarik onena urte horretan. Andres Bueno etxean jaio zen, Izabako Barrikata auzoan, artzain familia xume batean.

Aitona Luis almadizaina izana zen, baina garai latzak ziren jada almadia lanetarako eta Buenotarren buruak, herriko udaletxean topatu zuen lana Izabako basozain gisa. Bere aurretik, Federico delako batek izan zuen basozainaren postua, baina Fernando Buenoren hitzetan<sup>10</sup>, gerraostean, hain zuzen ere kargu publikoen garbiketa prozesuan, Federico gorria eta ezkertiarra zelakoan kaleratua izan zen eta bere ordeaz, Emilio Potxolo sartu zen lanpostu horretan. Honek ordea, denbora gutxira lana utzi zuen eta Luís Bueno aitona sartu zen basozain lanetan 1940. hamarkadaren hasieran. Postu hau 1952.urtean Jesus Buenoren aitak, Ciriaco Buenok, eskuratu zuen aitona Luís jubilatzean. Ciriaco ordea, txikitatik ibilia zen erriberan artzain gisa, hain zuzen ere, Intxa familia izabarrarentzako lanean. Artzain ibiltaria zen eta beraz, ia urteko hilabete gehienak Bardean ematen zituen, urritik maiatzera hain zuzen ere. Tarte luze horietan, oso gutxi ziren Ciriacok Izabara egiten zituen bisitak, justu-justu Eguberri egunetan eta inauteri edo Aste Santutan. Marisa Bueno, Jesus Buenoren arreba zaharrenak barrezka esaten du, eskapada horietariko batean sortua izan zela ziurrena Jesus.

Aita Ciriacorekin beraz, erlazioa ez zen izan nahi bezain estua edo jarraitua Buenoren haurtzaroan. Tarteka-marteka baino ez zuten aita ikusten eta anai arrebentzako erreferentea dudarik gabe, aitona Luis izan zen, amaz gainera jakina. Jesus Buenoren atzetik, beste bi seme alaba izan zituzten oraindik Ciriaco Bueno eta Luisa Asinek, hurrenez hurren, Consuelo eta Carlos. Bost seme alaba izateak, are zailagoa egiten zuen egunerokoa, ekonomikoki ez baitzen

---

<sup>9</sup> Ikus, zuhaitz genealogikoaren eranskina (119.orria).

<sup>10</sup> Fernando eta Marisa Bueno anai arrebei, 2015eko Urtarrilaren 2an egindako elkarrizketan jasotako testigantza. Haien hitzetan jartzen den guztia, egun horretako elkarrizketatik hartua izan da.

familia ahalduna.<sup>11</sup> Etxe ondoko baratzeko patatak eta azak lagungarriak izaten ziren, baita, Belagoako soroetan zituzten behorrak ere. Hauen haragiaren salmentarekin lortutako aparteko dirua, ezinbestekoa izaten zuten egunerokoari lasaitasun handiagoz aurre egin ahal izateko. Izan ere, orduko familia eredu gehienek tankeran, amak ez zuen etxetik kanpo lanik egiten eta beraz, soldata gehigarririk ez ohi zen sartzen bere partetik. Kontuan izan beharra dago, autarkiaren urte gogorrek zirela ordukoak eta Espainia Europako herrialderik pobre eta azpigaratuenetako bat zela. 1950.urteko ekonomia adierazle guztiek geldialdia iragarri egiten zuten oraindik eta honek, elikagai eta material urritasunean murgiltzen zituen estatuko biztanle gehienak. Moradiellosen ikerketen arabera, 1950.hamarkadaren hasieran, soilik espainiar etxebizitzetako %50ak zuen komun ontzia eta %20 inguru elektrizitaterik gabe bizi zen.<sup>12</sup> Ez zen Buenotarren egoera horren muturrekoa, baina etxean ez zegoen behar adina dirurik erosotasunean bizitzeko. Izaban arrunta zen legez, Andres Bueno etxeak ez zuen dutxarrik eta elektrizitatea, soilik lehen solairura iristen zen. Etxe azpiko animaliek eta sukaldeko sutondoa izaten ziren erronkariar negu gordinetan etxebizitza berotzeko bide bakarrak.

Jesus Buenoren ama, Luisa Asín, Bidankozekoa zen eta orduko emakume gehienak bezalaxe oso katolikoa. Senideek horrela baieztatua, Bidankozeko familia osoa kristau sutsua zen. Fernando Buenok txantxetan Bidankoze moja eta apezzen herritzat deskribatu egiten du <sup>13</sup> eta hau, bere anaia seminariara bidaltzeko determinantea izan zela pentsatzen du. Izan ere Jesus Buenok, uda gehienak Bidankozen pasatzen zituen bertako aitonaekin eta familiarekin. Aho gehiegi elikatu behar izateak horrelako irtenbideak bilatzera behartzen zituen garai horretako familia xume gehienak. Fernando eta Marisa ez bezala, haien anaia Jesus, denboraldi luzeak

---

<sup>11</sup> Fernando Buenok honen harira, anekdota bitxia kontatzen du. Behin, bera eta Jesus Bueno, Belagoako bordan zeudela, sua pizteko ez zuten pospolorik. Aitona eta aita, oraindik behorrek zeuden eta hauek iristerako sua piztu beharra zuten. Pospoloen faltan, Gorriako bordara hurbildu ziren Cecilia andreari eskatzera. Inozenteak haiek, pospolo bakarra eskatu zioten eta honek, kutxa osoa eman zien, behar adina pospolo erabili zezatela esan zien eta Izabarako bueltan, soberan bazeuden, utziko zituztela berriz Gorriako bordan. Erabat harrituta gelditu ziren Jesus eta Fernando Bueno Ceciliaren eskuzabaltasunarekin, pospolo bat eskatu eta kutxa osoa eman zielakoan. Fernandoren hitzetan, anekdota honek erakusten du zer nolako umila zen bere familia, eskasiara ohituak, pospolo kutxa oso bat izugarritzko altxorra iruditzen baitzitzaizen bi anaiei.

<sup>12</sup> Moradiellos E, *La España de Franco (1939-75)*, Síntesis, Madrid, 2000. (114.orria).

<sup>13</sup> Fernandoren esanetan, Bidankozen garai horretan (INEren datuen arabera 1950.urtean 370 biztanle eskas zituen herria), 12 apezgai zeuden eta beste hainbat apez zein fraide.

pasatzen zituen Bidankozen. Bertan bere osaba Ciriaco Asin apezarekin topo egiten zuen eta honen gomendioz sartu zen Bueno seminaria 1956.urtean.

Urte benetan latzak izan ziren gerraostekoak familia espainiar gehientzat; miseria eta gose urteak izateaz gainera, guztizko isiltasun garaia izan baitzen. Gerraren minak eta autoritarismo politikoak familia oro mutu utzi zituen, zuzeneko errepresaliatuak izan ala ez. Beldurrak eta oinazeak, familia gehienak mututasunera kondenatu zituen, iraganaz zein sufrimenduaz hitz egitea, sozialki debekaturik geldituz. Haurrak ignorantzian jaio eta hazten ziren, guztizko inkomunikazio eta ezjakintasun errealitate batean. Inork ez zien gerraz hitz egiten, are gutxiago, urte eskas batzuk lehenago egondako errepublika demokratikoaz. Honen inguruan entzuten zituzten mezu bakarrak elizan eta eskolan jasotakoak izaten ziren, bete betean, erregimen nazional katolikoaren defentsa egitera bideraturik zeudenak. Haur gehienak Izaban, ez ziren inolaz ere kontziente bere familien historiaz, ezta bere senide kideek zeramatzaten zamaz ere.

1936ko estatu kolpearen ondoren, 69 izan ziren Pirinioen muga zeharkatu zuten erronkariarrak.<sup>14</sup> Erronkariko herri guztietan 1936ko otsaileko hauteskundeetan indar eskuindarrak garaile suertatu arren, Burgi eta Izabako herrietan, Frente Popularraren emaitzak nabarmenak izan ziren. *Navarra 1936, de la Esperanza al Terror* liburuan jasotzen den legez, ezkertiar asko matxinatuei aurre egiten ahalegindu zen Izabako guardia zibilaren kuartelean protesta eginez; baina Nafarroako egoera orokorraren jabe izatean, gehienek muga gurutzatu egin zuten. Erronkariarrak arrazoi askorengatik (historiko, familiar, lan arrazoiengatik, etab) ohituak zeuden oso Zuberoako bidea hartzera. Hasierako 69 horiei beste hainbatek jarraitu zieten zenbait erronkariar bizilagunen atxilotetaz eta fusilamenduaz enteratu ahala.<sup>15</sup> Muga gertu egoteak zenbait familia kartzela eta heriotzaz salbatu egin zituen, baina horietako askok, ezin izan zuten gerora itzuli. Honetaz guztiaz ez zen hitzik ere entzuten 1940.hamarkadan jaiotako haurren artean. Familiek egoera latz horiek isilpean gordetzen zituzten eta instituzio publikoek, errepublikarekin lotura zuen edozer gauzaz propaganda ezkorra baino ez zuten egiten.

Buenoren anaia arrebek esanda, Andres Bueno etxean ez zen sekula gerra hitza aipatu ere egiten, are gutxiago erbestearena. Fernando Buenok gogoratu bezala, lehen aldiz zazpi urte

---

<sup>14</sup> A.A. *Navarra 1936, de la esperanza al terror, V.II.*, Altalfaylla Kultur Elkarte, Tafalla, 1986. 169. orria.

<sup>15</sup> Ibidem

inguru zituela entzun zuen etxean gerra hitza. Belagoako soroan omen zeuden aitona Luis, Fernando eta haren lehengusu bat, Manolo, orduan 18 urte izango zituena. Azken honi aitonak errieta egin ohi zion egurra gaizki mozten ari zelakoan eta Manolok, balentriaz josita, gerran galdutako semeaz mintzatu zitzaion. Fernandok ongi baino hobeto gogoratzen du pasarte hau, izan ere, sekulan ez zuen horrelakorik entzun lehenago etxean. Aitona Luisek Manoloren hitz mingarriei, gerran gertatutakoa *alperrik galdutako esnea* zela erantzun omen zion, deus ez gehiago.<sup>16</sup>

Andres Bueno etxean oraindik ere kontaktzen ohi den beste anekdota bat, Consuelo arreba txikiak behin haur eskolan, bost bat urte zituela, askatutakoa izaten da. Maistrak, Paletas etxeko andereñoak, zenbat jainko ote zeuden galdetu zien umeei. Consuelok, guztiz inozente, bi zeudela erantzun zuen, bat hemen eta bestea Frantzian. Eta ez zegoen erabat okerrean Consuelo txikia. Izan ere, Bueno familiaren parte bat Frantzian bizi eta errefuxiatu egin zen gerraostean. Andres Bueno familiak, garai horretako erronkariar familia askotxo bezala, gertutik baina isiltasunean bizitu zituen gerraren ondorioak. Paradoxa badirudien arren, Ciriaco eta Valeriano Bueno anaiak bando nazionalan borroka egiten zeuden bitartean, haien arreba Ambrosia Buenok, muga zeharkatu behar izan zuen bere bikotea zenarekin, Jose Bisauta komunistarekin hain zuzen ere. Bisauta Huescako Martés herriko militante komunista izan omen zen eta Ambrosia Buenorekin Frantziara alde egin zuen. Tolousen bizi izan ziren hil arte. Dena den, Fernandok gogoratzen du behin osaba Bisautak muga zeharkatu eta Belagoako bordan berarekin topo egin zutela. Fernandok buruan du nola osabak kontaktzen zuen, Frantzian alderdi komunistak etxeetatik propaganda normaltasun osoz banatzen ohi zuela. Hitz horiek inpaktu handia eragin zuten Fernandorengan, hemen, horrelakorik entzun edota esatea, erabat debekaturik baitzegoen.

---

<sup>16</sup> Fernando Buenori egindako elkarrizketan (2015-01-02) kontatu zidan bere aita, (Ciriaco Bueno), gerran egona zela. 1936an zerbitzu militarra egiten ohi zeuden Ciriaco eta Valeriano Bueno anaiak, Jesus Buenoren aita eta osaba hurrenez hurren. Gerraren lehertzeak bando nazionalaren gunean harrapatu zituen eta Ciriacok urte askoren ondoren kontatu zien moduan, frentera joatea beste erremediorik ez zuten izan. Anaia Valeriano 1936.urtean bertan hil omen zen Madrileko setioan. Gerora buenotar anaia arrebek jakin izan zuten, aitona Luis, Frankoren gobernuari haren semearen gorpuaz galdetu egin ziola. Aitonak bere seme Valerianoren gorpua non ote zegoen, non hil ote zen... jakin nahi izan zuen. Gobernu frankistak ez zizkion bere zalantzak inoiz ez argitu. Azalpenen bat eman omen zioten, baina aitona Luis isiltzearen, izan ere, 1956.urtean hil egin zen seme galduaren berririk izan gabe.

Andres Bueno familia kideen arteko harremanek beraz ez zuten erabateko etenik izan frontera tartean egonik ere. Diskrezio guztiarekin beti ere, ez zioten utzi Frantziako senideekin nola edo halako harremana izateari. Ambrosia Bueno eta José Bisauta izeba osabez gainera, bestelako senideak zituzten Maulen. Hauek ordea, ez ziren erbesteratuak, garai batean espartinen fabriketara lanera joan eta bertan geratuak baizik. XX.mende hasieratik erronkariar neska gazteek enaren moduan egiten zuten bidaia Erronkaritik Zuberoara espartinetara lanera. Ciriaco Buenok beraz, bi arreba zituen Frantzian, Ambrosia Bueno iheslaria eta Dominica Bueno enara. Fernando eta Marisak ongi gogoratzen dute noizean behin Eraizeko mugan elkartu egiten zirela, eta behin edo beste, haien aita eta aitona Luisek muga Mauleraino iristeko zeharkatu egin zutela. Bidaia hauetaz gogoratzen dutena ez da jakina bidaia beraren inportantzia emozionalaz, handik aita eta aitona ekarritako objektuz beteriko zakutoaz baizik (orduak hemen eskura ezinak ziren gauzekin). Hortik ziurrena aterako zuen Consuelo Buenok bi jainkoen existentziaren ideia. Inozentzia honek demostratu egiten du, Bueno anaia arrebak txikiak zirela, ez zutela errealitate honen gordintasunean inolaz ere erreparatu. Ez zuten susmatu ere egiten zein mingarria zen haien familiarentzat gerrak eta erbesteak utzitako urratsa. Jesus Bueno eta bere anaia arrebak, urteak behar izan zituzten haien familiaren benetako historiaz jabetzeko.<sup>17</sup> Erabateko ezjakintasun honetan murgildurik bizi izan ziren, buenotarren modura, Nafarroako eta estatuko bazter guztietako haur gehienak.

## **1.2. JESUS BUENOREN HAURTZAROA ETA ESKOLA URTEAK**

Buenok haurtzaroaren gehiengoa kalean lagunekin jolasean pasa izan zuela baieztatzen dute bere gertuko senideek. Opor garaietan, jada aipatu bezala, Bidankozen pasatzen ohi zituen bolada luzeak, baina urtean zehar, Izaban zegoela, bere kintoekin jolasten ibiltzea atsegina zuen. Anaia arreba zaharrenek etxerako lanetan gehiago laguntzen zuten txikiek baino. Marisak amari laguntzen zion etxeko kontuetan eta Fernandok aitonari Belagoako behorrekina eta belar mozketan.<sup>18</sup> Txikiek ordea, Jesus, Consuelo eta Carlosek aukera gehiago izan zuten haur dibertimenduetan ibiltzeko.

---

<sup>17</sup> 1970.hamarkadan, Gerra zibilaz eta errepresio frankistaz guztiz jabetuta, Jesusek Izabako, Urzainkiko eta Uztarrotzeko hainbat errepresaliatu elkarrizketatu zituen. Haien guztien testigantzak Jesus Bueno Asínen fondo dokumentalean aurki daitezke.

<sup>18</sup> Jesus Bueno 12 urterekin joan zen Iruñeko seminariara eta beraz, Belaguako lanetan ez zen bere anaia Fernando bezain inplikaturik egon. Hala ere, bederlatzi, hamar, hamaika urte zituela, tarteka Belaguara joaten zen eta bertako bordan, egunak eta arratsaldeak pasatzen ohi zituen familiako gizonekin (aitarekin, aitonarekin, anaia

1944.urtea ez zen bereziki emankorra izan Izaban. Alegia, haur gutxi jaio zen, nagusiki mutilak.<sup>19</sup> Jesusekin batera urte horretan, Ángel Maria Ansó eta Félix Zalba jaio ziren, bere txikitako lagunak izan zirenak.<sup>20</sup> Kinta bereko emakumeen kopurua handiagoa zen, Pilartiko etxeko Juana Mari, Gorrindoko Maribel, Txanteroko Mertxe, Serenoko Loli, Lindianoko Juana Mari... Kinta berekoak izanik ere, harreman gutxi zegoen neska eta mutilen artean.<sup>21</sup> Orduko mentalitate eta bizimodu guztiz kristauak neska eta mutilen arteko harremanak estutu baino, urrundu egiten zituen. Are gehiago, Frankismoak *de facto* generoaren diskriminazioan oinarrituriko gizarte ereduak eraiki zuen, honetarako, arrazoi katoliko eta tradizionalak eusten zielarik. Honek dudarik gabe, belaunaldi osoak markatu egingo ditu, denborarekin, generoari buruzko mito okerrak apurtuz joan beharko dituzten belaunaldiak izanik.<sup>22</sup>

---

Fernandorekin...). Momentu puntualak izaten ohi ziren ordea, behorak zaindu, belarra moztu, egur loteak prestatu... behar izaten zirenean. Seminarioko lehen urteetan, Belaguara maiztasunez igotzeari utzi zion, izan ere, oso gutxitan igotzen zen Izabara. Baina gerora, Belagoa beti izan da Jesus Buenoren babesleku. Egun oraindik, bere familiak borda mantentzen du eta askotan biltzen dira bertan kide guztiak bazkariak egiteko.

<sup>19</sup> 1936-1945 bitarteko garaia Espainiar estatu osoan ugalkortasun tasa nabarmenki behera egin zueneko epea izan zen. Gerra eta gerraosteko egoeretan gertatzen ohi den bezala, bi izan ziren demografikoki hazkunde negatiboa eragin zituzten faktoreak: heriotza tasen igoera eta jaiotzen jaitsiera. (David S. Reher Sullivan, "Perfiles demográficos de España, 1940-1960", en *Autarquía y mercado negro; el fracaso económico del primer franquismo, 1939-1959*, Barciela López.C (coor.), Crítica, Barcelona, 2003, 3.orria). 1940.hamarkadak aurrera egin ahala, zonalde gehienetako datu demografikoak hobetuz joan ziren. Izaban esaterako, saltoa nabarmena izan zen: 1940.urtean, 795 biztanle erroldatuta egotetik, 914 izatera 1950.urtera (IENeko web orrian kontsultaturiko datuak).

<sup>20</sup> Aipatzekoa da ere Enrique Avizanda, kinta bat gazteagoa izanik ere, haiekin beti ibiltzen zena.

<sup>21</sup> Izabako lekukoen arabera, neskak eta mutilak soilik mezan eta katekesian elkartu zitezkeen. Jolastu, beti banandurik egiten zuten eta apezak zenak, orduan José María Labiano jaunak, elkarrekin jolasten ikusiz gero, errieta botatzen zien.

<sup>22</sup> Eskolako haur guztiek egunero 12:30etatik 13:00ak bitarte, katekesia jasotzen zuten José María Labiano apezaren eskutik. Katekesian neskak eta mutilak elkartzen zituzten eta apezak haurrak doktrinatzten zituen mezu guztiz nazional katolikoekin. Generoaren inguruko gomendioak ematen zizkien eta emakumeen dezentziaz hitz egiten ohi zien. Besteak beste, emakumeen janzkera egokiaz hitz egiten zien eta dezentzia mantentzearen garrantziaz. Arropak nasaia, luzea eta eskoterik gabekoa izan behar zuela esaten zien eta bestelako arropa mota, salbuespen egoeretan baino ezin zela erabili, esaterako, trapezisten kasuan; zeinak haien lanbidearengatik, derrigortuak zeuden horren jantzi estuak eramaten (Charo Baraze Gayarre izabarrarekin izandako solasaldi batean esandakoa, 2015-02-23an). Testigantza honek argi uzten du zer nolakoa zen Izabako hurrek 1940 eta 1950.hamarkadan jasotako hezkuntza eta doktrinamendua.

Jesus Bueno Asinek Iزابako San Zipriano herri eskolan ikasi egin zuen. Orduko eskola espainiar gehienetan bezalaxe neskek eta mutilek bereizirik ikasi zuten. Izan ere lege frankistek hezkuntza berezitua garatu zuten neska zein mutilentzako. Are gehiago, eskolatze mistoaren debekua erregimen frankistak hartutako lehenengo neurrietako bat izan zen.<sup>23</sup> 1945eko legeak, Lehen Hezkuntzaren nondik norakoak formalki arautu zituen, hezkuntza mistoa soilik eta bakarrik salbuespen batekin onartu zuelarik. Alegia, hogeita hamar ikasle baino gutxiagoko herrixketan. Izaba parametro hauetan sartzen ez zenez, eskolan espazio berezituak zeuden generoaren arabera. Curriculumare ere generoaren arabera zen, alegia, neskek eta mutilek eduki eta ikasgai desberdinak izaten zituzten, (neskek esaterako, derrigorrezkoa zuten *formación para el hogar* delako ikasgaia eta mutilen kasuan, gehiago bultzatzen ziren geometria, aritmetika eta oro har, pentsamendu matematikoa).

Izaban, bestelako espainiar herri guztietan bezala, eskolak nazional katolizismoari men egiten zion, neska mutilak, erregimenaren baloreetan doktrinatzera bideraturiko hezkuntza bultzatzen zelarik.<sup>24</sup> Hezkuntza doktrina katolikoaren zerbitzura jarri zen guztiz, eskola bihurtuz, erregimenaren balore moralizatzaileen eszenatoki nagusienetakoa.<sup>25</sup> Doktrinamendu hau

---

<sup>23</sup> Danièle Bussyk jasotzen duen legez, Gera Zibilean bertan (1936. urteko irailean) esparru nazionalean aplikatuko den dekretu batek "*ohiturak moralizatuko*" ditu eskolatze mistoa debekatuz, (Busy Genevois, D. "Mujeres de España: de la República al Franquismo", en *M. Historia de la mujeres. El siglo XX*, Duby, G. eta Perrot, (coor.), Madrid. Taurus. 1993).

<sup>24</sup> 1945. urteko uztailaren 17ko legeak, zeinaren arabera Lehen Hezkuntza arautzen zen, honakoa zioen; "*La nueva Ley invoca entre sus principios inspiradores, como el primero y más fundamental, el religioso. La Escuela española (...), ha de ser ante todo católica*". Y en la misma introducción, un poco más adelante, aparece lo siguiente: "*Además, la escuela en nuestra Patria ha de ser esencialmente española (...) se supedita la función docente a los intereses supremos de la Patria*" (Lopez Goñi, Irene: *Ikastola: un movimiento popular y pedagógico. Historia de las Ikastolas en Navarra*, Euskara Kultur Elkargoa, 2007, Iruñea, 130-131. orriak).

<sup>25</sup> 1936. urteko urrian, José María Pemanek presidituriko hezkuntza eta kulturaren batzordea eratu egin zuten nazionalak (*Comisión de Cultura y Enseñanza de la Junta Técnica del Estado*). Honen helburu nagusienak, besteak beste, hauek izan ziren: maisuen garbiketa egitea eta Errepublikaren garaian hezkuntza sistema modernizatzeko martxan jarritako erreforma progresista guztiak bertan behera uztea (eskola laikoa, baterako hezkuntza, hezkuntza estrukturaaren demokratizazioa bultzatzen zituzten aspektuak, elebitasuna, etab.). 1938rako, Hezkuntza Ministerio Nazionala eratu zen Francoren aginduz eta honen gidaritzan, Pedro Sainz Rodríguez lehenik eta José Ibáñez Martín ondoren jarri zituen, sektore katolikoko kide zirenak. Honek erakusten du Francok lehen momentutik katolikoaren esku utzi zuela hezkuntzaren noranzkoa. Francisco Morente Valeroren aburuz, honek oro har, Elizaren eta sektore katolikoaren garaipena erakusten du eredu falangistaren aurrean. Hezkuntza arloan behintzat, pultsua falangeari irabazi zioten lehenengo momentutik, izan ere, Hezkuntza Ministerioko kargurik

eskolan bultzatzen zela ziurtatzeko bide zein mekanismo ezberdinak ezarri zituen Hezkuntza ministerio frankistak, nagusienak bi hauek izanik: irakasleen goitik beherako garbiketa eta hezkuntza lege zein curriculum berrien ezarrera. Helburua argi zegoen, Errepublikan ezarritako eskola liberalaren zantzu bakar bat ere ez uztea. Aberri espainiarra eta Eliza, eskolaren pilare zatiezinak bihurtuko diren hauek, kostata ezabatuko den urratsa utziko dute eguneroko bizitzan zein giroan, baita, hezkuntza sistema mota honetan heziak izan ziren belaunaldiengan ere.<sup>26</sup>

Gauzak honela, maisuak ez ezik, ikasgai asko apezak ematen zituen. Garai horretan Izaban zegoen apeza, Don Jose Maria Labiano zen. Balore nazional eta ultra katolikoaren defentsa egiten zuen eta hauetan hezi egiten zituen Izabako haurrak. Mezak, arrosarioak, prozesioak, ospakizun katolikoak... eguneroko ogi izan ziren Buenoren haurtzaroan. Eskola goizeko mezaren ondotik hasi egiten zen, 10:00etan. Ordu erdiko atsedenaldiaren ondoren, 12:30etatik 13:00ra katekesia ematen zien aipaturiko apezak. Arratsaldean halaber, mezara eta arrosariora joanarazi egiten zieten. Labiano apezak kostala ala kostala, haur guztiak mezara joaten zirela ziurtatzeko elizaren atarian zenbaki bat zuen txartela ematen ohi zuten ospakizun elizkoietara sartzeko ziren aldioro. Eguberrietan, urtero, jostailuen zozketa bat egiten zuen mezara joateagatik jasotako zenbakiekin. Eta noski, gero eta txartel gehiago izan, orduan eta probabilitate gehiago izaten zuten oparia jasotzeko. Haurren inozentzia honetaz baliatuta besteak beste, Jose Maria Labiano apezak Izabako haur guztiak mezetara joaten zirela ziurtatzen zuen. Honek erakusten du zer nolako hezkuntza jaso zuten Jesusek eta bere ingurukoek. Kinta horretako emakumeek gogoratzen dituzte halaber, Jose Maria Labianok askatzen zituen sermoiak, zeinen arabera, emakumearen paperak etxean egon eta haurrak zein senarra edo aita zaintzera mugatua egon behar zuen.

---

nagusienak katolikoak izan baitziren. Honek ordea, ez du ideal falangista hezkuntza esferatik erabat aterako, izan ere, guztiz uztartuko dira falangearen eta eliza ultra katolikoaren baloreak hezkuntza sistema frankistan. Modu guztiz ere, Elizak posizio hegemonikoa lortu zuen hezkuntzaren esparruan eta eredu pedagogikoaren ardatza, eredu katolikoa izan zen. (Morente Valero F, "Los fascismos europeos y la política educativa del franquismo", *Historia de la educación*, 24.zenbakia, 2005 -179-204.orriak-). // Ruiz Carnicer eta Gracia Garcíaren obran halaber, Marcelino Menéndez y Pelayo izendatzen da ikuspuntu pedagogiko eta ideologikoaren ardatz nagusi, "el gigante del catolicismo reaccionario español". (*La España de Franco (1939-75)*, *Cultura y Vida Cotidiana*, Madrid, Síntesis, 2001, 107.orria).

<sup>26</sup> Gracia García, Ruiz Carnicer, *La España de Franco (1939-75)*, *Cultura y Vida Cotidiana*, Síntesis, Madrid, 2001. (107-9.orriak).



Emakumeak guztiz baliogabetzen zituen apezak eta haien jokaera, bekatuaren beldurrez eta mehatxuen bidez kontrolatzen zuela ziurtatzen dute.<sup>27</sup>

Eskola eta hezkuntza sistema dena delakoak izanik ere, Fernando Buenok ez du oroitzapen txarrik eskola urteez eta izandako maisuez. Are gehiago, ongi baloratzen ditu izandako irakasleak, bereziki, Angel Marco jauna. Bere iritziz, mutikoekin asko inplikatzeko ziren maisuak ziren, txikitatik ezagutzen baitzituzten haurrak. Garai horretan, hiru ziren San Ciprianoko herri eskolan zeuden maisuak: Don Angel (6 urtera arteko maisua), Erviti (10 urte artekoa) eta Don Ignacio (14 urte artekoa). Hirurak bertakoak edo bertan ezkondu eta gelditutako maisuak ziren, bizi osoan, Ixabako eskolan egon zirenak. Honek, ikasleen nola edo halako jarraitasun estu bat egitea ahalbidetzen zuen, maisuak azken batean, txikitatik eskolako haur guztien eboluzioaren lekuko izaten baitziren. Guztietan irakaslerik gogorrena Don Ignacio zela esaten dute kinta horietako gizon gehienek, eta gehienek halaber, bat egiten dute Don Angel Marcoren irudi positiboan. Jesus Buenok ez zuen gehiegi hitz egiten bere eskola urteez bere emazte eta seme alabekin, baina Don Angel irakasleaz ordea bai. Gorka Bueno bere semearen hitzetan,<sup>28</sup> goxotasunez gogoratzen zuen Buenok Don Angelen irudia eta horren proba da, berarekin egindako txikitako argazki bat ikusgai izaten zuela etxeko liburutegiko apalen artean. Fernando Buenok dioen bezala, Don Angelek maitasunez tratatzen zituen eta berarekin, ariketa mota ezberdinak egiten ohi zituzten (erlaxatzeko teknikak, psikomotrizitateko ariketak...). Gainerako irakasleen aldean, Don Angel zen guztietan izaera gizatiarrago eta gertuagoa zuena gehiengoaren aburuz.

Eskolan prestakuntza ona jasotzen zutela uste dute garai horretako gizon izabarekin. Aspektu pedagogikoetan sartu gabe, jakina, horiek erabat kontrajarriak baitira gaur hezkuntza on batez dugun ikuspegiarekin, akademikoki eskolatik ongi prestatuak ateratzen zirela pentsatzen dute. Matematikan, aritmetikan, gramatikan, geografian... lan gogorra eginarazten zieten. Fernandoren iritziz, herriko guztiak ziren ikasle onak eta aplikatuak. Hau baloratzeko ikerketa sakonago baten beharrean egongo ginateke, izan ere, garai honetan ikasle "aplikatua" izatea bete behar bat zen. Alegia, maisua, apaiza bezala, autoritatearen ikurra zen herrian eta errespetu

---

<sup>27</sup> Hitz egin dudana Ixabako emakume guztiek (Maria Luisa Baraze, Marisa Bueno, Charo Baraze, Consuelo Bueno...) mezu hau bera plazaratu didate. Batzuk ziurtatu egin dute apaiza zela bene-benetan hezkuntzaren eta haurren jokaeraren kontrola zuena.

<sup>28</sup> Gorka Bueno Barazerekin izandako elkarrizketatik ateratako informazioa (2014-10-09).

osoz tratatua izaten zen. Bestelakoan, errieta bikoitza jasotzen ohi zen, alegia, maisuarena eta etxekoa. Autoritate tratu horrek eta zigorrean zein beldurrean oinarrituriko hezkuntza sistemak, ikasle obedienteak eta langileak eginarazten zituen nahitaez. Baina prestakuntza akademiko onari dagokionez, baliteke, Ixabako gizonak ez egotea erabat oker. Izan ere, Ixabako eskoletan ikasitako mutikoei, ez zuten seminaria sartzeko inolako frogaren beharrik izaten. Zenbait herrietako mutikoei, maila akademiko nahikoa zutela frogatzeko azterketa bat pasarazi egiten zieten, baina Ixabako mutilen kasuan, bakar batek ere ez zuten horrelakorik egin behar izan seminaria joan ahal izateko.<sup>29</sup> Jesus Buenok modu guztiz, txikitatik erakutsi zuen ikasteko abilezia. Txikitatik mutiko azkarra izan zen eta akademikoki, nota onak eskuratzen zituen. Horrela gogoratzen dute behintzat bere kintako eta inguruko gizonak.

---

<sup>29</sup> Honetan modu guztiz, gehiago ikertu beharko nuke, izan ere, herriko kideei egindako galdeketetan eta iritzietan baino ez naiz oinarritu hau ziurtatzeko. Herriko gizonak hori baieztatu egiten dute zalantzarik gabe eta kontatu egiten dute, nola beste kasu batzuetan probaren bat pasarazi egiten zieten. Julian Jauna apezaren kasua da esaterakoa, Izaban urte askoz egondako apezarena alegia, jatorri baztandarrekoa dena; berak seminaria joateko azterketa edo proba bat pasatu behar izan zuen.

# I. ATALA: IRUÑEKO SEMINARIOKO GARAIA ETA HONEK UTZITAKO URRATSA (1956-1968)

1956.urteko irailean heldu zen Jesus Bueno Iruñeko seminariora, 13 urte oraindik beteta ez zituela eta bertan egon zen 1967.urtera arte. Seminarioan egondako urte hauek erabakigarriak izan ziren belaunaldi horietako gazte gehienentzat eta izugarritzko urratsa utzi zuten haien izaera eta pertsonengan. Azken batean, bertan hezi eta hazi egin ziren, apenas familiarekin kontakturik eduki gabe. Alabaina, barneko ikasleak izaten ziren eta urtean bitan baino ez ziren etxera itzultzen, Eguberrietan eta udaran. Gauzak honela, haien nerabezaro eta gaztaro osoan, bertako apez irakasleen hezkuntza eta zaintzapean egon ziren. Orobat, 1960.hamarkadan seminarioan eta oro har, mugimendu katoliko europarretan gauzaturiko berrikuntza guztiak harrapatu zituen bete betean eta honek dudarik gabe, eragin bizia izan zuen haien kontzientzia antifrankistaren garapenean. Zer eraman zituen seminarioko gazteak 1960. eta 1970.hamarkadetan Nafarroan sorturiko mugimendu sozio-politiko ezberdinen kide izatera? Nolako eragina izan zuen haiengan orduko Acción Católica delakoak harturiko ibilbidea? Zein irakaslek bultzatu zuten haien euskal identitatearen kontzientzia? Zerk hurbildu zituen demokrazia baten defentsa irmora? Puntu hauek guztiak dira atal honetan ikergai izango ditugunak.

## 2.1 IRUÑEKO SEMINARIORA IRISTEA, LEHENENGO URTEAK

### 2.1.1 ZERGATIK IRUÑEKO SEMINARIORA?

1956.urteko irailean hasi zituen Jesus Buenok Iruñeko seminarioan ikasketak. Izabatik bakarrik jaitsi arren, Erronkariko bi mutiko gehiagorekin lagunduta heldu zen Iruñera, Javier Artutx eta Javier Urizekin hain zuzen ere. Bera bezalako 120 bat mutil sartu zen urte horretan seminariora, gehienak, Nafarroako herri ezberdinetatik etorriak. Zerk eramaten zituen horrenbeste mutiko haien bizitokia utzi eta seminarioan sartzera? Koldo Irigoyenen hitzetan<sup>30</sup> orduko giro eta ohiturak bultzatuta iristen ziren bertara, ez apez izatearen nahiak berak

---

<sup>30</sup> Irigoyenekin elkarrizketa, Iruñea, 2009ko Otsailaren 9an. Koldo Irigoyen Irunberrin 1944.urtean sorturiko apeza da. Buenorekin seminario urte guztietan egon zen eta ondoren ere, oso erlazio estua izan zuen berarekin. Alabaina, apeza izanik ere, 1960-70.hamarkadetan, mugimendu ezberdin anitzetan inplikaturik egon zen (sozialak, politikoak, ekologikoak...), bereziki Zangozako merindadeari dagokienetan (Irunberriko urtegiaren proiektuan, *Zain dezagun Belagoan*, Itoitzeko urtegiaren...) Bere testigantzak balio handikoak izan dira ikerketa lan honen garapenean.

bultzatuta. 12 urterekin ez zuten apez bokaziorik izaten inolaz ere, are gehiago, ez ziren erabat kontziente seminarioko ikasketak apez izatera bideraturik zeudenik eta etorkizuneko apezak bihurtuko zirenik. Askorentzat apez izatea, garai horietan zegoen irteera naturaletako bat zen. Seme zaharrena etxean gelditzen ohi zen eta besteek, artzain gisa Bardeetara edo apez lanetara joaterik baino ez zuten Erronkarin.

Jesus Buenoren kasuan gainera, familia giroak bultzatu zuen seminarioan ikasketak egitera. Jada aipatu den legez, bere amaren familia katolikoa zen oso eta Bidankozen osaba Ciriakorekin pasatutako denboraldiek horretara naturalki bultzatu zuten Bueno. Ciriaco Asin apeza zen eta berak proposaturik heldu zen Jesus seminaria. Etxekoek baieztatzen duten legez, Izabako aitona Luis Buenok ez zuen inondik inora seminarioaren ideiarekin bat egiten eta Jesus bertara joatearen kontra azaldu zen. Alabaina, amari eta Bidankozeko senideei ideia ezin hobea iruditu zitzairen, haintzat, familian apez bat izatea ohore handikoa baitzen.

Bueno seminaria bidaltzearen beste arrazoi bat hezkuntza sistema beraren diseinuan aurki daiteke. Jordi Gracia eta J.A. Ruiz Carnicerren obran zehazten den legez, diktadura frankistaren hasierako garaian bigarren hezkuntza pribatizatzeko joera egon zen, honen proba izanik estatu mailan izandako 52 institutuen itxiera.<sup>31</sup> Aitu hauen ustetan, erregimen frankistak begi bistakoa den klasismoa bultzatu nahi izan zuen, goi mailako hezkuntza aukerak soilik eta bakarrik elite burges baten esku utziz. Hezkuntza ertaineko 921 zentroetatik, soilik 119 ziren publiko eta gainerako guztiak, pribatuak.<sup>32</sup> Azken hauek orden erlijioso ezberdinen menpekoak ziren, eskolapioen, jesuiten, dominikoen eta maristen menpekoak bereziki. Bigarren hezkuntzako zentro publiko gehienak halaber, hiriburu edo hiri handietan zeuden ezarrita, herrietako jendearentzako oztopo handia suposatzen zuena. J. Gracia eta J.A. Carnicerren obran aipatzen da, seminarioetako ikasleen %40 baino gehiago landa eremuko herri txikiakoa zen (mila biztanletik beheragoko herrietakoak hain zuzen ere).

---

<sup>31</sup> Gracia García, Ruiz Carnicer, *La España de Franco (1939-75), cultura y vida cotidiana*, Sintesis, Madrid, 2001. (110. orria).

<sup>32</sup> 1955. urtean bigarren hezkuntzako eskola publikoak 70.000 ikasle zituen bitartean, eskola konfesioetan 170.000 ikasle ikasten zuten (Gracia, Ruiz Carnicer; 122. orria). Gazteak zentro publikoetan matrikulatzeko aukera eskasek argi erakusten dute orduko familiek (bereziki herrietako familia xumeek) egin behar izan zuten esfortzua haien semeek ikasketak duinak eman ahal izateko. Aipaturiko zifrak estatu osoari dagozkion arren, Nafarroan proportzioan apez, fraide eta mojen kopurua handia zen oso. Izan ere, kontuan hartzekoa da, Nafarroako jendartearengan erlijiotasunak izandako eragina.

Egoera honek guztiak are gehiago sendotu zuen Elizaren indarra hezkuntzan, erregimenak haren esku utzi baitzuen maila ertain zein goreneko hezkuntzaren monopolioa hein handi batean. Gauzak honela, gerraostean seminarioek ikaragarrizko gorakada bizi izan zuten eta Estatuak lagunduta, eraikin berri asko altxatu zen. 1945.urtean 3000 ziren seminarioko ikasketen azken kurtsotan zeuden apezgaiak estatu mailan; zifra hori, ia hirukoiztu egin zen 15 urte eskasetan, 1960.urteko zifra 8000ra goratuz.<sup>33</sup> Nafarroako datuei erreparatuz gero, aldea ez da horren nabarmena, baina matrikulazioak ere gora egin zuen 50.hamarkadan zehar. 1956.urtean, hots, Bueno Asin seminaria iritsi zeneko urtean, osotara 697 ikasle zeuden matrikulatuta.<sup>34</sup>

Apezgai kopuruaren igoera honek beraz, ez zion soilik bokazioaren deiari erantzun. Diktadura garaiko giro sozio kulturalak, (erlijioak guztiz baldintzatutakoak) eta erregimenak hezkuntza publikoaren garapenean jarritako oztopoek, seminarioetako matrikulazioak gora egitea bultzatu zuten. Miguel Portillok elkarrizketa batean azaldutakoaren arabera, semeak seminaria eramatea zen klase ertain eta beheko klaseek zuten ia modu bakarra haien ondorengoei goi mailako ikasketak eman ahal izateko.<sup>35</sup> Zentzu honetan, Iruñeko seminarioa, behe klase xume eta pobreak izan zuen irtenbide bakarrenetakoa izan zen eta bertan zeuden ikasle gehienak landa eremuetako familia umilekoak ziren. Gainera garai horietan, Iruñeko seminarioa hezkuntza zentro onenetakoa kontsideratzen zen, bertatik pasaturiko gizonak prestakuntza maila handiarekin irtetzen zirela uste baitzen.

### **2.1.2. SEMINARIOKO LEHENENGO URTEAK**

Jada aipatu bezala, 12 urte zituela hasi zen Bueno apezgai izatera bideraturiko ikasketa prozesua Iruñeko Seminario Diozesiarrean. Lehenengo urteetan jasotako hezkuntza, lekukoek

---

<sup>33</sup> *Ibidem*, 122.orria.

<sup>34</sup> Marcellán Eigorri, J.A. *Cierzo y bochorno. Fenómeno vocacional de la Iglesia en Navarra (1936-1986)*. Verbo Divino, Lizarra, 1988 (109-110.orriak).

<sup>35</sup> Nerea Pérez Ibarrolak Miguel Portillori Iruñean egindako elkarrizketa (2013-05-14). Honetan Portillok gaineratzen zuen halaber, orduko gurasoek sakrifizio handiak egin behar izan zituztela haien semeei goi mailako hezkuntza eman ahal izateko. Zehazki hau da jasotako testigantza: *pues nos llevaban al seminario porque entonces no había universidad ni había nada... empezó el Estudio General con la Universidad de Navarra, que era lo del Opus... pero... no se podía acceder ahí... Entonces la gente, los padres, se sacrificaban porque sabían que era la única (vía de estudio). También mandaban mucho a los frailes, y el seminario, que costaba algo más de dinero, pues también suponía mucho sacrificio para los padres, pero... los agricultores mandaban al seminario y... los de extracción media-baja"*

horrela baieztatuta, zorrotza izan zen oso. Nazional katolizismo sutsuenean heziak izan ziren, hots, balore erabat fundamentalistetan. Irigoyenen hitzean, guztiz menpeko izatera bideraturiko mezuak jasotzen zituzten, artaldean modura bizi eta jokatzera bideraturikoak hain zuzen ere. Bakoitzaren izaera edozein izanik ere, pertsona erreserbatuak eta barnerakoiak izatera bultzatzen zituzten guztiak, anonimatuan bizitzera. Irigoyenek seminarioko lehenengo urteak anonimatu urteen modura gogoratzen ditu. Hamaika mutilen artean bizi arren, erabat ezezagunak baitziren haien artean, ez zuten alegia, benetan elkar ezagutzen.<sup>36</sup> Ez zuten haien barneko gauzez sekulan hitz egiten. Hezkuntza mota horrek ez zituen beraz helburu nazional katoliko soil hutsak, pertsona guztiz apalak, barnerakoiak, sentimenduz hitz egiten ez dutenak, lotsatiak, erreserbatuak, denari amen esaten diotenak... heztea baizik. Lotsa, isiltasuna, autoritatearekiko menpekotasuna, etab. diktaduraren urteetan indartu ziren baloreak izan ziren eta hauetan oinarrituriko gizarte eta kultura ereduak ezarri nahi izan zituzten. Honen guztiaren proba da familiekiko zuten harremana ere. Alegia, seminarioko esperientziak ez ohi zituzten senideekin inoiz konpartitzen. Seminarioko lehenengo urteetan bitan baino ez ziren etxera itzultzen eta ez ohi zuten ezertxo ere ez kontatzen, ez ikasitakoaz, ez lagun artean hitz egindakoaz, ez irakasleekin zuten harremanaz... Familia guztiz ezjakin izaten zen haien semeak bizitzen ari ziren prozesu pertsonal zein akademikoaz. Koldo Irigoyenek esandakoaren arabera, familiek berek ere ez zuten honen harira deus galdetzen.<sup>37</sup> Ziur zeuden haien semeak ongi zainduta eta heziak izaten ari zirela seminarioan, guztizko konfiantza zuten horretan eta beraz, ez zegoen ere galdetzeko eta elkarri transmititzeko ohiturarik.

Seminario barneko harreman sareak ere ez ziren guztiz sakonak izaten lehenengo ikasturteetan. Mutilek ez zituzten haien barneko gauzak partekatzen euren artean eta harreman sareak batez ere, herriko loturei jarraiki egiten ohi ziren. Klase orduetan ez zuten aukera handirik

---

<sup>36</sup> *Durante esos años hemos vivido un desconocimiento mutuo los unos de los otros. Estábamos en la misma clase, dormíamos bajo el mismo techo, rezábamos en la misma capilla, pero a lo sumo lo que nos unía era el curso, ¿no? El haber comenzado juntos y el seguir juntos. (...) Nos costaba mucho hablar, hablar no sólo en público sino de cara a los demás. Nos costaba mucho abrirnos, abrirnos de cara a los demás. No era desconfianza, (...) era sobre todo pues la timidez (...) de la que habíamos vivido todos.*

<sup>37</sup> Marisa Buenori egindako elkarrizketan esandakoren arabera, (Izaba,2015-01-02), Jesusek ez zuen sekulan deus kontatzen seminarioaz. Baina aitortzen du halaber, haiek ere ez ziotela galdetzen. Diskreziio hau Jesus Buenori beti mantendu zuen, bizitza osoan. Haren emaztea Maria Luisa Barazek eta beren seme alabek esaten dutenez, seminarioa gai tabua zen harentzat. Buenori ez zitzaion alegia, bat ere gustatzen seminario urteen esperientziak hitz egitea eta ez zen familiartean tratatzen ohi zen gaia.

izaten haien artean hitz egin eta harremanak izateko, ikasgeletako diziplina zorrotza izaten baitzen eta beti lezioak baitzuen lehentasuna. Erlazionatzeko tokia patioa eta atsedendia izaten ohi zen eta normalean mutilek, haien herri, bailara edo zonaldekoak zirenekin ibiltzeko ohitura izaten zuten. Irigoyenen hitzetan, nola edo hala, denak ziren haien herriaren maitaleak, denek zuten herriarekiko nostalgia eta sentimendu horrek herrikideekin bat egitea bultzatzen zuen. Kontuan hartu behar da mutiko gehienek ez zutela haien herrietatik kanpo ezer ezagutzen, gehienak, seminariora iritsi arte ez baitziren beren jatorritik inoiz ez atera. Herriminaren hutsune horrek, ezezagunarekiko konfiantza falta eragiten zuela dio Irigoyenek eta hori asebetetzeko modua izaten zen, atsedendietan eta aisialdian, nor bere ingurukoengana jotzea. Gauzak honela, lehenengo erlazio sareak seminarioan Pirinioetako eta Pirinio aurreko bailaretako jendearekin egin zituen Buenok. Emeki-emeki hasierako hesi hori apurtuz joaten ziren eta lagun taldeak sortzen hasten ziren.

Diziplina eta errutina izan ziren lehen urteetako hezkuntzaren bestelako ardatz nagusienak Miguel Portillok eta Koldo Irigoyenek horrela baieztatu bezala. Egunerokoan errutina erabatekoa zen eta ordutegiak erabat itxiak izaten ziren. Goiz eta arratsaldez klase izaten zen, ostegun eta larunbata arratsaldea izan ezik eta egunero halaber, goizean goizetik kaperara otoitz egitera joaten ziren. Atsedendiko eta otoitz egiteko garaia ez zenean, ikasi eta ikasi ibiltzen ziren. Irigoyenen hitzetan, astoak bailitzan ikasten zuten, humanitate eta zientziaz zamatutako astoak zirela esaten duelarik (Iruñea, 2015-02-09). Seminarioan egondako pertsona gehienek hasierako urteetako zurruntasuna gogoratzen dute, akademikoki oso hezkuntza eredu zorrotza baitzen. Era berean, ezin ahaztu Frankoren garaian gaudela eta beraz, hezkuntzak, bereziki lehenengo urteetan, (1956-62), erregimenaren idealei nola edo hala erantzuten ziela eta beraz, ez zen inolaz ere izan hezkuntza hezgarri eta askea zentzu guztietan.<sup>38</sup> Baliteke akademizismo horretatik zegoen ihesbide bakarra musikako klaseak izatea, ezen elkarrizketatu gehienek, baita Jesus Buenok berak ere, musika gogotsu hartzen zuten. Bueno jada seminariotik kanpo zegoela,

---

<sup>38</sup> Pablo Ibañezen hitzetan: *a nosotros los curas nos lastraron, nos lastraron, los curas nos lastraron pues de muchas maneras, ¿no? Por ejemplo, no viajábamos, no sabemos idiomas... ya ni te cuento la sexualidad, eso para qué vamos a hablar; o sea, te quiero decir que nos dieron una educación muy limitada,... poesía, joder, la poesía era poco menos que pecado, a Machado lo leíamos entre líneas... era una educación que hombre* (Nerea Pérez Ibarrolaren elkarrizketatik hartuta, 2014-01-07)

etxekoei txantxetan esaten omen zien, seminarioan fundamentuz ikasitako gauza bakarra musika izan zela.<sup>39</sup>

Diziplina eta nazional katolizismoa seminarioko lehenengo urteetako hezkuntza dinamikaren oinarriak izanik ere, Miguel Portilloren hitzetan, (Perez Ibarrola, 2013-05-14), seminarioan beti formatu zituzten giza baloreetan, gizakiaren eta pertsonen baloreetan. Pertsonen unibertsaltasunaren aldeko mezuak jasotzen zituztela baieztatzen du, adibide gisa jarriarik, misiolari asko joaten zitzaizkiola seminariora haien esperientzien berri ematera, tokian tokiko beltza eta indigenek pairatzen zituzten egoeraz mintzatzera. Horrek giza arazoekiko sensibilizatzen zituen eta beltzak zein zurien arteko bereizketarik ez egiten laguntzen zien, ezen denak ziren pertsona gauza guztien gainetik. Portilloren hitzetan, misiolarien hitzaldiak eta indio zein bakeroen inguruko pelikulak ikusten, arrazismoaren kontrako sasi taldeak eratzen ziren seminarioan.<sup>40</sup> Honek guztiak begiak irekitzen laguntzen zien eta pertsonen artean, hobeak eta okerragoak, goi zein behe mailakoak ez zeudela baieztatzen.

Seminarioko ikasketek osotasunean 12 urteko luzera izaten ohi zuten, hiru etapa ezberdinetan banaturik: humanitateak, filosofia eta teologia hurrenez hurren. Lehenengo bost urteetan humanitateak ikasten zituzten; historia, geografia, latina, musika... eta ebanjelioa, jakina. Arlo hauek jakintza guztien oinarritzat kontsideratzen ziren, hots, formazio intelektualaren eta eliz ikaskuntza prozesuaren zimenduak.<sup>41</sup> Ondoren hiru urteko filosofia ikasketak egiten zituzten eta azkeneko bi urteetan, teologiakoak. Azken urte hauek izan ziren nire uste apalean, Jesusen formazioan urrats gehien utzi zituzten urteak arrazoi askorengatik. Batetik, urte hauek

---

<sup>39</sup> Gorka Bueno Barazeri egindako elkarrizketan jasotako testigantza (2014-10-09). Jesus Buenok musika instrumentu ezberdinak jotzen zituen, ez zekien solfeo askorik, baina seminarioan zerbait ikasi zuen eta bertan garatu zuen zaletasun hori. Etxean akordio zahar bat, piano bat eta armonika zuen. Pianoarekin familia bazkari zein afariak animatzen zituen eta armonikarekin, bakarrik etxean, gozatu egiten zuen. Musika, argazkigintzarekin batera, bere pasio handienetako bat izan zen.

<sup>40</sup> Jesus Buenok ikaragarri gustuko zituen indio eta bakeroen inguruko nobelak eta pelikulak. Ez dago lotzerik Miguel Portilloren baieztapen hau Buenoren zaletasunarekin, baina ez litzateke harrizkoa izango gaztetan seminarioan zituzten misiolarien hitzaldi, solasaldi eta pelikula emanaldi horietan egotea afizio horren jatorria. Azken finean, Miguel Portillok gaztetan seminarioan bizitako esperientzia horiek berak edo antzekoak biziko zituen Jesus Buenok ere, nahiz eta azken hau, Portillo baina kinta bat zaharragoa izan.

<sup>41</sup> Molina Gonzalez, J.R., "La enseñanza de las Sagradas Escrituras y la Retórica Sagrada en el Seminario Conciliar de Pamplona de 1831 a 1978", *Príncipe de Viana*, 2013, 258.zenbakia, 4.orria .



bat egin zuten Kontzilio II.aren eta Espainiako Acción Catololikoak harturiko “noranzko berriaren” testuinguruarekin eta bestetik, izpiritu ireki eta erreformista sutsukoak ziren irakasleengandik formatuak izan ziren: Javier Osés, Luís Gómez de Ullate, Jesus Lezaun, Jesus Ekiza...<sup>42</sup> Datozen paragrafoetan aztertuko dugun legez, pertsona hauek izan ziren hein handi batean Kontzilio II.aren izpiritua seminarioan sartu eta ezarri zutenak. Irigoyenek esandakoaren arabera, Javier Osés, Jesús Lezaun, Jesus Ekiza... bezalako apezak izan ziren nola edo hala, haiei begiak irekitzen lagundu zietenak. Etika, filosofia, etab. bezalako ikasgaietan orduko arazo eta pertsonen kezkez hitz egiten hasi ziren, mundu errealerara hurbilduz. Filosofiako ikasketa urteak iritsi arte gehienek, errutina soilari jarraitzen ziotela dio Irigoyenek, ezer planteatu gabe, errealtate gordinari begiratu gabe, errekan behera arrastatuz korrontearekin batera biziz.<sup>43</sup> Aipaturiko irakasle horiek izan ziren seminarioko orduko mutil gazteei begiak eta mentalitatea zabaldu zietenak eta horregatik berretsi egiten dut, bai Jesus Buenorengan bai eta bere belaunaldiko apezgai gehienengan, 1963-1967.urtetan seminarioan bizitako esperientziak izan zuten garrantzia haien bizi planteamenduan, haien izaera zein pentsamenduan. Seminariotik pasatutako 1944, 1945, 1946... belaunaldiko gehienek bat egiten dute halaber baieztapen honekin. Nerea Pérez Ibarrolak Miguel Portillori eta Patxi Urrutiari egindako elkarrizketetan hori bera irakur daiteke. Alegia, besteak beste Lezaun, Osés eta Ekizak izandako eraginaz. Urrutiaren hitzetan, *“Lezaunek berak ireki zituen leihoak, eta klaro, leihoak ireki zituenean orduan errautsa guztia mugitu zen... Orduan jendea hasi zen beste gauza batzuen inguruan pentsatzen, beste hausnarketa batzuk egiten...”*.<sup>44</sup>

---

<sup>42</sup> “... Habíamos tenido dos profesores muy majos en filosofía; uno de ellos era Javier Osés, que llegó a ser obispo de Huesca. Un hombre muy abierto... Y otro profesor de Ética y Filosofía, que era de Lumbier casualmente, Luís Gómez de Ullate. Entonces estos, en filosofía, nos abrieron mucho la mente, nos abrieron muchísimo la mente hacia lo que estaba pasando...”. (Irigoyen, 2015-02-09)

<sup>43</sup> “... entonces era un poco el ambiente... era lo que había entonces, era la rutina total, que ni te planteabas nada. Te tiraban al río, y allí estás, allí estás hasta que algún profesor por ejemplo, cómo te he dicho, te abre los ojos, y luego te los vas abriendo tú según el ambiente en donde vivas...”. (Irigoyen, 2015-02-09)

<sup>44</sup> Nerea Pérez Ibarrolak Patxi Urrutiari egindako elkarrizketa, 2011-06-13. Jesús Lezaun 1955.urtean hasi zen Iruñeko Seminarioan Teologia dogmatikoa irakasten (erretiratu zen arte irakatsi zuena) eta Seminarioko errektore izan zen 1965 eta 1967.urteen bitartean.

## 2.2 VATIKANOKO KONTZILIO II.a ETA ELIZA BERRITZEKO EKIMEN EZBERDINAK

Vatikanoko Kontzilio II.a Eliza katolikoaren berrikuntza saiakera izan zela baieztatzen dute aditu askok.<sup>45</sup> Hala nola, Feliciano Monteroren esanetan, Kontzilio II.ak Elizaren kontzepzio berria bultzatu nahi izan zuen, instituzioaren estrukturaren demokratizazioa eta irekiera hizpide izan zituena. Ikuspegi berri honek funtsean, Eliza gizatiarrago bat eratzea zuen helburu, herriaren eguneroko arazoengandik hurbilago egongo zena. Gizarte eta mundu modernoarenganako hurbiltze hori ezinbestekotzat ikusi zen Eliza beraren biziraupenerako. Izan ere, gerra ondoko gizarte europarretan sekularizazio fenomenoak orokortzen hasia zen eta honek, Eliza eta erlijio katolikoaren ikusmolde berria garatzea ekarri zuen.

Aldaketa dena den, ez zen bat batekoa izan eta 1962.urterako jada, alegia, Kontzilioaren lehen saioaren ospatze datarako, Elizaren barruko zenbait indar, moldatze prozesu hori aspaldian bultzatzen hasiak ziren. Gerrarteko teologo anitzek jada, erreakzionatu beharra zegoela aurreikusi zuten. I.Mundu Gerraren oinazea, industrializazio sutsua, marxismoaren hedapena, langile klasearen ezinegona, liberalismo politiko eta ekonomikoaren garaipena... gizarte masa poliki-poliki katolizismotik urruntzea eragiten ari ziren. Ez da lan honen xedea prozesu konplexu eta zabal honetan gehiegi sakontzea, baina argi utzi behar da, 1920.hamarkadarako, Kontzilio II.ean planteaturiko zalantzak, beldurrak eta ikuspegiak jada planteatzen hasiak zirela, beste testuinguru batean eta beste helmuga batzuekin, baina jatorrian, kezka berarekin: gizartearen ebanjelizazio beharra.

Horren adibide da 1926.urtean Belgikan, Joseph Cardjnen eskutik, sorturiko JOC delako mugimendua, *Acción Catolicoaren* barneko espezializazioari hasiera emango diona. Cardjninek elizaren konpromiso soziala bultzatu nahi izan zuen eta langile gazteen arazoengana hurbiltzeko eta hauei irtenbidea bilatzeko helburuz, *Jeunesse Ouvrière Chrétienne* (JOC) sortu zuen. JOC delakoaren metodologia izan zen gerora eragin bizia izan zuena mugimendu katolikoetan, hots, "*Bizitzaren Berrikustea*" delako metodoa eguneroko egoera zein arazoak ikertzeko abiapuntu gisa (*Revisión de vida* delakoa). Metodo honek oinarrian duena bizitzaren errealitate edo auzi baten

---

<sup>45</sup> Jesus Ekizak "*La afonía de Ezequiel*" liburuan horrela deskribatzen du Kontzilio II.a: "*representó un cambio sustancial; el principio de una profunda renovación eclesial apropiada a los nuevos tiempos*" (Castor Olcoz, Txalaparta, Tafalla, 2009, 21. orria.)

inguruko hausnarketa egitea da, honi, soluzio bat bilatzeko helburuz. Aurrerago ikergai izango dugun metodo hau, mugimendu katoliko askoren inspirazio iturri bihurtu zen epe motz edo luze batean.

Inpaktu biziko beste mugimendu katolikoa aita Lombardirena izan zen, II.Mundu Gerraren ondoren sorturikoa. Jesuita italiar honek, mundu hobeagoa aldarrikatzen zuen mugimendua bultzatu zuen (*Movimiento por un Mundo Mejor*). Eliza eta gizartearen arteko harremanak estutzea eta elkar ulertzea sustatu nahi izan zituen mugimendua izan zen. Funtsean Elizaren berritzea eta ontasuna bultzatu nahi izan zituen, Jesus eta Jaungoikoaren hitzak predikatuz eta hauek jendearengana hurbilduz.

1950.hamarkadan mundu katolikoan eragina bizia izan zuen beste zerbait, nazioarteko apostolutza laikoaren kongresu multzoa izan zen. Jada II.Mundu Gerraren aitzitik, talde katolikoak nazioarte mailan antolatzeke joera garatzen hasiak ziren. Dinamika hau ordea, 1950 eta 1960.hamarkadetan indartuz joan zen eta horren proba dira, Erroman izandako hiru kongresuak, hurrenez hurren, 1951n, 1957n eta 1967n ospaturikoak. Nagusiki Acción Catolikoaren talde ezberdinetako kideak batu zituzten kongresuak izan ziren baina adituen esanetan, biziki garrantzitsuak eta Eliza Katolikoak urte hauetan harturiko norabidea ulertzeko funtsezkoak. Enrique Berzalen ustetan, 1960.hamarkada Acción Catolikoaren urrezko garaia kontsideratu beharko genuke eta hau posible egin zuena, mugimendu katolikoan espezializazioa eta hauek harturiko ebanjelizazio estrategia berria izan ziren. Espainian AC izaera triunfalista izatetik, orduko arazo sozio-politikoekin konpromisozko jarrera izatera pasatu zela dio Berzalek.<sup>46</sup> Ezin baita ahaztu espainiar hierarkia elizkoia oro har Frankoren babesle eta defendatzaile izan zela eta honek insitu, Espainia nazional berriaren printzipioekin bat egitea ekarri zuela. Eliza katolikoaren hierarkia diktaduraren legitimazioa egin zuen eta gerra zibila gurutzada bailitzan aurkeztu zuen. Gauzak honela, bai Eliza instituzio bezala bai eta AC barnean zeuden mugimenduek ere (HOAC...) muturreko nazional katolizismoan oinarritu zituzten haien diskurtso eta egitekoak, espainiar garaileekin bat eginez. 1940.hamarkadan errukia zegoen gauza guztien gaitetik eta soilik eta bakarrik katoliko zintzoak zituen aintzat espainiar Elizak, ideologia eta pentsamendu ezberdinetakoak aparte utzirik. Izaera hau 1950.hamarkadatik aurrera aldatzen

---

<sup>46</sup> Berzal de la Rosa, E, "Sotanas, martillos y alpargatas. Las contradicciones de un movimiento impulsado por el clero", en, *De la Cruzada al desengranche: la Iglesia española entre el Franquismo y la Transición*, Ortiz Heras.M (coor), Silex, Madrid, 2011, 103.orria.

hasi zen eta Acción Católicoaren barneko mugimendu espezializatuak diskurtso ofizialetik aldentzen eta eguneroko arazoena hurbiltzen hasi ziren. Horren adibide argiena zenbait tokietako HOAC mugimendua izan zen, hots, langile katolikoek taldea. Helburu izpirituala bigarren maila batean utzirik, HOAC mugimenduko kideek zer esan handia izan zuten orduko zenbait langileen aldeko ekintzetan, esaterako 1947.urteko Euskaldunaren greban eta 1951.urteko Bartzelonako tranbien greban.<sup>47</sup> Poliki poliki, HOAC eta JOC mugimendu katolikoek barruan belaunaldi berriak iritsiko dira eta noranzko berria hartuko dute, sindikatu bertikalak zein unibertsitateko sindikatu korporatiboak (SEU) erantzun ezin zituzten kezka zein arazoengana iristen saiatuko direlarik. Berzalen iritziz, mugimendu elizkoiekin loturiko kultura politiko berria garatzen joango da 1950.hamarkadako Espainian eta antolaketa eremu hauek, mugimendu politiko eta sindikal berri bat osatuko duten langile eta gazteen esparru bihurtuko dira.

Elizaren barruko AC mugimenduak harturiko bide berritzaile hori 1959. estatutuetan berretsita egin zen guztiz. Aitu askoren arabera, 1959eko estatutuen eraginez, uko egin zitzaion autoritatean oinarrituriko pastoralari eta bidea ireki zitzaion testigantzan oinarriturikoari, zeinaren helburua zen, fededunak eredu onaren bitartez kristautzea eta ez autoritatearen bitartez.<sup>48</sup>

Espainian 1950.hamarkadan bizitako egoera eta aldaketa hau mugimendu katolikoek barruan ez zen modu isolatuan eman. Jada aipatu dugun legez, Europa mailan, zenbait talde katolikoek magaletan Elizak hartu beharreko noranzko berriaren beharraz hausnartzen hasia ziren. Faxismoen garaipenak, II.Mundu Gerrak utzitako oinazeak, gerra ostean ezartzen hasi zen kontsumo gizartea eta klase ertainaren hedapenak, etab. gizarte taldeen deskristautze prozesua areagotzea ekarri zuten. Eliza urrun zegoen gizarte moderno berriaz eta honen irrikez eta ondorioz, fededunen galera eguneroko ogia bihurtzen ari zen. Testuinguru honetan iritsi zen Leon XXIII.a Erromako Aita Saindua izatera, 1958.urteetik 1963.urtera karguan egon zena. Bera Aita Saindua zela hasi zen Elizaren berritze prozesua, Vatikanoko II. Kontzilioan egiaztatu zena.

Kontzilio II.aren deialdia 1959.urtean egin zen eta lehendabiziko sesioa 1962.urteko udazkenean ospatu zen, (osotara 4 saio izan ziren, 1962-1965.urteetako udazkenetan ospatu zirenak). Sesio hauetatik guztietatik atera zen Eliza eredu berria zabaltzearen nahia, mundu

---

<sup>47</sup> Berzal de la Rosa, E, "Cristianos en el "nuevo movimiento obrero" en España", *Historia Social*, 54.zenbakia, 2006, 143.orria.

<sup>48</sup> Berzal de la Rosa, "Sotanas, martillos y alpargatas", 104.orria.

modernotik gertuago egongo zena eta laikoei paper garrantzizko bat aitortzen ziona. Aspektu berritzaileen artean erlijio askatasunarena izan zen, ezen ordura arte zegoen intolerantzia erlijiosoarekin hautsi egiten zuen. Baina funtsean, kristautasunaren irakurketa berria ekarri zuela esan genezake, elizkoiek eta laiko kristauak hartu beharreko paper aktiboa munduko arazoan aurrean. Izpiritu honetatik edan egin zuten orduan, 1960.hamarkada horretan formatu egin ziren apezgai gazteek. Irigoyenek esaten duen bezala, Kontzilioak ateak ireki zizkion kristaua izateko eta kristautasuna ulertzeko modu berriari, atentzio fokua jarriz jendearen bizitzan nahiz hauek dituzten zailtasunetan eta arazo horiek gainditzen laguntzea izanik, kristau ororen xede nagusia. Gaineratzen du halaber, Kontzilio II.ak eta honen testuinguruan indarra hartu zuten AC barneko mugimendu katoliko espezializatuek harturiko noranzkoak, Eliza askoz ere gizatiarragoa egin zutela, helburu izpiritu hutsa helmuga zuen Eliza batetik, askoz ere izaera sozialagoa zuen batera, (Irigoyen, 2015-02-09).

### **2.2.1 VATIKANOKO KONTZILIO II.ak ETA ACCION CATOLICOAREN MUGIMENDUEK IZANDAKO ERAGINA DIKTADURA FRANKISTAN**

Kontzilio II.aren izpiritu berritzaileak berebiziko eragina izan zuen orduko europar kristau gehienengan eta espainiarren kasuan, are indar bereziagoa izan zuela esan genezake. Izan ere, askorentzat diktaduran gertatzen ziren injustiziei aurre egiteko bermea bihurtu zen predikazio modu berria. Modu guztiz ere, Vatikanoko kongresuko izpirituarekin bat zetozen mezu berritzaileek, harrera ezberdina izan zuten espainiar katoliko eta elizkoien artean. Askok Kontzilio II.aren mezuak gizartea eta katolizismoa berritzeko estimulu ezin hobetzat ikusi zituzten bitartean, beste askok, mesfidati hartu zituzten. Izan ere, “*nouvelle théologie*” ez zen izan guztien gustukoa, ordura arteko espainiar hierarkia elizkoiak transmitituriko zenbait mezu eta printzipioekin talka egiten baitzuen, bereziki, kultu askatasunaren auziarekin. Ezin dugu ahaztu Espainia estatu katolikoa zela eta beraz, erlijio bakarra zela ofizial. Are gehiago, estatu espainiarreko biztanle orok, nahi hala ez, katolizismoarekin bat egin behar zuen eta hori, legez bermatuta zegoen. Kode zibila, hezkuntza sistema, generozko politika... den-dena doktrina katolikoaren arabera zegoen arautua. Panorama hau ez zetorren bat Kontzilio Vatikanoko II.aren exijentzietatik eratorritako doktrina berriarekin, alegia, erlijio askatasunarekiko planteamenduekin.

Kontzilio II.ak halaber ikuspegi eta bide berriak zabaldu nahi izan zituen Eliza eta munduaren arteko harremanetan, hala nola, parrokien mugetatik haratago zioan mugimendu ekintzaileak planteatu zituen, laikoei protagonismo gehiago utziz egunerokoan sortzen ziren

arazoen diagnosian eta soluzio bideen planteamenduetan. Honek arrisku biziak eragin zitzakeen Espainia bezalako diktadura erregimen batean, zeinean, herri masaren doktrinamendua parrokiatik eta parrokoen bitartez egiten zen.

Aipatu berri ditugun arrazoiengatik eta beste hamaikengatik, lana honen ikergai ez direnak, 1960.hamarkadatik aurrera eta Kontzilio II.aren testuinguru honetan, Eliza katoliko espainiarraren barne zatiketa hasten dela baieztatzen dute autore askok. Elizaren sektore berritzaileen pisua ordea, geroz eta handiagoa bihurtuz joango da 1962.urteetik aurrera eta honek epe labur batean, Eliza eta Estatuaren arteko tentsioak are gehiago astinduko ditu.

## **2.2.2 MUGIMENDU KATOLIKO ESPEZIALIZATUEN URREZKO GARAIA**

### **ESPAINIAN: 1960.HAMARKADA**

Jada aipatu dugun legez, AC delakoaren barruan europar testuinguru orokorrean eta II.Mundu Gerraren ondotik, mugimendu espezializatuak sortzeko joera areagotu egin zen. Espainiari dagokionez, prozesu hau zertxobait beranduago bermatu egin zen, ezen, 1939.urteko AC espainiarraren estatutuek II.Errepublikan xumeki hasitako espezializazioaren bideari ateak itxi zizkieten. Gauzak honela, lehenengo frankismoan, hots, 1940-50.hamarkadetan, Acción Catolikoaren eredu zentralista eta hierarkizatua jarraituko da, hau izanik, Espainia Berria deitutakoaren printzipioekin bat zetorren diskurtso katoliko bateratua bermatzeko estrategiarik eraginkorrena. Nazional katolizismoaren garai loratu honetan Accion Catolikoak aldarte katoliko eta nazionala zatiezinak bailitzan identifikatu eta bultzatu zituen.

Gerraosteko autarkiaren garaian orokorturiko bizi eta lan baldintza penagarriek ordea, espainiar biztanleen arteko ezinegona areagotu egin zuten eta honek, langile klasea katolizismotik urruntzeko arriskua ekar zezakeen.<sup>49</sup> Une honetan kokatuko genuke Eliza Katolikoak Espainiaren kasuan Vatikanoren gomendioz hasitako estrategia langile klasearen birkonkistarako. Helburua mugimendu sozio politiko katolikoa eratzea izanen zen, proletarioaren masa Elizaren magaletara bideratuko zituen mugimendua sortzea hain zuzen ere. Gauzak

---

<sup>49</sup> Kontuan izan beharrekoa da 1946.urtean 106 greba erregistratu egin zirela eta berrogei gehiago hurrengo urtean. Katalunia eta Euskal Herria izan ziren gehiengo batez horietako gehienek eszenatoki (Berzal, *Historia Social*, 54.zenbakia, 142.orria).

honela eta Vatikanoren instrukzioei jarraikiz, 1946.urtean espainiar gotzainek HOAC eta JOC eratu zituzten.<sup>50</sup>

1959.urteko estatutuak martxan jarri arte, HOAC eta JOC izan ziren mugimendu katoliko espezializatu bakarrak. Azken estatutu hauek mugimenduen espezializazioa onartzeaz gainera, hauen sorrera bultzatu zituzten, espezializazioaren bidea aurkeztuz langile masaren birkristautzerako gurutzada bailitzan.

Mugimendu katoliko espezializatuak halaber, hurrengo puntuan argiki azalduko den legez, bat egingo dute Vatikanoko Kontzilio II.ean nagusituko den *“nouvelle théologie”* delakoarekin. Gauzak honela, mugimendu katoliko espezializatuak orduko Espainiak bizi zituen egoera eta arazoak ikertzeko, hauen inguruan eztabaidatzeko, hausnartzeko... plataforma bihurtu ziren gazte askorentzat. Mugimendu katoliko espezializatuak seminario diozesiarretan, orden erlijiosoen menpekoak ziren eskola zentroetan, unibertsitate katolikoetan, etab. lekuetako gazteak atzeman zituen. Honen proba dira garai honetan sorturiko AC barneko gazte talde espezializatu ezberdinak eta hauek izandako gazteen kopurua. JACE delakoaren barruan, (*Juventud de Acción Católica Española*) 1960.hamarkadaren hasierarako jada, JOC mugimenduz gainera (jada aipatu bezala 1946.urtean sorturikoa), JARC, JEC eta JIC sortu ziren, hurrenez hurren nekazal guneko gazteak (*Juventudes agrícolas rurales católicas*), ikasle taldeak (*Juventud estudiantes católicos*) eta gazte independenteak (*Juventud de los medios independientes*) biltzen zituztenak. 1960-61. ikasturtean egindako balantzeetan JACE barruko mugimenduetan, 11.200 militante zegoela baieztatzen zen eta 1962-63.urteetako balantzeen arabera, militanteen kopurua 20.000ra iristen ohi zen. Azken datu hauekin batera ziurtatu egiten zen gazte mugimendu katoliko ezberdinek antolaturiko ekintzek, 250.000 gazte arakatu zituztela orotara.<sup>51</sup>

Modu batera edo bestera, argi dago gazteen artean mugimendu katoliko espezializatuak eragina izan zutela eta erregimen diktatorial frankistan 1960.hamarkadaren hasieran, eredu korporatiboa jarraitzen ez zituzten taldeetan biltzeko aukera bihurtu zirela. Baina zergatik izan

---

<sup>50</sup> HOAC (Hermandad Obrera de Acción Católica) eta JOC (Juventud Obrera Católica).

<sup>51</sup> Montero.F, “Los movimientos juveniles de Acción Católica: una plataforma de oposición al franquismo”, en *La Oposición al régimen de Franco: estado de la cuestión y metodología de la investigación: actas del Congreso Internacional*, Javier Tusell, Alicia Alted, Abdón Mateos, (coor), UNED, Madrid,1988.193-194.orrak)

zuten arrakasta? Zerk bultzatu zituen gazteak bertan integratu edo parte hartzera? Argi dago mugimendu katoliko espezializatuak berak ez zirela izan nola edo halako arrakastaren arrazoi, hauetan bultzatzen ziren metodologia eta ekintzak baizik. Alegia, mugimendu espezializatuak eskaintzen zituzten hausnartzeko, hitz egiteko, kontzientziatzeko, ekiteko... aukera izan zen gazteak arakatu zituena. Azter ditzagun beraz, zertan zetzan AC barnean orokortu zen militantzia modu eta eredua.

### **2.2.3 MUGIMENDU KATOLIKO ESPEZIALIZATUEN METODOLOGIA ZEIN IDEOLOGIA**

AC barneko mugimendu espezializatuak *in situ* Elizaren barruan eta gizarte frankistan egosten ari ziren aldaketen eskutik helduta garatu ziren Espainian. Feliciano Monteroren iritziz, 1960-67.urte artean, Acción Catolicoaren mugimendu espezializatuak inplizituki frankismoaren oposizioaren plataforma bihurtu ziren eta hein handi batean, gazte sektore asko balore demokratikoetan hezi eta mentalizatzen lagundu zuten.<sup>52</sup> Baina, zergatik? Zehazki, nola funtzionatzen zuten? Zer egiten zen mugimendu katoliko horietan? Zein izaera zuten?

Lehenik eta behin aipatu beharra dago, 1959.urteko Estatutuen idazkeraz geroztik, AC mugimenduen transformazioa gauzatzen hasi zela, ideologikoki eta metodologikoki aldaketa nabariak egon baitziren. Mugimendu katolikoek kide aktiboak nahi zituzten haien lerroetan, ordura arteko fededun pasiboaren ikuspegi orokorrarekin hautsiz. 1960.hamarkadaren hasierara arte, parrokiak izaten ohi ziren oro har, laikoen espazioa eta bertan burutzen ziren ekintza eta hausnarketa guztiak apezek bideratzen zituzten. Hau zen errotik aldatu nahi izan zutena Elizaren barruko sektore berritzaileenek. Ordura arteko metodoari egiten zioten kritikarik nagusiena beraz, fededunen parte hartze eza zen. Horrez gain, metodo tradizionalak gehiengoak pairatzen zituen

---

<sup>52</sup> *Ibidem*, 191.orria. 1967.urteko data jartzearen arrazoia da, urte horretatik aurrera hasiera ematen zaiolako AC eta mugimendu katolikoaren gainbeherari, oposizioa, beste moduetan antolatzen hastearekin batera (klandestinoki sindikatuak, alderdi politikoak... sortu edo berrantolatuz). Ordura arteko talde kristau sindikalistak, politikoki eraldatu egingo dira kontzepzio marxistak hartuz eta ibilbide berria garatuz. Iriarte Aresok bere ikerketetan jasotzen duen legez, Nafarroan horren adibide dugu esaterako ORT (*Organización revolucionaria de Trabajadores*), 1969.urtean fundaturikoa nagusiki ASTeko militante ohien eskutik, eta Nafarroako langile sektoreetan influentzia handikoa izango dena. (AA. *Euskal Herriaren Historiari buruzko bigarren biltzarra*, VI.alea. Eusko Jauriaritza, Gasteiz, 1988, 94.orria).



kasu errealei ez ziela eusten irizten zuten. Aldaketa gogo hauek AC estatuen berriztapena bultzatu zuten.

1959.urteko Estatutuek panorama berria zabalduko dute mugimendu katoliko espezializatuetan. Jada aipatu den legez, Acción Católicoaren barrutik laikoaren parte hartze aktiboa sustatu nahiko da, fededunak subjektu pasibo izatetik, militante izatera pasatuz eta hierarkiaren zein elizgizonenganako menpekotasunarekin apurtuz. Honekin batera metodo tradizionalak alde batera utzi eta pedagogia aktiboagoa bultzatu nahi zen mugimendu espezializatuetatik. Adoptaturiko metodo berriari *Bizitzaren Berrikustea* deritzo, jada Europako JOC eta bestelako mugimenduek aspaldi erabiltzen zuten metodoetan oinarritua zegoena.

Bizitzaren Berrikustea laburki esanda, talde txiki batek eguneroko bizitzarekin zer ikusia duen errealitate konkretu bat ikertzean eta honi irtenbide bilatzen saiatzean datza. Alegia, errealitatearen kontzientzia hartzea eta hau fedearen bitartez argitzea, azken helburua izanik, aldatu nahi duguna ekintza konkretuen bitartez eraldatzea. Metodoak berebiziko garrantzia eman zion entzuteari, hartzeari eta konpromisoari eta ezinbesteko hiru ardatzetan oinarritu zen: ikusi, epaitu eta ekin. Metodologia eta ideologia ildo berri honen aplikazioa kanpo proiektio batera zegoen bideratua eta beraz, errealitate soziala deskubritzea eta honen kontzientzia hartzea inplikatzeko zuten. Baina metodoa ez zen behaketa prozesu hutsera mugatzen, izan ere, konpromisoa exijitzen zuten, behaketa horretan hautemandako arazoei konponbidea jartzeko konpromisoa hain zuzen ere. Koldo Irigoyeni egindako elkarrizketan horrela baieztatuta, estatu osoko AC taldeek, bai izan espezializazio batekoak edo besteak, bai herrietan nola hirietan, eskema berarekin funtzionatu zuten beti, ebanjelioko testuetatik abiatuz, tokian tokiko egoerak analizatuz, epaituz eta hauen aurrean jardunez. Portillo iritzi berekoa da. Bere testigantzek jasotzen duten moduan, Kontzilio II.aren testuinguru horretan, ebanjelioaren irakurketa sakona egitearekin batera, ebanjelioaren beraren zurruntasunaz konturatu ziren, honek jendea laguntzeko exigentzia egiten baitzuen.<sup>53</sup>

---

<sup>53</sup> Miguel Portillo, (Perez Ibarrola, 2013-05-14); "(...) después del Concilio empezamos a ver que pues la religión era algo más que rezar, y entonces, desde el mismo concilio empezamos a ver qué era compromiso, (...) se partía del mismo evangelio; entonces se veía pues que el evangelio era muy exigente, que había que estar con los pobres (...) el evangelio pues hay que entenderlo como una entrega a los demás, porque el mandamiento del amor es lo fundamental del evangelio".

Mugimendu katoliko espezializatuek halaber, lan talde txikiak hobetsi zituzten behaketa, hausnarketa eta prozesu ekintzaileetarako. Izan ere, tokian toki arazoak ezberdinak izan zitezkeen eta zentzu honetan, efikazia lehentasunezko auzia zen. Gauzak honela, errealitate eta arazo konkretuei erantzuteko helburuz, nor bere auzo edo herrian, lantoki edo ikas zentroan, JOC, JARC, JEC edo dena delakoa jar zezakeen martxan, tokian tokiko arazoei helduz. Hausnarketa eta ekintzaren prozesua bete betean militanteengandik sortu egiten zen eta ez parrokiatiko apezengandik. Alabaina, kontuan izan behar da, mugimendu katolikoek ekintza hauek jendearen arazoetan laguntzeko xedea izateaz gainera, fededuna arakatzea eta belaunaldi berriak kristautzea zutela jakina helburu, ekintza ebanjelizatzaileak izanik halaber.

Metodo berriak eta AC taldeen espezializazioak bide eman zioten elkarretaratzei, jendarteko elkarriketen sustatzeari, arazoan aurreko kontzientzia hartzeari... eta honek bidenabar, balore demokratikoen defentsarekin konprometituriko gazte belaunaldien sorreran lagundu zuen. Hau guztia posible izan zen hein handi batean AC taldeek diktaduraren barruan zuten egoera pribilegiatuarengatik. Izan ere, erakunde kristau hauek, hasiera batean behintzat, ez zuten erregimenaren oztopo zuzenik jasotzen antolatzeke garaian, honek aukera eman zuelarik, erakunde horiek berak, propaganda, bilera eta asanblada leku bihurtzeko. Berzalek aipatzen duen moduan, Espainia autoritarioan askatasun irlatxoak bihurtu zituen HOAC, JOC, JARC, etab. bezalako mugimendu kristauak.<sup>54</sup>

## **2.3 IRUÑEKO SEMINARIOAREN URTE LORIATSUAK ETA HAUEK**

### **JESUS BUENORENGAN IZANDAKO ERAGINA 1964-1967**

Kontzilioa II.aren eta AC mugimenduen noranzko berriaren iristea Iruñeko Seminariora bat etorri zen Jesus Bueno ikasketak amaitzen ari zeneko garaiarekin, hots, teologiako urteekin. Hain zuzen ere, 1964-67 urte tartearrekin, (Koldo Irigoyenek eta Jesus Ekizak emandako datuen arabera). Une horrek bat egin zuen halaber, Jesus Ekiza, Jesus Lezaun, Jesus Etxeberria, Javier Oses, etab. irakasle berrien iristearrekin seminariora, jada aipatu den moduan, erabakigarria izan zena bertako apezgai gazteentzat. Jesus Ekizarentzat 1964-1967.urteak, urte loriatsuak izan ziren Iruñeko seminarioan, askatasun eta gozamen urteak.<sup>55</sup> Urrutiari Nerea Perez Ibarrolak

---

<sup>54</sup> Berzal de la Rosa, "Sotanas, martillos y alpargatas", 108.orria.

<sup>55</sup> Jesus Ekizari 2015eko Maiatzaren 5ean egindako elkarrizketa. Jesus Ekiza, 1930.urtean Labianon jaio eta Iruñeko seminarioan ikasketak egin ondotik apez ordenaturiko gizona dugu. Mugimendu eta borroka sozial askotan buru

egindako elkarrizketan jasotzen den moduan, Kontzilio II.ak iluntasuna argitzen lagundu zuen; “(...) *justizia, karitatea ta hola... horrelako gauzak... Vatikanoko II... teorikoki ere hau dena nolabait ere askoz ere aurrerago eramaten zuen (Eliza), desakralizatu egiten zuen, iluntasun guztiak pittin bat argitu zituen, ez? Ta horren ondorioz, klaro, gu hasi ginen bertze liburuak irakurtzen, bertze gauzak ikusten, bertze eztabaidak izaten.*” (2011-06-03).

Urte hauetan halaber hasiko dira seminarioko gazteak munduari irekitzen, kanpora ateratzen eta taldeetan parte hartzen. Irigoyen beraren hitzetan, AC talde ezberdinak ezarri ziren Nafarroako zenbait tokietan eta seminarioko gazte gehienak joaten ziren bat edo bestera. Iruñean nagusiki HOAC eta JOC taldeek izan zuten indarra, baina herrietan, JARCek izan zuen eragin gehien. Kontzilio II.az geroztik erlijioa otoitz egitea baino zerbait gehiago zela konturatzen hasi ziren seminarioetako gazteak. Miguel Portilloren esanetan, garai horietan benetako konpromisoa zer zen ulertu eta orduko gizarteek bizi zituzten egoera ezberdinen inguruko kontzientzia hartu zuten.<sup>56</sup> Klaseetan ikasi eta eztabaidaturikoa, mugimendu katoliko espezializatuetan izandako parte hartze eta inplikazioa, seminarioan izaten zituzten hizlarien ekarpenak, militantzia katolikoa, seminariora iristen ziren liburu eta artikuluen irakurketak... formazio ezin hobea bihurtu ziren orduko gazte apezgaiantzat. Jesus Ekizaren esanetan, oso formazio onarekin irten ziren orduko mutikoak seminariotik, eta ez soilik arlo teorikoan, baita, kontzientzia eta ekintza arlo ezberdinetan ere (esparru sozialean, ekologikoan, antropologikoan....). Horregatik guztiarengatik, Ekizak, Iruñeko seminarioaren urrezko urteak kontsideratzen ditu honako hauek.

“Urrezko garai” honen buruetako bat ezbairik gabe, Jesus Lezaun izan zen, Iruñeko seminarioko errektore izan zena 1965-67 urte artean.<sup>57</sup> Berak, *La afonía de Ezequiel* liburuan,

---

belarri jardun duen apeza da, hala nola, Gongoraren kontrako zaborteziaren auzian, zeinarengatik tribunaletara eramane zuten. Nafarroako elizaren inguruan ere liburu anitz idatzi izan ditu, besteak beste aipagarriak izanik, *Los sacerdotes navarros antes de la represión de 1936-1937 y ante la rehabilitación de los fusilados*; *La Iglesia de Navarra ante el desafío de la industrialización* eta *La guerra de la Iglesia en Navarra*.

<sup>56</sup> Nerea Pérez Ibarrolak Miguel Portillori egindako elkarrizketatik jasotako hitzak (2013-05-14an): “*el seminario... allá mismo se fue gestando, pues unas ideas nuevas donde ya veíamos el cristianismo ya más como compromiso, como, eh, no como un cristianismo de rezar... no, no, el cristianismo es una exigencia de... que te exige comprometerte con los demás (...)*”.

<sup>57</sup> Jesus Lezaun Petrina, Arizalan 1925.urtean jaiotako elizgizona, zuzenbide kanonikoan eta teologian lizentziatua, Teologia irakaslea izan zen 35 urtez Iruñeko seminarioan. Askorentzat, Nafarroako erlijio gaietan erreferentea.

(Castor Olcoz, Txalaparta, Tafalla, 2009, 24. orria), horrela definitzen ditu garai hauek: *“Mi etapa de rector tras el Vaticano II representó un período de transición entre un pasado, acabado y caduco, del seminario tridentino y un futuro esperanzador que despuntaba por obra y gracia del reciente concilio. Desgraciadamente, el proyecto no llegó a cuajar”*.

### **2.3.1. SEMINARIOKO IRAKASLE TALDEAK IZANDAKO ERAGINA ETA HAUEK** **TRANSMITITURIKO BALOREEK ZEIN MEZUEK IZANDAKO GARRANTZIA**

Jada aipatu den legez, 1964. urtetik aurrera Iruñeko seminarioan irakasle taldea gehiengo batez berritu egin zen eta honek, haize freskoa eraman zuen Behe Nafarroa etorbideko eraikin elizkoira. Irakasle berri eta prestatuak oso iritsi ziren seminariora. Irigoyenen iritziz, irakasle talde honek (Lezaun, Ekiza, Osés...) begiak eta mentalitatea zabaldu zizkieten aspektu guztietan, ez soilik arlo teologikoan, baita arlo, soziologiko, elizkoi eta kristauan ere. Alabaina, aipaturiko irakasle horiek transmititu egin zieten jendearengana hurbiltzeko gogo eta beharra. Irakasle hauek apezken kezka nagusienak jendearen bizitza eta bizimodua izan behar zirela zioten, apezak beti egon behar zirela jendartean eta hau laguntzeko prest eta beraz, jendea eta haien bizitza zein arazoak ezagutu beharra zirela.<sup>58</sup>

Irakasle horietako bat Jesus Ekiza izan zen. Ekizak Europan, zehazki Lovainan eta Erroman, 1959 eta 1964. urte tartea eman zuen soziologia, teologia eta antropologiako ikasketak egiten. Tesia aurkeztu ondoren, (Nafarroako kooperatibismoak izandako garrantziari buruzko tesia izan zena), Iruñeko artzapezpikuak, Enrique Delgado Gómezek, Iruñeko seminarioan pedagogo-irakasle bezala hasteko proposamena egin zion. Ekiza Europan bost urte horietan bizitutakoak zeharo markatu zuen eta ez zuen argi ikusten Iruñera bueltatzeko proposamen hura. Izan ere, Europako estatu demokratikoen, askatasunaren eta Kontzilio II.aren testuinguruan bizi ondoren, ez zuen Frankoren diktadurara itzultzeko gogo handirik. Baina bestalde, itzulerak

---

Jose Mari Esparza, Txalaparta editorialekoak, horrela deskribatu zuen Lezaun *La Afonía de Ezequiel* liburuaren aurkezpenean, (Castor Olcozek idatzitako liburua, zeinetan Lezaun pentsamendu teologikoa jasotzen den); *“lider karismatikoa, fededuna, herriaren laguna eta boterearen handikeriaren eta gainbehera moralaren kritiko zorrotza. Frankismoko egitura politiko eta erlijiosoek aurka egin zieten nafar erlijiosoek belaunaldikoa da, zeinek jarraitzaileekin batera konpromiso erlijioso berria eskaini zuen”* (Txalapartako web orritik harturiko zita).

<sup>58</sup> *“La vida de la gente es lo que nos tiene que preocupar, en lo que nos tenemos que centrar es en la vida de la gente, donde vamos a estar es en la vida de la gente, y entonces tenemos que conocerla. Somos hijos del pueblo, de las calles, de los problemas de la gente.* (Koldo Irigoyen, 2015-02-09)

aukera eman ziezaiokeen Europan ezagutu eta jasotako izpiritu berritzailea, demokratikoa eta askatasunezkoa, belaunaldi berriei transmititzeko. Azkenik, 1964.an Iruñera itzuli eta teologiako ikasleei, hots, helduei klase eman zien, (Jesus Buenori horien artean, jakina).

Urte ezin hobekak izan zirela gogoratzen du Ekizak, izan ere, Enrique Delgado Gómez artzapezpikuak, hasiera batean, guztizko askatasuna eman zien ikasketak eta seminarioa nahi bezala antolatzeko.<sup>59</sup> Izpiritu berritzaile hau partekatzen zuten 20 bat elizgizonek osatu zuten irakasle talde berria 1964.urtean eta artzapezpikuari, Jesus Lezaun errektore gisa jartzeko proposamena egin zioten. Delgado Gómezek onartuta, 1965.urtean Jesus Lezaun bilakatu zen seminarioko ikasketen buru eta aipaturiko irakasle talde horrek, buelta eman zion zentzu batean seminarioari.<sup>60</sup> Patxi Urrutiaren hitzetan, (Ibarrola, 2011-06-13), *“orduan hasi zen seminarioan nolabait ere hor egosten, olla-express batean bezala, hor egosten egoera bat... munduko arazoak (...) eta orduan jarri zuten Lezaun, (...) Lezaun jarri zuten zuzendari eta klaro, Lezaunekin ya orduan, Lezaunek berak ireki zituen leihoak; eta klaro, leihoak ireki zituenean orduan errautsa guztia mugitu zen. Eta bueno pues orduan batzuk hasi ziren pixkat hausnarketa handian (...) Orduan jendea hasi zen beste gauza batzuen inguruan pentsatzen, beste hausnarketa batzuk egiten”*. Jose Mari Esparza, Vasconavarros liburuan, hau da Lezaunen inguruan jasotzen duen informazioa; *“(...) rompió amarras con todas las estructuras políticas y religiosas de la Iglesia progresista en Navarra y todo el País Vasco. Transformó el Seminario y tuvo una gran influencia en varias generaciones de sacerdotes y cristianos de base. Inconformista y crítico mordaz, su compromiso cristiano lo hizo compatible con las luchas populares del franquismo y de la Transición (...)”*.<sup>61</sup>

---

<sup>59</sup> Aurrerago aztertuko den legez, Delgado Gómezek ez zuen Seminarioan suertatuko zen aldaketa susmatu eta irekiera gauzatzen ari zela, atzera egin zuen, errektoreari (Lezauni) zein irakasle taldeari hegala moztu nahi izan zizkielarik. Lekuko askoren hitzetan (Irigoyen, Apezetxea, Lezaun bera...) artzapezpikuak ez zuen Kontzilio II.aren testuinguruan garatu zen eliz pentsamendu berri eta irekiarekin bat egiten eta Iruñeko seminarioan garatzen hasia zen giro “berritzailea” ikustean, hau birbideratzen ahalegindu zen kosta hala kosta, besteak beste, Lezaun errektorearen kaleratzea bultzatuz.

<sup>60</sup> *“El día uno de julio de 1965 el BOP publica el nombramiento de Jesús Lezaun como rector del seminario de Pamplona. Jesús Lezaun provoca un acelerado cambio en el seminario, ante lo que reacciona con fuerza un amplio sector de la opinión pública.* (Marcellán J.A. Cierzo y bochorno, *fenómeno vocacional de la Iglesia en Navarra, (1936-86)*, Verbo Divino, Lizarra, 1988. 116.orria).

<sup>61</sup> Esparza Zabalegi, J.M, *Vasconavarros, guía de su identidad, lengua y territorialidad*, Txalaparta, Tafalla, 2012, 466.orria.

Aipatu berri dugun irakasle horietariko gehienak, European heziak ziren eta oso gertutik bizi izan zuten Kontzilio II.aren giro guztia eta baita Mendebaldeko Europako gerraosteko giroa ere, baikortasunez eta solidaritatez beterik zegoena Jesus Ekizaren ustetan. Irakasle berri gehienek europar demokraziak ezagutzen zituzten eta kristautasunaren eredu solidarioarekin, gertukoarekin, umilarekin... bat egiten zuten. Europatik ekarritako haize fresko eta erreformatzaile hori transmititu egin zuten inolako zalantzarik gabe, eta era kontziente batean, Iruñeko seminarioan zeuden orduko ikasleen artean. Gainera, jada aipatu bezala, ia irakasle gehienek goi mailako ikasketak eginak zituzten European eta ondorioz, prestakuntza maila handia zuten. Jesus Ekizaren esanetan, oso irakasle talde prestatua osatu zen 1964.urtean, arlo ezberdinetako espezialistez osaturikoa, kontzientzia handikoak eta arlo sozialean sentiberatasun handikoa. Ekizak baieztatzen du gainera, osaturiko irakasle talde hori oso batuta zegoela eta denek bat egin zutela Iruñeko Seminarioak hartu behar zuen norabide berrian. Baina, zer da zehazki bultzatu zutena? Zer nolako berrikuntzak sartu zituzten seminarioan?

Transmitituriko mezuetan dago gakoa, baita irakasteko moduan ere. Ekizak konfirmatu bezala, irakasleek erabateko askatasuna izan zuten irakasgaiak eman eta lantzeko garaian. Ikasgai guztietako programak esaterako, berriro zituzten, hauek, Kontzilio II.aren izaerarekin bateratuz. Modu honetara, ordura arte apenas tratatzen ziren gaiak lantzen hasi ziren ikasleekin. Ekizak adibidez, teologiako ikasleei eman zizkien antropologia, soziologia eta teologiako klaseak eta horietan, eboluzioaren teoriak, Euskal Herriko kulturaz, herri aniztasunaz, justizia sozialaz, giza eskubideez... mintzatu zitzairen ikasleei inolako taburik edo zentsurarik gabe. Ekizak argi zuen pertsona irekiak, konprometituak, kritikoak, jakintsuak... hezi nahi zituela, eta honetarako, ezinbestekotzat ikusi zuen ikasleak kristautasunaren eta gizateriaren berezko balore onetan hezteak. Ekizak harturiko ikasgaiek aukera paregabe hori eskaini zioten, alegia, txikitatik mamitutako, baina bereziki, azken urteetako bizitza esperientzietatik jasotako giza baloreak transmititzeko aukera.<sup>62</sup> Ekizak bezalaxe, beste irakasle gehienek ere, orduan oraindik zenbait

---

<sup>62</sup> Ekizari egindako elkarrizketan (2015-05-05) aipatu zuen, berak pertsonalki, etxean jasotako hezkuntzari garrantzi handia ematen diola, ezen, etxean mamitu zituen bere izaera eta pertsona osatzen duten balorerik sendoenak. Seminarioan ikasitakoa, Europako esperientziak eta bizitzan izandako ibilbideak, sendotu egin dituzte modu inkontziente batean haurtzarotik jasotako balore horiek guztiak. Etxekoek eta Labianoko eskolako maisuak transmitituriko balorerik garrantzitsuenak justizia sozialarenak izan zirela nabarmentzen du. Ekizaren familia karlista zen eta bere ustetan, karlistak kontzientzia sozial handiko pertsonak ziren, (liberalak berekoitzat hartzen dituen bitartean). Bere etxean gainera, irakur zaleak ziren eta beti, hiruz pa lau aldizkari egoten ziren denen eskura, bakarka irakurri eta familian komentatzen zituztenak. Aldizkarien artean, kaputxinoek zuzenduriko *Verdad y caridad*, Jesuiten *El mensajero del corazón de Jesús* eta Soto Lezkairun zeuden misiolari frantziskotarren

tokietan, eta zer esanik ez Espainia Frankistan, gai tabuak zirenak tratatu zituzten ikasleekin, besteak beste, eboluzionismoa, munduaren sorrera, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, parekidetasuna... Solidaritatea, hots, elkar laguntza, izan zen haatik, irakasle guztiek ikasleekin landu zuten beste aldarte inportanteenetako bat. Balore honen atzean zegoen oinarria, injustizia soziala zen eta ikasleak horretaz kontzientzia hartu eta hori aldatzeko beharra sentitzea garrantzi bizikoa kontsideratzen zuten apez irakasleek. Hori dela eta, ikasleekin injustizia sozialaz mintzatzearekin batera, muturreko aberastasunak ekartzen zituen desberdintasun sozialen kontzientzia transmititzen zuten. Era berean, giza eskubideen defentsaren premia eta Espainian arlo honetan zegoen gabezia hitz egiten zuten eta ikasleak, mundu justuago bat sortzeko beharrezkoa zen inplikazioaz konbentzitzen saiatu ziren.<sup>63</sup>

Eguneroko arazoez, injustiziez, etab.ez kontzientzia hartzeko modua ordea, ezin zen soilik klaseko solasaldi, irakurgai eta materialetara mugatu. Ekizak esan bezala, arazo eta injustizia horiek barrutik ezagutu beharra ziren, laguntzeko modurik onena izanik, arazoak gertutik ezagutu eta hauetan inplikatzea. Inplikazioa bultzatu nahian beraz, 1964.urtetik aurrera AC mugimendu espezializatuak izugarritzko gorakada jaso zuten Iruñeko Seminarioan, hain zuzen ere, irakasle taldeak eta errektoreak bultzatuta.<sup>64</sup> Ekizak onartu bezala, lan handia egin zen zentzu honetan, ikasleak AC mugimenduetan txertatzera animatuz eta nola edo hala, horretara bideratuz. Apezgaiek arlo batean edo bestean espezializatu beharra zutela esaten du Ekizak, hori baitzen modu bakarra, klasean lantzen ziren baloreak praktikan jartzeko eta jendea laguntzeko. Teologiako ikasleei aukera ematen zitzairen beraz, bakoitzak nahi zuen taldean integratzeko, batzuk JOC delakoan emango zutelarik izena, beste hainbat nekazal eremuko apostolutzan, etab. Ekizak baieztatu bezala, astero, klaseko ikasle batek, mugimendu espezializatuetakoa bat edo besteren hitzaldi edo bileretara joateko beharra zuen, barrutik ezagutzeko nola funtzionatzen

---

aldizkaria azpimarratu zituen. Ekizak berak aitortu bezala, etxetik mamitu zituen eta ondoren, seminarioan eta Europan izandako esperientziek sendotu egin zituen balore sozial horiek guztiak gogoz transmititu zituen bere ikasleen artean.

<sup>63</sup> Ideia hauekin bat egiten dute seminarioan urte horietan (1964-68) egondako lekuko gehienek, (Portillo, Irigoyen, Andueza...) eta Jesus Ekizak berak onartu eta baieztatu egin du seminarioan balore horiek guztiak era kontziente batean transmititu zirela.

<sup>64</sup> Aipatu beharra dago, 1960.hamarkadan seminarioan egondako elizgizon hauek (Etxeberia, Ekiza, Lezaun, Osés...) ez zirela AC espezializatuak bultzatu zuten lehenengoak Nafarroan. Jada Ekizaren aurreko belaunaldikoak, 1950.hamarkadaren hasierarako mugimendu katoliko espezializatuak antolatzen hasi zirela, horien artean Santos Begisitain Azagran, Vitorino Aranguren Milagron, José María Conget Lizarran... (Ekiza, 2015-05-05)

zuten talde horiek, zer nolako arazo errealak tratatzen ziren... Eta gero, klasearekin partekatu behar zuen bertan entzun nahiz tratatutakoa eta klaseko teoriarekin osatu.<sup>65</sup> Teologiako klase guztietan haatik, gutxienez komisio bat zegoen mugimendu espezializatu bakoitzeko eta komisio honetako norbait, astean behin joan beharra zen mugimendu espezializatuetakoko ekintza eta bileretara, ondoren, eta modu erregular batean, seminarioko ikaskideak informatzeko.<sup>66</sup> Modu honetara, 1964-68.urte bitartean Iruñeko seminariotik pasaturiko mutiko guztiek ezagutu zuten AC barruko funtzionamendua, talde batean edo bestean integratuz. Jakina, Ekizak dioen bezala, inplikazioa talde horietan ezberdina izan zen batzuen eta besteen artean, eta apezgai guztiek ez zuten seriotasun berarekin hartu mugimendu katolikoetako militantzia. Baina oro har, ikasle gehienak inplikatu egin ziren eta lan egin zuten talde katolikoren bat edo bestean. Aurrerago aztertuko den legez, oso modu esanguratsuan inplikatu egin zen pertsonetako bat mugimendu hauetan Jesús Bueno izan zen, zehazki, JARC mugimenduan.<sup>67</sup>

Ekizak bere klaseetan lantzen zuen beste gai izar bat jabetzaren banaketa izaten zen. Jabetza pribatuaren banaketa orekatua izan behar zela errepikatzen zien, ezen, muturreko jabetza pribatuak injustizia eta desoreka sozialen iturri dira bere ustetan.<sup>68</sup> Honekin batera, bere

---

<sup>65</sup> Aipatu beharrekoa dago, AC barruko talde espezializatuak Iruñeko Seminarioan ez ezik, garai honetan indar handia hartu zutela Nafarroako eskualde eta arlo zein esparru sozial ezberdin askotan. Horren adibide da esaterako, 1966.urtean Iruñeko udaletxera iritsitako hiru zinegotzi (Miguel Angel Muez, Francisco Eguiluz eta José Antonio López Cristobal), hirurak HOAC taldeko partaide zirenak. (Marcellán Eigorri J.A. *La Iglesia navarra a los cuatro vientos, 1936-86*, Ediciones Eunete, Lizarra, 1996. 133.orria).

<sup>66</sup> (...) *Los teólogos, es decir los cuatro últimos años que estudian teología, los teólogos, cada semana tiene que ir uno a los grupos de AC especializada. Y ellos mismos se organizaban. Elegíamos una comisión, elegían ellos, y a la comisión encargada de organizar la salida de los grupos de AC, de manera que todos tenían que ir. Pues yo a rural, muy bien, pues ya está, apúntate. Yo a obrera, yo a esto a intelectual, pues coge. Y entonces claro, los muchachos iban viendo, la vida y el esto de estas gentes, y luego lo completaban con la teoría, la teoría de las clases...* (Ekiza, 2015-05-05)

<sup>67</sup> Koldo Irigoyen, Jesus Ekiza, Javier Idarreta, Pilar Olague... elkarrizketatuek halaber baieztatzen dute Bueno oso sartuta eta inplikaturik egon zela nekazal eremuko apostoluzan.

<sup>68</sup> (...) *Ya nos educaban que la propiedad privada no es total, no es absoluta, y que todo el mundo tiene derecho a los bienes necesarios para vivir dignamente. Yo eso ya lo saqué de mi familia y de mi parroquia y de mi escuela, y después todo lo que he estudiado sobre eso, que ha sido muchísimo, porque a mí se me fomentó mucho la tendencia a la justicia social, todo, no hace más que confirmar esos grandes principios; los bienes son para todos, y la única manera de que sean para todos, es que a nadie le falte lo indispensable para vivir. Entonces cuando algunos tienen demasiados bienes, entonces conviene que se les quite. Ya ves que bien, y después te lo dicen*



gai gustukoenetako bat tratatzen zuen ere, lur komunalena. Ikasleekin lantzen zuen lur komunalek izandako garrantzia Euskal Herriko historian eta *corraliza* deritzen ibilbide zein eboluzioa XIX. mendean geroztik. Etxekoak karlistak izanik, asko hitz egin zioten lur komunalen, hots, *corralizen*, garrantziaz eta baita lur propietatea orekatzearen inportantziaz ere. Horrek Ekizari piztu zion kuriositatea izan zen gerora, Oliteko apez lagunkide zela, markes, konde eta burges berri askok egindako Erriberako lur konfiskatze ezegokiak ikertzera bultzatu zuena. Propietate edo jabetzaz mintzatzearekin batera, kooperatibismoaz eta honek Euskal Herrian izandako eta momentu horretan zuen garrantziaz mintzatzen zitzaien ikasleei.<sup>69</sup> Kooperatibismoa zen dudarik gabe, Ekizaren espezialitatea, ezen, doktoretza tesia honen inguruan egin zuen Erroman zegoela; *el cooperativismo en Navarra, causas y efectos*. Kooperatibismoak Ekizaren ustetan, herri bat antolatze, kudeatzeko eta guztien arteko berdintasuna bermatzeko modurik egokienetako bat da. Izan ere, mentalitate kooperatibistak oinarrian solidaritatea duela dio. Euskal probintzietan antolatze modu honek aspalditik hasita zuen ibilbidea eta Jesus Ekizak honetaz mintzatzen zitzaien ikasleei. Era berean, adibide erreal eta praktikoa ikertzen zituzten, hala nola, Nafarroan XX. mende hasieran sorturiko lehenengo lur edo nekazari kooperatibak, Gipuzkoako industria kooperatibak (Arrasatekoan sakonduz, hain zuzen ere, Jose Maria Arizmendiarieta Arrasateko apez lagunkidearen ekimenez sorturikoa), etab.

Jesus Nazaretokoaren bizitzatik hasita eta kristautasunaren hamar mandamenduetatik jarraituta, giza eskubide unibertsalen azterketa egiten zuten, historian zehar egondako dekalogo laiko zein kristau ezberdinen irakurketekin batera. Urte horietako apezgai ikasleek aukera izan zuten, lehenengo pertsona Europako demokraziak ezagututako pertsonekin egon eta balore horiek lantzeko. Izan ere, kontuan izan behar da gazte hauetako gehienak Frankoren garaiko espainiar diktaduran jaio eta haziak zirela eta beraz, ez zutela demokraziarik ezagutzen gertutik. Demokrazien jokoaren arauak ezagutzeko, irakasleek arau hauetariko asko praktikara eraman zituzten seminarioen barnean. Hala nola, klase bakoitzeko lan komisiok modu demokratikoan aukeratzen zituzten ikasleek, hots, bozketa indibidualaz eta gehiengoaren hitza errespetatuz. Kurso bakoitzeko bost edo sei komisiok zeuden (aldizkarietakoak, AC taldeetako komisiok, etab).

---

*con otras palabras, pero sí a mí ya me enseñaron todo eso. Y yo siempre tuve esa sensibilidad para los pobres, para los que carecían de las cosas...* (Jesus Ekiza, 2015-05-05)

<sup>69</sup> Jesus Ekizak elkarrizketan komentatu zuen moduan, kooperatibismoarenganako interesa bera Iruñeko seminarioko ikasle zela piztu zitzaion. Izan ere, jada apezgai ikasketak egiten ari zela, kooperatibismoaren inguruko ikasgai bat izan zuten.

Honen guztiaren atzean, demokraziaren oinarrietako batzuk jakitera emateaz gainera, ikasleekin autonomia eta dinamismoa lantzea ziren, antolatzen, konpartitzen, errespetatzen, jendea mobilizatzen... ikas zezaten. Balore demokratikoen lanketa honen atzean dena den, ez zegoen modu irmo batean inolako diskurtso antifrankistarik. Helburua ez zen militante antifrankistak eratzea edo erregimena bete betean eta modu irekian kritikatzeko. Helburua, jada aipatu bezala, apezgaiei ahalik eta formazio sakonena eman eta izpiritu kritikoa zein laguntzailea garatzea zen, lana, elkartasuna, elkar laguntza, etab. bezalako baloreen defentsan gorputz eta arima utziko zituzten pertsonak eta etorkizuneko apezak formatzea, alegia.

Demokraziaren beste oinarri nagusienetako bat, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna izanik, ezin zen faltatu garai horretako seminarioan, ez diskurtsoetan ezta praktikan ere. Iruñeko seminarioak emakumeak sartu zituen irakasle gisa. Zientzia arloan aritzen zen emakume irakasle bat eta bestea, euskarako gradua zuenez gero, euskarako klaseak ematen zituen. Emakumez gain, irakasle sekularrak ere sartu ziren Iruñeko seminarioan.<sup>70</sup>

### **2.3.2. APARTEKO FORMAZIO IKASTAROAK SEMINARIOAN 1964-1968**

Berezko klaseez gainera, urte horietan haatik, formazio ikastaroen eskaintza handiago egin zen eta adituen hitzaldiak deitu zituzten. Hasiera batean igande arratsaldeetan egiten zituzten, asteko klaseen martxa ez oztopatzeko. Irakasle taldea zen hizlariak aukeratzen zituena eta normalean, gaurkotasunarekin eta nola edo halako inportantzia zuten pertsonak ekartzen saiatzen ziren, ikasleei bizi ikaskuntzak transmititzen ahal zizkietenak. Gonbidatuen artean Ekizak bakar batzuk gogoratzen ditu, hala nola, Miguel Javier Urmeneta Ajarnate,<sup>71</sup> egun eztabaida handiak pizten dituen pertsonaia Frankoren garaian izandako militantzia politiko-militarrarengatik. Urmeneta dena den, 1960.hamarkadan ospe handiko pertsonaia politikoa zen eta Seminarioko gazteekin kontaktuan egon zen bertako irakasle taldearen gonbitez. Solasaldi

---

<sup>70</sup> Datu hauek Jesus Ekizak berak emandakoak dira. Alabaina, ez zituen jada gogoratzen emakume irakasle bi hauen izenak, hots, euskara eta zientziak irakatsi zituztenak.

<sup>71</sup> Miguel Javier Urmeneta: 1915.urtean, familia euskaltzale batean jaiotako iruindarra, 1988.urtean zendu zena. Gaztetan jeltzaleen *Euzko Gaztedien* kide izan zen arren, gerra zibilean karlistekin bat eginik borrokatu zuen eta Frankismoaren garaian erregimeneko militarra, politikari eta abokatu bihurtu zen. Egoerak horrela bultzatuta eta bere senide jeltzaleak babesteko helburuz, Dibisio Urdinean parte hartu zuen eta karlisten kide izanik, Iruñeko alkate eta Nafarroako diputatu izan zen, hurrenez hurren, 1958-64 eta 1964-71.urte artean. Euskararen aldeko ekimen anitz burutu zituen Diputazioan egonik, hala nola, *Euskara* gehigarriaren argitalpena bultzatu zuen (*Principe de Viana* aldizkariaren barruan). Haatik, Euskaltzaindiko akademikoa izan zen.

horetan batez ere, industrializazioaren garapenaz eta hau martxan jartzeko bideez mintzatu zitzairen apezgai gazteei, lekukoek horrela baieztatuta (Irigoyen, Ekiza). Izan ere, hori bera zen, hots, industrializazio prozesua, une horretan pil-pilean zegoen gaia eta AC barruko talde espezializatuetan (HOAC, JOC zein JARC-en) zegoen eztabaida nagusienetako bat. Autarkia ekonomikoa bertan behera uzten deneko garaia eta ekonomia kapitalistaren bidea urratzen hasten deneko garaia dugu honako hau (1959.urtean ofizialki hasi zena *Egonkortze Planekin* eta jarraiki, *Garapen planekin*). Honek guztiak, egokitze prozesu batean murgildu zituen espainiar estatuko bazter gehienetako giza taldeak, hiriak eta ekonomia lokalak. Espainia nagusiki nekazal herrialde bat izatetik, herrialde industrial bat izatera pasa zen eta honek, estruktura sozio-ekonomiko eta urbanistikoaren erabateko aldaketa eragin zuen, Nafarroan barne. Urmeneta Iruñeko alkate eta nafar diputatu izanik, industrializazioa bultzatzeko plangintza eta ekimenak burutu zituen eta hauen berri eman zien seminarioko ikasleei. 1964.urtean "Industria sustapenerako plangintza" martxan jarri zen Nafarroan, bertako ekonomia hazkundeari benetako bultzada eman zion plana.

Beste gonbidatuetako bat esaterako, Montoro Sagasti izan zen, Iruñean jaiotako (1898) idazle, abokatu, zuzenbide historialari, arkeologo, marrazkilari, kazetari... izandako intelektuala.<sup>72</sup> Beste gauza batzuen artean, Erribera aldeko baina bereziki, Falces eta Erriberriko lur komunalen eta hauen pribatizazio prozesua ikertu egin zuen Montoro Sagastik, historia sozialaren ikuspuntutik argitara emanaz, XIX.mendean egindako mota guztietako irregulartasunak lurraren desjabetze moduetan. Ekizak gogoratzen du ikasleak aho batez gelditu zirela bere hitzak entzundakoan, ez baitzekiten apenas deus honen inguruan. Izan ere, komunalei buruz, nafar

---

<sup>72</sup> Montoro Sagasti (Iruñea 1898-1976), EAJko militante eta Eusko Ikaskuntzako kide izan zen. Iruñean jaio arren, bere burua Tuterartzat zuela baieztatzen du Bidador J.M. *Revista del centro de Estudios Merindad de Tudela* aldizkarian idatziriko artikuluan ("Obra Histórico Literaria de José Joaquín Montoro Sagasti"). Artikulu interesgarri honetan, Montoro Sagastiren izaera eta pentsamenduei buruzko zenbait datu biltzen dira, zeinetan baieztatu egiten den bere izaera euskaltzale zein nazionalista. Iritzi berekoa da Esparza Zabalegi, bere obran horrelako esaldiak irakur daitezkeelarik: "*La Gran Enciclopedia Vasca lo cita como nacionalista vasco y participante, entre otros actos en la inauguración durante la República del Centro Vasco de Marcilla. Incluso durante el franquismo, siguió escribiendo de los vascos de Navarra, considerando al pueblo navarro como <vasco puro>. En la década de los 60, desde la Sociedad de Amigos del País, colaboró en el resurgimiento de la cultura vasca. Por ser hoy día <políticamente incorrectos>, estos detalles no se citan en la Gran Enciclopedia Navarra editada por la CAN*" (Esparza Zabalegi, J.M, *Vasconavarros, guía de su identidad, lengua y territorialidad*, Txalaparta, Tafalla, 2012, 515.orria)

jendartearen berezko eskubide historikoei buruz, desjabetzeen injustiziei buruz... ez baitzieten sekula hitz egin ez eskoletako ezta seminarioko lehen urteetako historia klaseetan ere.

Euskal kulturaren eta ikerketa historiko zein antropologikoaren erreferente izandako pertsonalitateak izan ziren gonbidatuak Iruñeko seminarioko hitzaldi edo ikastaroetara, hala nola, Jose Miguel de Barandiaran ataundarra eta bere dizipulu kontsideratzen den Jose Maria Satrustegi nafarra.

AC mugimenduen barruko pertsona nabarmenak ere pasatu ziren seminariotik, esaterako, Ruiz Gimenez, *Cuadernos para el diálogo* aldizkariako editorea, orduko HOAC mugimenduko Paco Mera, JOC, JARC eta JIC bezalako taldeko kideak, etab.<sup>73</sup>

Hitzaldi eta formazio ikastaro hauek guztiek, are gehiago lagundu egin zieten seminarioko ikasleei begiak irekitzen, mentalitatea zabaltzen eta diskurtso ofizial bakanetik aldentzen ziren proposamen ezberdinak entzuten.

### **2.3.3. IRAKURGAIK IRUÑEKO SEMINARIOAN 1960.HAMARKADAN**

Jesus Ekizak esaten duen moduan, irakurtzea plazer bat izateaz gainera, mundua ezagutzeko eta intelektualki hezteko modurik egokiena da (2015-05-05). Ez da harrizkoa beraz, garai horietako seminarioan berebiziko garrantzia ematea irakurtzeari. Ekiza seminarioko ikasle zela jada irakur zaletasuna sustatzen zen arren, 1960.hamarkadan irakurketa izan zen seminariotik gogotik bultzatu zuten zerbaite, ikasleak informazio iturri anitzen irakurketa egitera bultzatuz. Prestatzen zituzten ikasgaietako apunte guztietan, iturri bibliografikoak jasotzen zituzten eta ikasleekin komentatzen zuten, batzaz beste, 20 iturritik gora zehazten zirelarik ikasgai bakoitzeko (Ekiza, 2015-05-05). Seminarioan bertan ere liburutegia zegoen, eta irakasleek diru franko gastatzen zuten liburutegi hori hornitzeko Ekizak ematen duen datua honen harira aipagarria da; 1964.urtean teologiako ikasleentzako liburuetan 700.000 pezeta gastatu zituzten seminarioan, soilik helduentzako liburuetan. Kontu horiek artzapezpikua zen Gomez Delgadori ematen zizkieten eta honek, ez zuen inolako mugarik jartzen liburu gastuetan.

---

<sup>73</sup> Nerea Pérez Ibarrolak Pablo Ibañez abokatuari egindako elkarrizketan esaten du, seminariotik Tussel, Bandrés, Pedro Altares... ere pasa zirela.

Gauzak honela, Jesus Bueno Teologiko ikasketak egiten ari zela, irakurgai berri anitzekin hornitu zen seminarioko liburutegia. Liburu eta autore hauetariko asko, filosofia, teologia, soziologia, etab. bezalako ikasgaietan jada irakurtzen zituzten. Horien artean nabarmengarriak dira esaterako, Joseph Cardijn eta Teilhard de Chardin. Lehenengoa JOC mugimenduaren sortzaile belgikarra izan zen eta honen liburuak asko irakurtzen ohi ziren, *Bizitzaren Berrikustearen* metodoaren aitzindari izandako liburuak kontsideratzen zirenak. Berarengandik eta beste teologo askorengandik ere ikasi zein barneratu zituzten ikusi, epaitu eta ekin metodoaren oinarriak eta konpromisoaren balorea. Teologiako azken urtean, Ekizak, Teilhard de Chardin elizgizon, filosofo eta antropologo frantsesaren bi obra irakurrarazi egiten zien ikasleei.

Baina guztietan, seminarioko gazteen *vademecum* ZYX argitaletxearen liburuxkak ziren, (Irigoyen, 2015-02-09), zeinetan *Bizitzaren Berrikustearen* metodoan oinarrituriko idazkiak egiten ziren. Editorialak 1963.urtean zabaldu zituen atea eta nagusiki, HOACeko militanteak formatzea zuen besteak beste helburu. Modu ez konfesionalean, langile klasearen aldeko lan kultural eta politikoa egitera bideraturik egon zen. Baina lehenengo momentutik izan zen argitaletxe kontrolatua, izan ere, polizia gainean izan zuen. Ordurako jada, nahiz eta editorialak behin eta berriz berretsi egiten zuen bere erabateko fideltasun eliztarra, egia bestelakoa zen. Langile talde katolikoek geroz eta parte hartze aktiboagoa zuten borroka politiko zein sindikalean eta hau, bazterrak astintzen hasia zen talde katoliko espezializatuen eta gobernu zein eliz hierarkiaren arteko hamarrenetan. Une horretan sortu zen zehazki ZYX editoriala, HOAC taldearen aldizkari kontsideratuko dena, baina AC mugimendutik kanpo. Alegia, ZYXek ez zuen ACren koberturarik eta ez zuen hierarkia elizkoien zuzeneko kontrolirik. Honek are askeago eta interesanteagoa egiten zuen editoriala. Aditu askoren iritziz ZYX editorial soil bat baino gehiago izan zen, ezen, langile klasearen kontzientzia eratzea zuen helburu. Legaltasun frankistaren mugak ia zeharkatzen eta ACren kontrolpetik kanpo, ZYX orduko erreferentea izan zen gazte askorentzat. Kristauek antolaturiko aldizkaria izanik ere, kultura libertarioa transmititzen zuen bere testuen bitartez eta sozialismo eta marxismotik oso gertu kokatu ziren zenbait autoreen idazkiak biltzen zituen.<sup>74</sup> ZYX esaterako, II.Errepublikako sozialista eta marxisten hainbat testu berreditatu zituen, esaterako, Julian Besteirorenak (PSOE eta UGTko kide izandako pentsalari marxista espainiarrarenak). Garai horietan halaber, marxismoa eta kristautasuna uztartzen zituzten

---

<sup>74</sup> "Esta editorial cubría un vacío y empalmaba con una fuerte tradición, de cultura obrera y popular, socialista y anarquista, mediante la difusión asequible económicamente de lecturas de textos clásicos o divulgativos del socialismo, anarquismo y marxismo, y de la historia del Movimiento obrero internacional y español" (Montero F. La Iglesia: de la colaboración a la disidencia (1956-75), Ediciones Encuentro, Madrid, 2009, 131.orria).

autoreak, artikulua eta obrak argitaratzen hasi ziren. Berzalen testuetan irakur daitekeen moduan, 1950.hamarkadatik aurrera, Espainian kultura politiko ezkertiar, katoliko eta iraultzailea garatuz joan zen eta honek in situ, marxismoaren eta kristautasunaren arteko elkarriketa eta entendimendua piztu zuen. Unibertsitate zein sindikatu kristauen munduko pentsalari askok sinbiosi ideologiko hau besarkatu zuten. Marxismoa eta katolizismoaren baloreak hauen ikuspuntutik, erabat uztargarriak ziren, biek izan ere, solidaritatea, kontzientzia soziala, duintasuna... defendatzen zuten eta bidenabar, kapitalismo sutsuarekin kritikoak ziren, hau esplotazioarekin, indibidualtasunarekin, egoismoarekin... lotzen baitzuten. Ikuspuntu eta ideologia marxista, erlijioa eta kristautasuna ulertzeko abiapuntu zituen korrante hau ere, Iruñeko seminariora iritsi zen eta bertan, honen inguruko solasaldiak eta eztabaidak izan ohi ziren. Portillok esaten duen moduan, *“empezamos a leer libros donde eh, se podía compaginar el marxismo, como no, con la religión”*.

*Cuadernos para el Diálogo* izaten zen irakurtzen ohi zuten beste aldizkarietako bat, Ruiz Gimenez katolikoak 1962.urtean sorturikoa, gai erlijiosoak, sozialak, kulturalak, ekonomikoak, pedagogikoak, juridikoak eta zientifikoak biltzen zituena. Poliki-poliki bere editorialaren ildoak geroz eta izaera demo-kristaua nabarmenagoa erakutsi zuen eta horrengatik hain zuzen ere, izan zen arrakasta handiko aldizkaria 1960.hamarkadan. Beste irakurgai batzuen artean, Irigoyenek Foucault filosofo frantsesaren testuak azpimarratzen ditu, seminarioko gazteen artean irakurketarako ezinbesteko autorea izanik. Orobat, Hans Küng sazerdote protestantearen zenbait idazki sartzen hasi ziren ere seminarioan, (Irigoyen, 2015-02-09). Küng Kontzilio Vatikanoko II.ean parte hartze aktiboa izan zuen Erroman eta urte batzuk geroago, Juan Pablo II.aren garaian, baztertua izan zen Elizarekin kritiko agertzeagatik.

Aipatu berri ditugun irakurgai horiek guztiek eta orduan seminariora iritsi ziren beste hainbatek,<sup>75</sup> ezinbestean orduko apezgai gazteengan urratsa utzi zuten. Honen proba da esaterako, Jesus Buenoren etxeko ganbaran dagoen liburutegi partikularra, zeinean 1960.hamarkadako ediziokoak eta lehenagokoak diren liburu interesgarriak aurki daitezkeen, hala nola, Gregorio Rodríguez de Yurrerenak, (*Lecciones de filosofía social* -1958-, *Ética* -1962-), Emanuele Mounierrenak, (*Manifiesto al servicio del personalismo*, 1965), Jan Tinbergenenak

---

<sup>75</sup> Modu klandestinoan ere zenbait obra sartu edo iritsi ziren seminarioko gazteen eskuetara, hala nola, Marino Ayerrarenak. Hau eta honen tankerako beste irakurketek, lagundu egin zieten halaber, gerra zibilean gertatutakoa jakiten, bertsio ofizialetik zeharo aldentzen ziren gertaerak ezagutzeko.

(*Lecciones del pasado*, 1963), Rafael Gómez de Chaparroren *La desamortización civil en Navarra* (1967), Arthur Lewisen *Teoría del desarrollo económico* (1955), etab. Konbentzituta nago, seminarioko mutilen formazio intelektualean eta ideologikoan, eta jakina Jesus Buenoren formazioan ere, berebiziko eragina izan zutela irakurgai mota hauek guztiek. Indarrean zegoen kultura politikoa frankista, nazional eta katoliko hutsarekin apurtzen eta haien berriak ziren ideologiengana hurbiltzen lagundu zieten dudarik gabe. Kontzientziazio prozesu horretan eragin bizia izan zuten faktoreen artean beraz, testu hauek funtsezkoak izan zirela uste dut eta gainera, irakurzaletasuna indartzen lagundu zuten gazteen artean.<sup>76</sup>

#### **2.3.4. JARC MUGIMENDUA NAFARROAN ETA JESUS BUENOK HONETAN** **IZANDAKO INPLIKAZIOA**

Jada aipatu dugun legez, JARC, *Juventudes Agrícolas Rurales Católicas*, AC barruko talde espezializatuetako bat izan zen, arrakasta nagusiki landa eremuan izan zuena, hots, herrietan. Estatuko probintzia askotan ACren barruko talde garrantzitsuenetako bat izatera heldu zen, bereziki, Gaztela Leon zein Mantxan, baina baita Nafarroan ere. Hemen, landa esparruko mugimendu apostoliko hau eskualde ezberdin askotan antolatu zen, hegoaldeko Erriberako guneeetatik, iparraldeko mendialdeko bailaretara. Baina, zergatik izan zuen horrenbesteko arrakasta? Zerk ekarri zuen han eta hemen mugimendu honen antolaketa? Honetarako, nahita ez so egin behar diogu garai horietan Nafarroa bizitzen ari zen transformazio ekonomiko zein sozialari.

1950.hamarkadatik aurrera baina bereziki, 1960.ean zehar, industrializazioaren uholdea iritsi zen Nafarroara, prozesuak indar berezia izanik Iruñerrian. Estatu mailan gertatzen ari zen legez, Nafarroan ere eraldaketa ekonomikoaren garaia izan zen 1960.hamarkada eta honek, hiritartze prozesua bultzatu zuen. Majuelok argitaraturiko datuen arabera, lehenengo sektoreko biztanleri aktiboak beherakada izugarria izan zuen hogeitun urtetan, 1950.urtean nafar populazio aktiboaren %53.7 nekazaritzan jardutetik, soilik %17.7 jardutera 1975.urtean.<sup>77</sup> Prozesu hau biziki areagotu egin zen 1960.hamarkadan, izan ere, J.V. Iriarteren ikerketen arabera, 1960.urtean lehenengo

---

<sup>76</sup> Gaztetan sorturiko irakurzaletasun hori hil arte bizirik egon zen Jesus Buenorengan. Izan ere, familiak beti gogoratzen du liburu batekin esku artean, edozein izanik bere gaia (nobelak, ekonomia liburuak, kultura aldizkariak...).

<sup>77</sup> José Miguel Lana Berasain (coor). *En torno a la Navarra del siglo XX: veintinueve reflexiones acerca de la sociedad, economía e historia*, Iruñea, 2002, 307. orria.

sektoreak oraindik populazio aktiboaren %44.2 hartzen zuen Nafarroan eta soilik 15 urteetan, zifra hori ia 25 puntutan baino gehiagotan jaitsi zen.<sup>78</sup> Industria sektorearen gorakadak biztanleria aktiboaren perfila aldatzea ekarri zuen, bigarren sektorea bihurtuz guztietan langile gehien biltzen zituena. Aldaketa hau progresiboa izan bazen ere, sutsua izan zen oso. Datuak zentzu honetan agerikoak dira: 1960.urtean industria sektoreak Nafarroako biztanleria aktiboaren %41.4 biltzen zuen bitartean, 1975.urtean ia %48ra igo zen.<sup>79</sup> Agerikoak dira halaber Nafarroako BPGren datuak industriari dagokionez. Mendoza Clementek jasotako ikerketa eta datuen arabera, 1960.urtean industria sektoreak nafar BPGaren %28a suposatzen zuen, (4621 milioi pezetaren ekarpena eginez), 1973an berriz, %35 (31.593 miloi pezetako ekarpenarekin). Are adierazgarriagoak dira nekazaritza eta abeltzaintza arloko datuak BPGari dagokionez; 1960.urtean sektore honen pisua %21ekoa izatetik, erdira jaistera hamarkada eskas batean (%12a baino ez izatera pasatuz).<sup>80</sup> Ibilbide ekonomikoaren datu xume hauek agerian uzten dute biztanleriaren transferentzia nekazal sektoretik industria sektorera. Aldaera honek Nafarroako estruktura ekonomikoen eraldaketa eragiteaz gainera, nafar gizarte osoaren transformazioa suposatu zuen. Izan ere, ez zuen soilik lanbide aldaketa ekarri, (lehen sektoretik bigarrenean), geografikoki jendearen lekualdaketa bultzatu zuen ere, herriak huste prozesu batean murgilduz eta hiriak, esponentzialki haziz, bereziki Iruñerria, hau izanik Nafarroako industrializazioaren gunea guztien gainera. Datuak agerikoak dira zentzu honetan; Nafarroak 307.669 biztanle kopurua zuen 1900.urtean, zeinetatik soilik eta bakarrik %9.4a bizi zen Iruñean (28.886 biztanle), gainerako ia guztiak, landa eremuko biztanleak kontsideratuz (%72a lehenengo sektoreko jardueretatik bizi zelarik).<sup>81</sup> 1970.urteko datuei so egingo bagenio, panorama zeharo desberdina da, ezen Iruñerriak jada nafar populazioaren %41.4a hartzen zuen, hots, 1900.urteko datuekin alderatuta, laukoitza.<sup>82</sup>

---

<sup>78</sup> AA. *Euskal Herriaren Historiari buruzko bigarren biltzarra*, VI.alea. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1988, 93.orria.

<sup>79</sup> Mendiola Gonzalo, Fernando. "Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981)", *Geronimo de Uztariz*, 17-18.zenbakia, 2002, 213.orria.

<sup>80</sup> Mendaza Clemente, David. "Cambio en la estructura de clases y procesos históricos en Navarra y Zaragoza (1960-1980)", *Geronimo de Uztariz*, 9/10 zenbakia, 1994, 60.orria.

<sup>81</sup> Echeverría, J. "Antecedentes de la Navarra actual algunos elementos sobre la estructura social de Navarra de los dos primeros tercios del siglo XX", *Geronimo de Ustariz*, 9-10.zenbakia, 1994 (37.orria).

<sup>82</sup> *Ibidem*, 38.orria.



Pirinioetako bailarak industria prozesu honetatik kanpo gelditu zirela esan genezake, ezen industria gune nagusienak Iruñerrian ezarri ziren. Mendialdeko haranetako jendeak industria eta fabriken faltan, hirietara emigratu behar izan zuen. Izan ere, industrializazio prozesu honi gehitu beharko geniokeen haatik, nekazaritza esparruko mekanizazio prozesuaren ezarrera, lehenengo sektoreko transformazioa eragin zuena. "Iraultza berdea" izenarekin ezagutua dena, abeltzaintza eta nekazaritza arloan goitik beherako aldaketak ekarri zituen. Alegia, ukuiluzko abeltzaintzaren indartzea, produkzio intentsiboen ugartzea, traktoreen eta nekazaritzarako makinariaren agerpena, merkatuaren exigentzia berriak, geroz eta kontsumo maila handiko gizartearen garapena... Honek guztiak herrietan lan falta egotea areagotu zuen. Pirinioetako bailarak bete betean eragin zituen prozesu honek eta halabeharrez, jendeak, belaunaldi gazteek batez ere, herria utzi eta lan bila Iruñerriara jaitsi behar izan zuten. Nafarroako bailara ozeanikoetan eta Pirinio aurreko arroetan ere, industrializazio zentralizatuaren eta mekanizazio prozesuaren iristeak eragin zuzena izan zuten. Irunberriko zonaldean esaterako, egoera berri honek jendea masan Iruñerriara bultzatu zuen. Kasu honetan, bat etorri ziren transformazio ekonomikoa eta Iratiko trenaren deuseztatzea. Alegia, Iratiko trenaren itxierarekin batera iritsi ziren traktoreak Pirinio aurreko arroetara. Iratiko trena eta nekazaritza tradizionala, bertako biztanleriaren gehiengoa hartzen zuten jarduerak ziren eta prozesu bi horien aldi-beretasunak, lanik gabe utzi zituen Irunberri eta Agoitz inguruko zonaldeetako pertsonak. Honen aurrean, jendeak bere burua behartuta ikusi zuen Iruñera joateko, askok eta askok, herriko etxea saldu edo hipotekatu behar izan zuelarik Iruñean pisu txiki bat erostearen trukean. Antzerako egoera bizi izan zen haatik Baztan eta Ultzama aldean.

Egoera hauen aurrean, JARC eta JOC taldeetatik soluzioak bilatzen saiatu ziren. JARC taldeen ardura nagusia honakoa zen; *"herriei bizitasun pixka bat eman, (...) herri etorkizuna, eta herria nola aberastu"*, (Apezetxea, 2015-07-15).<sup>83</sup> Herriak "salbatzeko" helburu hori izan zen landa apostolutza taldea Nafarroan arrakastatsua egin zuena batik bat. Gauzak honela, JARC taldeak Nafarroako bazter guztietatik zabaldu eta antolatu ziren. Koldo Irigoyenek horrela baieztatuta, JARC, apez gazteak eta Kontzilio II.aren izpirituarekin bat egiten zuten apezak zeuden herrietan finkatu ziren batez ere. Antolaketa eskualdeka egiten ohi zen, hots, herri, bailara edo zonalde bakoitzean talde txikiak osatzen ohi ziren eta hauetan ordezkari edo

---

<sup>83</sup> *Zergatik JARCen objetiboa hori zen, pues herrietako errealdadea ikusi eta ia zer egin zitekeen, herri horietan pues, hango bizitasuna ta pixkot mantendu ta aberastu, ta jendeari erakutsi, ta lagundu, ta herriak mantendu ta hori, objetibo hori zen"* (Apezetxea, 2015-07-20). Apezetxea 1930.urtean Goizuetan jaio zen apeza da, seminarioan ikasketak egin zituen eta 1960.hamarkadaz geroztik, Almandotzeko apeza da.

arduradunak egoten ziren. Normalean, ordezkariak kargua tokian tokiko apez edo apezgaiek hartzen ohi zuten. Leitzarango delegatu esaterako, Bautista Irazoki izan zen, Baztan aldekoa, Ramon Apezetxea, Nafarroako erdialdekoa Miranda de Argako apeza zen Ismael Cuesta, Erronkarikoa Jesus Ozkoidi, etab. Eskualdeko ordezkariak gainera, probintziako delegatu edo kontseilari orokorrak zeuden, Nafarroan esaterako, JARCeko kontseilari kargua urte askotan Javier Azagrak izan zuen.<sup>84</sup> Eskualdeko delegatuak eta kontseilari orokorrak bilera komunak izaten ohi zituzten tarteka-marteka, normalean Iruñean ospatzen zirenak. Bilera hauetan JARCek talde gisa jarraitu beharreko orientabide nagusienak markatzen ziren batetik eta bestetik, nork bere eskualdeko arazoak aurkeztu eta hauei aurre egiteko proposamenak konpartitzen zituen. Ramon Apezetxeak horrela baieztatuta (2015-07-29) asanblada franko izaten ohi zituzten probintzia mailan eta askotan ere, eskualdeko delegatuak zirenak, Espainiako bestelako herri edo hirietara joaten ohi ziren mahai nazionaletara. Madriren esaterako, maiz antolatzen ziren jardunaldiak eta ohikoak izaten ohi ziren ere, probintzia ezberdinetako taldeen martxa eta ekintzak ezagutzeko egiten ziren bidaiak. Nafarroan esaterako, eskualdeko delegatuek kontaktu zuzena zuten Gaztela Leoneko probintzietako JARC mugimenduekin, bereziki, Valladolidekoekin, baita Aragoiko taldeekin ere, zehazki, Zaragozako JARC taldearekin. Probintzia eta eskualde arteko topaketa hauetan, esperientziak partekatzen zituzten eta arazoei aurre egiteko planteatzen ziren ereduak edo erreferentziak hartzen ohi zituzten, nork bere eskualdeko errealitatera egokituko zituenak ondoren. Izan ere, tokian tokiko bereizgarritasunarekin bada ere, industrializazio eta landa eremuko huste prozesu bortitzaren errealitatea orokorra zen estatu espainiarreko probintzia gehienetan, bereziki, ordura arte oso industrializazio xumea izandakoetan (Gaztela Leon, Gaztela Mantxa, Nafarroa, Errioxa, Extremadura...).

Egindako elkarrizketan Ramon Apezetxeak gaineratu zuen halaber, Nafarroan ohikoa izan zela ere probintzia mailako jardunaldiak ospatzea. Noizean behin, JARCeko nafar talde guztien topaketak antolatzen zituzten, aldioro herri ezberdin batean, eta hauetan jende anitz biltzen ohi zen. Normalean santutegiak markaturiko jaiegunetan egiten ziren horrelako topaketak, jai giroan ospatzen zirenak (San Isidro egunean, San Martin egunean...). Egun hauek ongi baino hobeto gogoratzen dituzte orobat Javier Ilaeta eta Pilar Olague senar emazteak (2015-05-11). Haiek horrela esanda, egun hauetan hitzaldiak, bilerak, ospakizun eukaristikoak etab. egiten ziren eta

---

<sup>84</sup> Datu hauek Koldo Irigoyenekin eta Ramon Apezetxearekin izandako elkarrizketetatik harturikoak dira. Ez zuten ordea gogoratzen zeintzuk ziren data zehatzak eta beraz, zaila da baieztatzea, aipaturiko pertsona hauek zehazki zein urteren buruan bete zituzten haien ordezkariak karguak.

bazkariaren ondotik, musika eta dantzaldiak antolatzen ohi ziren. Bikote honek gaineratzen duenaren arabera, arrakasta handiko topaketak izaten ziren, gazteak masan mobilizatzen zituztenak, herri eta bailara askotatik autobusak ateratzen zirelarik. Idareta eta Olague, orduan Taxoareko bailarako JARC taldeko kide zirenak, jai hauetariko askotan parte hartu zuten; horien artean gogoratzen dute behin, Belagoara Juslapeña, Atez eta Taxoaretik autobus bat atera egin zela eta Arrakon ospakizunak egin ondoren, Juan Pitoko bentetan jan egin zutela.

Jada aipatu bezala, JARC taldeko bilera orokorretan, landa eremuko apostolutzako taldeetan jarraitu beharreko bide komunak markatzen ziren. Orientabide nagusi eta komun horien artean, “bizitzaren berrikustea” metodoa zegoen. AC talde espezializatu guztietan bezalaxe, JARCen ere metodo hori bera jarraitzen zen, hots, behaketan, epaiketan eta akzioan oinarriturikoa.<sup>85</sup> Tokian tokiko egoerak aztertu ondoren, hauei irtenbide bat emateko planteamenduak egiten hasten ziren eskualde bakoitzeko taldeetako kideak eta ondoren delegatuek, asanblada orokorretara proposamen horiek eramaten zituen bertan partekatuak izateko. Baina, zeintzuk ziren arazo horiek? Zein irtenbide bilatu zitzaizen egoera ezberdinei? Zer izan zen azken batean JARC taldeak egindako ekarpena eskualde bakoitzeko ibilbidean? Erantzun hauei modu zabal eta xehetasunez erantzutea ez da zehazki ikerketa lan xume honen helburua, baina orduko nafar iparraldean planteatu ziren zenbait arazo eta irtenbide luzatzea komeni da momentu horretako errealitatearen isla diren aldetik.

Irigoyenek kontatu bezala, (2015-02-09), orduan Irunberri inguruko JARC eta JOC taldetik ekintza ezberdinak burutu zituzten arestian aipatu dugun despulazio egoerari soluzioa emateko. Iratiko bailarak salbatzeko modu bakarra, bertara ere industria eramatea zela ikusi zuten eta lan egin zuten, Irunberri eta Zangoza aldean fabrikak zabal zitezen. Zonalde horretako seminarioko gazteek, seminariotik bertatik ekimen ezberdinak bultzatu zituzten industrializazioari bultzada emateko Irunberriko arloan. Ekimenetako bat, elite lokala presionatzea izan zen. Garai horretan eragin handikoak eta dirudunak ziren pertsonen gutunak bidali zitzaizkien egoeraren berri emanez eta haien kolaborazioa eskatuz, haiek izan zitezen industria lokala zabaltzeko inbertitzaileak. Edo eurak ezagutzen zituzten enpresa buru nafarrei Irunberri aldean industria zabaltzeko proposamena egin ziezaieten. Ekimen honetatik eta beste batzuetatik lortu zen Irunberrin adibidez, altzari fabrikaren zabaltzea lehenik eta Argalen irekiera ondoren. San

---

<sup>85</sup> *Bazen metodo bat, gaur ere balio du metodo horrek; ver, juzgar y actuar. Horrek ere balio du, orain ta beti (...)* Ez bakarrik ikusi, juzgatu, egin (...) Ikusi lehenbiziko, ta gero, aber ze egin zitezkeen (...)

Isidroko bodega kooperatiba ere, 1940.urtean sortua izan zena, modernizatu behar izan zen, ardoa merkaturatzeko eta lehiakorra zen enpresa kooperatiba sortu ahal izateko. 1975.urtean hasi ziren ardoa etiketatzen eta botilaratzen.

Ramon Apezetxea, Almandozeko apez izanik Baztan aldeko JARCeko delegatu izan zenak, Baztanen, Bidasoan, Malerrekan, Larraun, Sakanan, Ultzaman... zegoen errealitateaz mintzatu zitzaigun. Zonalde euskaldun honetan sostengu ekonomiko nagusia abeltzaintza izaten zen baina gazte gehienak, formaziorik gabe, ez zeuden prestatuak abeltzaintza "modernoari" eusteko. Makinaria berriaz, ekonomia eta kudeaketa administratiboaz, mekanikaz... jakintza behar zuten. Gertatzen zena zen gazte gehienek ez zutela derrigorrezko eskola ondotik ikasten jarraitzen eta 14 urtetarako etxeetan lanean hasten ziren. Baina formaziorik gabe, ez zegoen herri horiek altxatzerik eta Apezetxearen ikuspegitik, herri ezjakina herri pobrea izango zen beti. Hori aurre egiteko, Apezetxea eta Irazokik bultzatuta, Oronotz Mugairen lanbide eskola bat zabaldu zuten 1974.urtean, arlo konkretu batean formazioa emateko helburuarekin hamalau eta hamazazpi urte arteko neska mutilak hartzen zituen eskola. Formazioa eskualde nafar konkretu horren errealitateari jarraituz diseinatu zen, basozaintzan, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenetan, mekanikan, ostalaritzan... gazteak formatuz horrela.<sup>86</sup> Era berean, ehungintza tailer kooperatiba bat abian jarri zen Baztan aldean JARC mugimenduko kideen ekimenez. Ikusirik lanik ez zela, bereziki emakumeei bideraturiko irtenbidea izan zen kooperatiboa hori sortzearen arrazoi; *ikusirikan lanik ez zela, neskak joaten ziran Iparraldera zerbitzera, ta ordun,*

---

<sup>86</sup> *"Ikusirikan konkretuki euskal zonan, hasi Ziorditik, Barranka hartuz, eta Zugarramurdi bitarte, hori zen gure zona, ta ikusi genuen 10 urtetan, ordun EGB zen, eskola utzi eta gehien gehienak etxen gelditzen ziren. Klaro epoka hortan etxeetan behar zuten laguntza, gehienak ziren badakizu, nekazariak eta haziendakin eta hola. Beno, hori zen. Eta pentsatu genuen, beno, holan segitzen badugu, gure herritan gelditzen den jendeak eskolarik gabe, jakinduriarik gabe, gauzei buruz, pobre, herri pobreak izango dira, ez badute gehiago, ez gauza gehiago baizikan desarrollatzen esaten den bezala, beren talentua beren burua, pentsatzen ikasten, ez badute gero hori errealidade ezagutzen eta motibatu, eh! Segitu bai, segitu herritan, baina ez nola nahi bizitzeko. Hori zela eta, hori dena ikusita, urte bete ibili ginen herri guztietan ibili ginen, urte betez gurasuekin bilerak egiten eta, planteatuz zer. Lanbide eskola bat gure herrietako neska mutilak, 14 urtetikan 17kok, eskola horretara etorri eta guk sortu genituen espezialidade batzuek eta gainera, hori, zonakok, zonaldeko beharrei erantzunez pues e, agropekuaria eta gero zen forestal, mekanika agrikola, ekonomia familiar, eta ostalaritza... Sistema berezi batekin. Ikusiten genuen denbora berian etxean ere behar zutela laguntza, ta ordun pentsatu genuen, hori Valladolidik hartu genuen, egondu nintzan ni, ta gero, Nafarroako kutxa municipalak, Urmenetana zena lagunduta, (...) sortu genuen Oronotz Mugairen. Momentu hartan hutsa gelditzen zen colegio hori (...). Zan kooperatiba bat, gurasona, gurasok ordainduta (...) Hori dena, mugimendu horren barrenen egin zen, JARC (...) Bere izen ofiziala zen 'Escuela familiar rural' "* (Ramon Apezetxea, 2015-07-29).

*kooperatiba sortu genun, Irurita eta Almandozko neskontzat batez ere (...) hemezortzi hogeit bat neska aritzen ziren lanean (...) hori ere sortu zen mugimendu horretan, JARC” (Apezetxea, 2015-07-29).*

Erronkariko bailara aldean, JARC taldea Jesus Ozkoidi zangozarraren ekimenez antolatu ohi zen (Irigoyen, 2015-02-09), orduko apez lagunkidea zena Izaban.<sup>87</sup> Baina Ozkoidiz gainera, bestelako apez eta laiko katolikoak ere egon ziren honetan inplikatuak, besteak beste, Marcelino Laurenz orbaizetarra, orduan Burgiko apeza zena.<sup>88</sup> Jesus Buenok abentura honetan lagundu egin zien eta bete betean sartu zen JARC mugimenduan Izabako eta oro har, Nafarroako Piriniar bailarek zituzten errealitate gordinei aurre egiteko gogoz. Une horretan pil-pilean zegoen auzia hiritartze prozesua eta honek eragiten zuen herrien hustea izanik, honi irtenbideak bilatzeko zenbait proposamen luzatu zituzten. Beste ezaugarri batzuek baldintzaturiko prozesua izan bazen ere, Nafarroako bestelako herri eta bailaretan bezala, Izaba aldean geldiezinezko hiritartze prozesua gertatzen ari zen ere. Kasu honetan ordea, beste faktore batzuk izan ziren lan falta areagotu zutenak. Esako pantanoa inauguratzearekin batera (1959-60) eta kamioi garraioen ugaritzearekin batera, almadia lanari amaiera eman zitzaion, Erronkariko bailarako ofiziorik nagusienetako bat izandakoa ordura arte. Era berean, egurraren sektorea mekanizatu egin zen eta horren ondorioz, mendiko egur mozketaren lanetan, lanpostu beharrendaren jaitsiera bizitu zen. Haatik aipatzekoa da ere, geroz eta jende gutxiago behar zela artzain lanetan, ezen transhumantzia kamioiekin egiten hasi zen. Zenbait abereen ukuiluratzeak ere eragina izan zuen. Honek guztiak erronkariar herrien nola edo halako hustea suposatu zuen, belaunaldi gazteak hirira alde egitearekin batera. 1960.urtean Izaban 806 biztanle erroldatuak egotetik, soilik 664

---

<sup>87</sup> Maria Luisa Baraze Gayarreri egindako elkarrizketa batean (2014-12-22), Jesus Ozkoidi ordurako apez modernotzat hartzen du. Garai horietan moldeak hautsi zituela baieztatzen du, ezen besteak beste, tabernetara ateratzen zen, edozeinekin hitz egiten zuen eta sotanarik gabeko janzkera ibiltzen zuen. Maria Luisaren aburuz, Ozkoidik ez zuen deus ikustekorik orduan apez ofizial zenarekin, hots, José Maria Labianorekin eta garai horietarako pentsaezinak ziren gauzak egitera ausartu zen. Hala nola, Izabako emakume gazteekin Elizondora kanpalekuak antolatu zituen.

<sup>88</sup> Marcelino Laurenz Egurce Orbaizetan 1929an jaiotako elizgizona da, Iruñeko seminarioan ikasi ondoren, Burgin apez lanetan aritu zena. Burgiko jendeak atsegin handiz gogoratzen du gizon hau, ezen gazteen aldeko apustua egin zuen eta hauekin kontaktu zuzena izan zuen, (Anuncia Artutx, 2015-08-12). Ondoren, misiolari gisa joan zen Venezuelara (Diozesiko “Javier” taldeko sazerdoteen kide gisa) eta han eman du bere bizitzaren gehiena.

egotera pasatu ziren 1970.urtean, eta zifra hori, are gehiago jaitsiz joan zen 1980.urtera arte (soilik 558ko erroldarekin).<sup>89</sup>

Hiriarekiko exodoaren joera beraz, jada sumatzen hasia zen Erronkarin 1960.hamarkadaren hasierarako eta hori bera zen asuntorik kezkarriena ziur aski Jesus Buenorentzat eta oro har, JARC mugimendu erronkariarentzat. Hiritartze prozesu hori zen JARC mugimenduak behatzen zuen egoera eta “bizitzaren metodoari” jarraituz, egoera horrek ekartzen zituen arazoek ikertzearekin hasiko ziren ziurrenik lanean: zergatik jende gazteak alde egin behar zuen bere herri eta bailaratik? Zerk bultzatzen zituen horretara? Zein zen arazoa? Ondoren, eta beti ere ikusi, epaitu eta ekin metodoaren eskemari jarraituz, soluzioetan pentsatuko lukete: zer egin horren aurrean? Nola lortu exodoaren ekiditea? Eta galdera hauen burutazio zein erantzunetan, ekonomia jardueren egokitzapenaren beharra egongo litzateke; nola birmoldatu erronkariar ekonomia jendea bertan gelditzeko? Erronkarin bizitzen ari zen emigrazio masiboaren arazoari soluzioa jartzeko bide bakarra, jarduera ekonomikoen birmoldaketan aurki zitekeen. Ziur naiz hausnarketa hauek izan zirela hein handi batean Buenori ekonomiarekiko zaletasuna piztu ziotenak.

Erronkariko JARC taldeak bilatu zuen “irtenbideetako” bat emakumeen okupazioa eta lana ziurtatzeko, ehungintza kooperatiba bat martxan jartzea izan zen. Erronkariko emakume gehienek etxean egiten zuten lan, baina garatzen hasia zen gizarte “modernoa”, zeinetan emakumeek orobat etxetik kanpo lan egiteko beharra zuten, erronkariar emakumeek ez zuten haien bailaran lanik topatzen.<sup>90</sup> Arestian aipatu bezala, garai batean asko, (enara izenez

---

<sup>89</sup> IEN, *Instituto de Estadística Navarratik*, ateratako datuak. Zifra honek dena den, ziur aski ez du bene-benetan islatzen Izaban bizi zirenen zifra erreala, ezen, hirira jaisteak ez zuen automatikoki suposatzen Izaban erroldatua egoteari uztea. Gazte askok, Iruñera jaitsi arren, Izaban jarraitu zuten erroldatuta egoten eta beraz, herrian bizitzen gelditu zirenen zifra ziurrenik, aipatutakoa baino are txikiagoa izango zen. Jesus Bueno bera, Iruñean seminarioan bizi arren, ondoren Lovainara joan arren, eta bere bizitza 1974.urteetik aurrera Iruñerrian egin zuen arren, ez zion inoiz Izaban erroldatua egoteari utzi.

<sup>90</sup> Diktadura frankistaren ezarrerak lepotik moztu zituen II. Errepublikarekin emakumeek lorturiko lan eskubide eta aukerak, hauek ia salbuespen egoerara mugatu zituelarik 1938.urteko “Lanaren foruak”. Erregimen frankistak legalki, sexu diskriminazio eta sistema patriarkala babestu zituen, diskriminazio naturalean oinarrituriko genero politika garatuz; *“la tendencia del Nuevo Estado es que la mujer dedique su atención al hogar y se separe de los puestos de trabajo”* (Lan Ministeritzaren Ordena, 1938.urteko abenduaren 27an). 1960.hamarkadan ordea, irekiera ekonomikoa ahalbidetu zuen bidea hartu ondotik, erregimen frankistak emakumeen legiazioa aldatzera behartuta ikusi zuen bere burua. Emakumeen eskubideak eta hauek mugatzen zituen legiazioa 1958.urteetik aurrera

bataiatuak) Iparraldeko zapata eta ehungintza fabriketara joaten ohi zen lanera, Maulera bereziki. Baina diktaduraz geroztik, Frantziarako bidea guztiz itxita gelditu zen emakume erronkariarentzat. Irtenbide frantses hori gabe emakume erronkariarrei zerbitzari lana baino ez zitzaien gelditzen. Batzuk aberatsen etxeetan zerbitzatzeko zuten, baina gutxi ziren bailaran zentzu honetan sortzen ziren lanpostuak. Honen aurrean, lan egin nahi zuten edo horren premia zuten emakume erronkariarrek, Iruñeko, Donostiako, Bilboko... aberatsen etxetara joan behar izaten zuten lanera. Hau ekiditeko eta emakumeak haien herrietan gelditzeko irtenbide bat beharrezkoa zen eta horrela sortu zen Erronkariko ehungintza kooperatiba 1963.urtean, 1970.urtera arte funtzionatu egin zuena. Iniziatiba honen planteamenduaren atzean Erronkariko apez gazteak egon ziren, JARC delakoaren kide zirenak. Kooperatiba sortzearen beharrez mintzatu ohi ziren Erronkariko Juntarekin eta azken hau izan zen makinak erosteaz arduratu zena. Ehungailuak beraz, bailarakoak ziren eta herri guztietan tailerrak jarri ziren martxan. Tailer hauek, tokian tokiko udaletxeek utzitako lokaletan kokatu ziren. Ordurako, lekukoek horrela esanda, punta puntako makinak ziren eta hauei esker, emakume erronkariar askok lan aukerak izan zituzten. Enkarguz egiten zuten lan, beti sozietate berdinentzako, zeinaren jabeak, Iruñeko Pedro Aldaz eta Angel Zubasti ziren. Enpresaren egoitza San Fermin kalean kokaturik zegoen, zehazki, 39.zenbakian (Anuncia Artutx, 2015-08-12).<sup>91</sup> Hauek ziren artilea eta patriiak eramaten zituztenak Erronkarira eta hauen enkarguz egiten zuten emakumeek lan. Lana beraz, eskaeraren araberakoa zen, baita soldata ere. Lan baldintzei dagokionez, lekukoek onak zirela zioten eta honetan, zeresan handia izan ohi zuen Burgiko apezak, hots, Marcelino Laurezenek.<sup>92</sup> Bere esku

---

ikuskatzen hasiko da. Marko ofizialean, berrikuspen lan hauek Sección Femeninaren ardurapean geldituko dira. Gauzak honela, Pilar Primo de Riverak 1961.urtean, gorteetan bere lege proposamena aurkeztu zuen; *“Ley sobre los derechos políticos, profesionales y de trabajo de la mujer”*. Legeak emakume espainolen aukera profesional zein politikoei ate berriak ireki zizkion, ustez. Aukera hau ordea mugatuta zegoen, ezen gizonaren eskubide berak aitortzen zitzaizkion lan eta politika jardueretan, baina salbuespen handi batzuekin. Berdintasun hori mugatua gelditzen zen, (*limitaciones a su condición femenina*) eta beraz, lanbide batzuetan sarbidea debekatuta izaten jarraitu zuen: epaile edo ejertzitoko kide izatea, esaterako. Historialari askoren ustetan, (Gloria Nielfa, Giuliana di Febo, Rosario Ruiz Franco, Elsa Garrido...), legedi berriaren helburua ez zen inolaz ere izan emakumea lan mundura txertatzea. Are gehiago, erregimeneko erakunde eta intelektualek, emakumearen integrazioa lan mundura, errealitate ekonomiko berri bati erantzuna emateko behar baten modura interpretatu zuten.

<sup>91</sup> Anuncia Artutx Bidankozeko emakume bat da, zehazki, 1950.urtean jaiotakoa. Berak Bidankozeko tailerlean lanean aritu zen emakumeetako bat izan zen (1967tik 1970.era) eta bere testigantzak funtsezkoak izan dira atal honetan aurrera egin ahal izateko.

<sup>92</sup> *“El cura de Burgui, Don Marcelino se involucró mucho en el tema de la cooperativa, para frenar la emigración de las mujeres. Era un hombre muy muy involucrado en los temas de la juventud (...) El cura de Vidangoz entonces*

hartzeari esker hein handi batean, soldatak duinak izan ziren eta autonomoen erregimenean kotizatu egin zuten.<sup>93</sup> Lekuko gehienak ez ziren inolaz ere kontziente zer nolako erregimenean kokatzen ziren, ezen ez zuten kontraturik sinatu eta soldata Erronkariko Juntatik jasotzen zuten. Emakume gehienak erretiroa iritsi ahala konturatu dira haien bizitza laboralaren espedientearen ehungintza tailerretan aritu zireneko urte horietako kotizazioaz. Juanito Zazu Erronkariko gizonak horrela baieztatuta, garai horietan kooperatibaren arduradun edo enkargatu izan zena, emakume bakoitzeko 63 pezeta kotizatzen zituzten Erronkariko Juntak. Kooperatiba honek bailarako herri guztietan funtzionatu zuen, herri guzti guztietan zabaldu zirelarik tailerrak. Bertan Erronkariko emakume askotxo aritu zen lanean goizeko eta arratsaldeko txandetan antolatuta. Lekuko arabera, lan aitzindaria izan zen eta emakume askoren exodoari fretoa jarri zitzaion, hori baitzen kooperatiba sortzearen helburu nagusia.<sup>94</sup> Bidankozen esaterako, 10 emakumeentzako lana sortu zuten ehungailuek, orduko biztanleria kopurua aintzat hartuta kopuru handia suposatzen zuena. Izan ere hamar emakume lanean aritzea 1970. urtean asko zen, hauek ia populazioaren %10 osatzen baitzuten (1970. urteko erroldaren arabera, Bidankozek 143 biztanle baino ez zituen, INE).<sup>95</sup> Kooperatibak 1970. urtean itxi zituen ateak, Pedro Aldazek eta Angel Zubastik sozio izateari utzi eta haien enpresa desagertzearekin batera. Emakume askok honen aurrean, Iruñera jaitsi behar izan zuten lan bila, beste batzuk, makinak Juntari erosi eta bere kabuz lanean jarraitu zuten (Izabako emakumeak kasu). Dena dela ere, Erronkariko ehungintza kooperatibaren ideia beste herri batzuetara esportatua izan zen. Baztan aldeko JARC taldearen ekimenez, Irurita eta Almandozeko neskek biltzen zituen kooperatiba antzerako bat jarri zen martxan (Apezetxea,

---

*era Nicolás Iribarren Tainta, de Guesa, pero ese no era tan lanzado como el de Burgi*" (Anuncia Artutx, 2015-08-12).

<sup>93</sup> Soldatak, egindako lanaren arabekoak zirenez, aldakorak ziren. Baina ordurako oso soldata ona zela baieztatzen dute lekukoek, (Anuncia Artutx, 2015-08-12). Xehetasunetan sartuta, hau da Anunciak hilabetez hilabete irabazitakoa: 1967. urteko uztailan 132 pezeta, abuztuan 1324, irailean 238, Urriaren 1406, Azaroan 1156, Abenduan 422... Soldatarik altuena 1968. urteko ekainekoa izan zen, 3700 pezeta kobratu zituztela. Haatik, 1969. urteko azaroan extra kobratu zuten, osotara 7200 pezeta zehazki.

<sup>94</sup> *"Entonces el tema de las máquinas tejedoras de la cooperativa fue un avance en el Valle"* (Anuncia Artutx, 2015-08-12).

<sup>95</sup> Kooperatibaren inguruan dena den gehiago sakontzeko, komeniko litzateke Erronkariko Bailarako Juntetxea hurbildu eta bertako artxiboan arakatzea. Denbora falta dela eta ordea, ahozko iturrietara baino ezin izan naiz mugatu. Etorkizunean artxibora hurbiltzea komeniko litzateke.



2015-07-29)<sup>96</sup> eta Galipentzun, makinak eraman ziren ere orduko apeza zenaren ekimenez, alegia, Ciriaco Asin Bidankoztarraren eta Buenoren osaba zenaren ekimenez, zeinak ideia, Erronkariko bailaratik hartu zuen (Anuncia Artutx, 2015-08-12).

Izaba edo Erronkari mailako arazo eta eztabaidetan sartuta egon arren, Bueno antza denez, JARCeko bestelako ekintzetan sartuta egon zen ere. Bere ganbarako dokumentuen artean, 1967.ean Gasteizen ospaturiko JARC taldeko pleno erregional baten berri ematen duen liburuxka topatzerik dago. Zehazki, Pedro Lazcozek Urtarrilaren 14 eta 15ean emandako hitzaldien berri ematen dituzten dokumentuak daude, zeinen izenburua, *“Evolución y crisis del medio rural”* den. Dokumentu hauetako bat, hitzez hitz Lazcozek konferentzia horretan egindako diskurtsoaren transkribaketa zehatza da, horrela zehazten delarik honen bukaeran. Dirudienez hitzaldia Jesusek berak zintan grabaturikoa eta makinaz transkribaturikoa izan zen.<sup>97</sup> Lekukoen faltan eta dokumentazio gehiagoren faltan dena den, zaila da ehuneko ehunean ziurtatzea Bueno bertan egon ote zen, baina proba horiek bere etxeko ganbaran aurkitu izana adierazgarriak dira oso. Irigoyeni eta Ekizari egindako elkarrizketan, Bueno Gasteizera ez ezik, maiztasunez Madrilera ere jaitsi egin zela baieztatzen dute, Madridentzako JARC taldeko egoitza nagusia eta jada aipatu den legez, komite erregional ezberdinetako kideen topaketak ohikoak izaten ziren. Era berean, Murtziara ere joan zela ziurtatu daiteke, ezen bere etxean, Murtziara militante katolikoek egindako bidai baten argazkiak daude. Badirudienez, bidai bat baino gehiago egin zituzten Espainia mailan bera eta berarekin batera, JARC mugimenduan integraturik zeuden

---

<sup>96</sup> *“Hemen egondu ziran eta etorri ziran erakustera hemengori hango neskek, Ronkalekoak eta, Erronkarin izandu nintzan ere. Haiek ekarri nitun nik, bai, bai, bai, nola azaldu hemengori. Sortu zen ze hango situazioa zen hemengoaren iguala. Eta hango bi neska ekarri nituen nik honara, zera, Ronkaletik, eta gu izandu ginan Ronkalen, por supuesto”.*

<sup>97</sup> Dokumentuaren bukaeran horrela dio; *Charla tomada en cinta en un pleno regional de dirigentes JARC/F celebrado en Vitoria los días 14 y 15 de enero de 1967.* Hitzaldiak hiru atal dituela esan genezake, *bizitzaren berrikustearen* metodoari jarraituz antolataturikoa egonik. Lehenik eta behin datu objektiboak ematen ditu, (Espainiako nekazari kopuruaren datuak, lehenengo sektorearen inguruko eboluzio historikoaren datuak, zifra ekonomikoak...); ondoren, Espainian lehenengo sektoreak momentu horretan bizi duen eboluzio dekadentearen arrazoi multzoaz mintzatzen da (zergatiak bilatuz, nekazari, abeltzain eta landa eremuko herriak egoera horretara eraman dituzten arrazoiak aurkeztuz, etab.); eta azkenik, egoera hori bideratzeko irtenbideak aipatzen ditu, enfasi berezia emanez kooperatibismoaren beharrari, nekazari eta abeltzainak enpresa kooperatibetan antolatzeko apustuaren garrantzia nabarmenduz.

gazteak. Argazkiei begiratuta ordea, zaila da jakitea zeintzuk diren horietan agertzen diren pertsona guztiak.<sup>98</sup>

JARC taldearekin lotzen duen beste lehenengo iturri bat, Alemaniara egindako bidaia baten berri ematen duten dokumentu multzoa da. Bere ganbaran gordeta zituen dokumentu batzuek baieztatu egiten dute, Jesus Buenok 1967.urteko udan, zehazki Uztailaren 10etik 22ra, Alemaniara bidaiatu egin zuela, nekazal eremuko arazo eta garapenei buruzko jardunaldi batzuetara. Dokumentazioen artean jardunaldi edo kurtso honen programa, aurkezpen orria, bertan parte hartutako pertsonen zerrenda eta Jesusek berak eskuz harturiko apunteak aurki daitezke. Bidai honetan Espainia mailako dozena bat parte hartzaile egon zela zehazten dute dokumentuek eta dirudenez, haiek ere hitzaldiak eman behar izan zituzten bertan.<sup>99</sup> Jardunaldiaren programa goitik behera deskribatzen duen dokumentua gordeta dago ganbaran, zeinaren izenburuak horrela dioen; *Programa del curso de dirigentes españoles y alemanes*. Kurtsoa Essen hirian ospatu zen, hain zuzen ere, *Klausenhof, Academia de la juventud católica rural alemana* delakoaren egoitzan dokumentuetan zehazten den legez. Jardunaldien programa zabala da oso, egunero goiz eta arratsalde hitzaldiak, bisita gidatuak eta aleman katolikoekin hartu emanak zehaztuta daudelarik.<sup>100</sup> Essen hiriaz gainera, Dusseldorf, Paderborn,

---

<sup>98</sup> María Luisa Barazek bere senarra Buenorekin bidai horietako argazkietan ateratzen den pertsonetako bat Agustín Areta dela konfirmatzen du. Agustín Areta delakoarekin ordea, ezin izan dut kontaktatu. Maria Luisaren hitzetan, urte askoz Carlos III.a kalean, Iruñean, dendatxo bat izan zuen Aretak, baina datu gehiagoren faltan, ezin izan dut lokalizatu.

<sup>99</sup> Dokumentazio guztiarekin atxikirik agertzen da ere JARCeke zuzendaritza taldetik parte hartzaileei Madrileko egoitzatik bidali zieten eskutitza, 1967ko Ekainaren 15ean sinaturikoa. Honetan, (*a los participantes al intercambio Alemania-España*) bidaiaren nondik norako nagusien berri ematen zaizkie. Besteak bete, hau da hitzez hitz zehazten dena: “*Todos los trabajos tienen dos partes, una visión Alemana y la otra Española, por eso hay distintos trabajos a preparar y repartiros entre el grupo. Intentando que sea equilibrada la participación entre chicos y chicas y de las distintas regiones, hemos hecho la distribución de temas para que vayamos preparándolo ya. Se puede hacer en común las dos personas de la misma Diócesis o región, así resulta más fácil el trabajo y más rico el contenido. Para exponerlo sólo uno* “. Eskutitza Magdalena Fullana delako batek sinatzen du JARCeke zuzendaritzaren izenean.

<sup>100</sup> Hitzaldien gaietako batzuk hauek izan ziren; “La situación y el desarrollo político-social después de la II.Guerra Mundial”, “La economía de España en vista de una integración europea”, “Problemática de la migración rural”, “¿Cómo responden los Movimientos de las JARC en España y Alemania a los problemas de evolución en la zona rural?”, escuelas de formación profesional agrícola de Alemania, etc.

Mantingahusen eta Coloniako zenbait toki bisitatu zituzten, hala nola, JARC alemaniarren egoitza ezberdinak, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenak, landa eskola espezializatuak, etab.

Alemaniko bidai honek erakusten du beraz, JARC delakoan militante aktiboa izan zela eta ez soilik Espainia mailan, Europa mailako konferentzietan ere ibili egin zela. Ekizaren hitzetan, Bueno oso inplikaturik egon zen nekazal apostoluzaren mugimenduetan eta kargu garrantzitsuak bete zituela. Haatik gaineratzen du, oso serio hartu zuela militantzia eta lan handia egin zuela JARC mugimenduaren esparruan.<sup>101</sup> Hala eta guztiz ere, zaila egiten da zehazki jakitea zein kargu bete zuen Jesus Buenok mugimendu honetan, ezen denbora gutxi egon zen honetan sartuta (aurkituriko dokumentazioa nagusiki 1965-67 urte bitartekoa da) eta elkarriketaturiko jendeak ongi gogoratzen du Bueno saltsa hauetan ibili zela baina ez daki zehazten zein izan zen bere benetako inplikazioa edo kargua. Hori dela eta, puntu honetan gehiago sakontzerik ez dut momentuz izan, baina gauza bat argi dago, konpromisozko garai honetan Buenok JARC mugimenduarekin bat egin zuela eta aurrerago ikertuko dugun legez, biziki markatu egin zuela bertan izandako esperientziak. Irigoyenek Jesus Bueno bai Izaban zein Iruñean eta bestelako tokietan zituzten JARC mugimenduko bileretatik eta ekimenetatik erabat entusiasmaturik etortzen zela baieztatzen du (2015-0209) eta bere uste apalean, JARCen izandako inplikazio horrek Buenorengan garrantzi bizikoa izan zen. Baina galdera asko gelditzen dira oraindik argitzeke zentzu honetan, Buenoren familiak berak ere ezagutzen ez dituenak<sup>102</sup>: zer zen zehazki JARC mugimendu erronkariarrak planteatzen zituen arazoak, kezkak eta irtenbideak? Zeintzuk ziren haien jokabideak? Eta ekintza esparruak? Zer nolako papera zuen zehazki Buenok mugimenduan? Honako hauek, lan sakonago eta dokumentatuago batean ikertzeko gelditzen diren zalantza batzuk dira, momentuz itxaron beharko dutenak.

---

<sup>101</sup> "Porque él tenía un cargo importante, ¡eh! (...), fue un hombre muy responsable, muy serio, que se preparó especialmente en apostolado rural, y que participó en muchas reuniones por supuesto de JARC, de apostolado rural y congresos y cosas de esas (Ekiza, 2015-05-06)

<sup>102</sup> Jesús, nunca nos hablaba de lo que hacía en Pamplona, ni si acudía a estas reuniones, ni qué objetivos tenía... Nada de nada (Fernando Bueno, 2015-01-02)

### **2.3.5 IRUÑEKO SEMINARIOA ETA EUSKALTZALETASUNA; EUSKAL KLEROAREN ERAGINA SEMINARIOKO 1960.HAMARKADAKO GIROAN**

Jesus Buenoren figura lotuta egon zen beti euskal kulturaren eta hizkuntzaren defentsarekin. Jesus Buenok bere burua euskaltzale eta euskal herritartzat izan zuen. Baina zergatik? Zerk eraman zuen euskal identitate sendo hori garatzera? Zerk bultzatu zuen euskal usadioenganako hurbiltzea? Zergatik maitatzen zuen horrenbeste Euskal Herria eta bere kultura?

Galdera horien erantzunik ezin da familia edo herri giro euskaldunean topatu, horiek ez baitzuten zuzenean euskal identitatearen sorreran lagundu. Kontuan hartu beharrekoa da, Jesus Bueno jaio zen urtean apenas gelditzen zirela euskaldunik Izaban, eta zeudenek, ez zuten publikoki inoiz ez uskaraz egiten. Erronkariko bailara jatorriz euskaldun peto petoa izanik ere, euskarak erabateko atzerapena jaso zuen XIX. mendearen bukaeratik aurrera, eta ehun urte eskasetan, erradikatu egin zen guztiz. 1863.urteko datuen arabera, populazioaren %90 zen euskalduna (876 hiztun egonik) baina 1935.erako jada, zifra hori %18ra jaitsia zen, Izabak 155 hiztun zituela soilik.<sup>103</sup>

Bueno Asin familian ere ez zegoen euskaldunik une horretan eta horrek, euskararekiko ezjakintasuna areagotu egin zuen. Jakina, arbaso euskaldunak zituztela bai Izaba zein Bidankozeko familietan, baina ez ziren ez uskarak izandako presentziaz ezta bere desagerpenaz ere mintzatzen senitartean. Haatik, Fernando eta Marisa Buenok baieztatu bezala, (2015-01-02), ez zen euskarari, Euskal Herriari edo herri kontzientziari buruz hitz egiten herrian, ez etxean, ez kalean, eta are gutxiago eskolan.<sup>104</sup> Guztiz ezjakin hazi ziren garai horietako erronkariar haurrak,

---

<sup>103</sup> Erize Etxegarai, Xabier. *"Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa, 1863-1936, soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza"*, Gobierno de Navarra, Dpto. de Educación y Cultura, Pamplona-Iruña, 1997.

<sup>104</sup> Frankoren garaiko hezkuntzak legez debekatu zituen gaztelera ez ezik, Estatuan mintzatzen ziren gainerako hizkuntza guztiak, euskara barne jakina. Nazional katolizismoaren printzipioei jarraikiz, 1938.urteko Bigarren Hezkuntzako legediak, gaztelera irakaskuntza derrigortu zuen gaztelera modu honetan kontsideratuz; *"sistema nervioso de nuestro Imperio espiritual y herencia real y tangible de nuestro Imperio político-histórico"*. Era berean, XX.mendeko lehen hamarkadetan eskola elebidunen alde egindako ahalegin guztiak ezerezean gelditu ziren; *"se han derogado los órganos educativos de la Generalitat y del País Vasco; se ha excluido el bilingüismo de la enseñanza en favor del idioma castellano, único considerado como oficial"*. Lopez Goñi, Irene: *Ikastola: un movimiento popular y pedagógico. Historia de las Ikastolas en Navarra*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruña, 2007, 130.orria). Gauzak honela, *"euskara, galbidean (...) zegoen. Heriotz motel eta planifikatu batera zigortuta,*

bailarako sustrai euskaldunei muzinik egin gabe. Beraz, noiz eta nola piztu zitzaion Jesusi euskal zaletasun hori? Zerk hurbildu zuen horretara? Galdera honen erantzuna ez da erraza, ziurrenik baldintza eta faktore ezberdin askoren batuketa izan baitzen euskal kontzientziaren pizgarri. Fernando Buenorentzat *Zain dezagun Belagoa* mugimenduan izandako parte hartzea erabakigarria izan zen gai honetan, Buenok orduantxe ezagutu edo eta estutu baitzituen harremanak bete betean “euskal munduan” sartuta zeuden pertsonekin; Estornes anaiak, Jorge Cortés Izal, Jimeno Jurio, Juan Mari Feliú... Alabaina, euskal zaletasun hori ez zen egun batetik bestera garatu eta seminario urteetan, euskal kulturaren eta identitatearen kontzientzia hartzen hasi zela argi dago. Bere emazte izan zenak, Maria Luisa Barazek baieztatzen du, ezagutu orduko Buenok bere burua jada euskaldun sentitzen zuela. Bikote harremana 1969.urtean hasi zuten, hots, seminariotik atera eta urte bete eskasera. Horrez gain, aurrerago ikertuko dugun legez, Lovainan izandako esperientziak ere eragin bizia izan zuen bere euskal nortasunaren errotzean. Dena dela, puntu honetan euskal kulturarenganako lehenengo hurbiltzea ikertuko da eta horretarako, seminarioko urteei erreparatuko zaie. Izan ere, jada aipatu den moduan, hor izan ziren jarriak ziurrenik euskal zaletasunaren lehenengo haziak.

1960.hamarkadan Iruñeko seminarioan giro euskaldunik sortu egin zenik ezin da esan, baina lekukoek horrela baieztatuta, bai egon zen euskal kulturarenganako hurbiltze bat. Eta honetan, zer esan handia izan zuten faktore ezberdin batzuk. Lehenik eta behin, argi gelditu behar da garai horietan euskal diozesi bezala funtzionatzen zutela hego Euskal Herriko lau diozesiek, hots, gipuzkoarra, bizkaitarra, arabarra eta nafarra, eta harremana lauren artean oso estua zela. Ekizak baieztatu bezala, kolaborazioa erabatekoa zen esparru eta arlo guztietan.<sup>105</sup> Iruñea eta Gasteizeko seminarioen arteko lotura erabatekoa zen Irigoyenen hitzetan (2015-02-09) eta harreman horiek, naturalki hurbiltzen zintuen nafar apezgai erdaldunak jende nahiz kultura euskaldunarengana. Poliki-poliki joan ziren seminarioko gazteak ezagutzen zer zen euskal hizkuntza eta kultura. Ez ohi zituzten eztabaida askorik izaten honen inguruan, jendea ez zen lerrokatzen ez alde ez kontra, baina kultura horren existentziaz kontzientzia hartzen hasi ziren orduko gazteak, batzuk beste batzuk baino gehiago jakina. Gainera, gazte erdaldun askok

---

*museoko pieza izatera kondenatua*” (Iza, I, *Ikastola mugimendua dabilen herria, ikastola eredia 1960-2010*, Euskal Herriko Ikastolak-Euskaltzaindia, Jagon Saila, Bilbo, 2010, 32.orria).

<sup>105</sup> Jesus Ekiza (2015-05-05); “*Sí, sí, había una sintonía grande, (...), como te diría yo, ya se trabajaba juntos a nivel de militantes cristianos, de AC por ejemplo, ya se trabajó, a nivel de clero, las cuatro diócesis, ya se trabajó juntos (...)*”

euskararekiko lehenengo kontaktua seminarioan izan zuen, ezen euskal hizkuntzaren inguruko klase edo eskolak jasotzen hasi ziren. Irigoyenek konfirmatu bezala, irakaslea Blas Fagoaga izeneko apez erratzuarra zen eta honek batez ere, hizkuntzaren inguruko teoria, gramatika eta terminologia irakasten zien.<sup>106</sup> Ez zien euskaraz hitz egiten eta helburua ez zen euskal hiztunak eratztea, euskararen sustraiak eta hizkuntzaren oinarri nagusienak transmititzea baizik (Irigoyen, 2015-02-09).<sup>107</sup> Halaber, seminarioko gazteek aukera izan zuten entzule gisa Aita Barandiaranek, Opus Deiko Nafarroako Unibertsitatean ematen zituen klaseetara joateko. Irigoyenek ez du gogoratzen joaten ziren taldekideen artean Jesus ote zegoen eta beraz, ez dago hori baieztatzerik. Baina giro honek erakusten digu, seminarioan behinik behin, ez zegoela euskararen kontrako jarrerarik, normaltzat hartzen zela, kakotxen artean, euskararen existentzia eta ezaguera. Ez zen euskaraz hitz egiten eta ez zen berez euskaraz ikasten, baina euskara ez zen modu harrotzean tratatzen. Jarrera honek, emeki eta modu inkontziente batean bada ere, identitate euskaldunaren deskubrimendua bultzatu zuen seminarioko zenbait gazteen artean.

Argi dago Iruñeko Seminarioko giro orokorra euskal identitatearen eta euskaltzaleatasunaren urratzean lagungarria izan zela oso bertan zeuden apezgai askorentzat. Seminarioan orduan egondako irakasle gehienek (Lezaun, Ekiza eta Fagoaga esaterako), goiz edo beranduago agerian utziko dute bere identitate euskaldun eta nazionalista. Seminarioarekin lotura estua

---

<sup>106</sup> Blas Fagoaga sazerdotea 1897.urtean sortu zen Erratzun. Iruñeko seminarioan filosofia eta euskara irakasle izandakoa eta Euskaltzaindiko kide izan zena, euskal idazki askotxoren autorea izan zen haatik. "Euskara" aldizkariaren kolaboratzaile izan zen eta bertan, euskararekin erlazionaturiko zenbait artikulua interesgarri argitaratu zituen. Horien artean azpimarratzekoak dira esaterako, *Azkuereñen iztegi berritu eta osoturako* 1959.urtean argitaraturikoa edo 1961.urteko *Algunas frases inéditas del euskera antiguo*. Nabarmentzekoa da halaber, 1932.urtean, *Euskararen Adiskideak* (1925.urtean Iruñean Damaso de Intza apezaren elizgizonaren eskurik sorturiko elkarte euskaltzalea) antolaturiko poesia lehiaketan lehenengo saria irabazi zuela. Era berean, euskararen eboluzioari buruzko ikerketa lan bat burutu zuen, *Datos para la geografía histórica del euskera en Navarra* artikuluan jasotakoa. Artikulua Auñamendi editorialak argitaratu zuen 1962.urtean. Euskara irakasle lanetan jardun zuen ere, 1920.hamarkadaren bukaeran hasi zelarik Iruñeko seminarioan euskarako klaseak ematen, Miguel Intxaurrendoren lekukoa hartuz. Gerra zibilaren lehertze datara arte aritu zen euskara irakasle gisa eta Ekizaren esanetan, berriz ere bultzatu zituen euskara klaseak gerraondoko garaietan. 1966.urtean zendu zen Iruñean 69 urte zituela.

<sup>107</sup> Zergatik ez zieten euskaraz egiten irakasten? Zergatik gelditzen ziren arlo linguistiko soilean? Honen harira, interesgarria da zentzu honetan Pedro Larrea Muxikak idazten duena; "*Urte horietan, euskara ikasteko motibazioa euskaraz bestekoa zen, erabat intrinsekoa, politikoa hain zuzen ere. Baina, garai horretan oso jende gutxi ikasten zuen euskaraz eta, orduan, gramatika-itzulpenezko metodoak baino ez ziren erabiltzen*" (Larrea P. "Helduen euskararen irakaskuntza: egoera eta bilakaera (1956-1986), *Gerónimo de Uztariz*, 19.zenbakia, 12.orria).

mantentzen zuten zenbait pertsonalitate ere, izaera euskaltzalekoak ziren eta nola edo hala, nazionalismotik oso gertuko pertsonak, nahiz eta frankismoaren garaietan hau modu irekian ezin zen onartu. Jada aipatu dugu Iruñeko Seminarioak hitzaldi askotxo antolatzen zituela haien ikasleentzako eta gonbidatuen artean, euskal kulturaren defentsarekin erlazio zuzena zuten pertsonak zeuden. Hauetariko asko haatik, iragan nazionalista zuten pertsonak ziren, edo karlismoaren magaletan heziak baina euskaltzaletasunaren defendatzaileak. Horien arten, Urmeneta, Montoro Sagasti, Satrustegi, Barandiaran bera, etab. aurki daitezke.

Euskara eta euskal kulturarekiko jarrera hurbil hau haatik, Kontzilio II.ak ekarritako irekiera giro horretan eta euskal elizaren tradizio euskaldunean aurki daiteke. Kontzilio II.aren garaian euskal elizaren gehiengoak harturiko norabidea ulertzeko, ezinbestekoa da ezagutzea zer nolako ibilbidea izan zuen honek XIX. mendean geroztik eta batez ere, gerra zibilaren garaian, (nahiz eta ez den arlo honetan gehiegi sakonduko, ez baita lan honen helburua prozesu konplexu hori ikertzea).

Anabel Barrosoren iritziz, XIX. mendearen bukaeran, euskal nazionalismoa eta erlijioetasunaren arteko sinbiosia gauzatu zen kleroaren parte handi batean.<sup>108</sup> Bertako apez gehienak karlismoarekin bat egin zuen bitartean, Elizaren hierarkiak nagusiki Isabel II. eta Alfontso XII.aren alde egin zuen. XX. mendearen hasieran, euskal nazionalismoaren sorrera eta indartzearekin batera, joera karlistako apez askok, nazionalismoa besarkatu zuen eta honek zenbaitetan, krisiak piztu zituen eliza hierarkia ofizialaren eta euskal kleroaren artean. Tentsio hauek gora beherak izan zituzten arren XX. mendean zehar, lehertu egin ziren Gerra Zibilaren garaian, ezen Euskal Herriko apez asko, (eremu euskaldunetakoak bereziki), gerraren kontra eta bando nazionalaren barrabaskerien kontra lerrokatu zen. Hauetako anitz errepresio frankistaren biktima izan zen, kartzelatuak, isunduak, fusilatuak... izan zirelarik. Honek klandestinitatera kondenatu zituen besteak beste, baina ez ziren injustizien aurrean erabat pasibo gelditu. Apez batzuk gerraostean, euren aurrekariak gerra zibilean izandako jarreraren oroitzapena bizirik mantentzeko konpromisoa hartu zuten eta baita hau ezagutzera ematekoa ere (horrela jasotzen zen *Egi Billa*, *Sine nomine* izenburuko dokumentu klandestino batzuetan).

---

<sup>108</sup> Barroso Arahetes, A. "Luces y sombras de la Iglesia Vasca durante el franquismo y la transición", en *De la curzada al desenganche: la Iglesia española entre el Franquismo y la Transición*, Manuel Ortiz Heras (coor), Silex, Madrid, 2011 (208-209.orriak).

1944.urteko azaroaren 25ean, euskal apez batzuk Vatikanuari gutun bat bidali zioten erregimen frankistaren gehiegikeriak salatzeke eta giza eskubideen defentsa irmoa eskatzeko. Gutunak ez zuen apenas transzendentziarik izan Vatikanon, baina Eliza eta espainiar Erregimenaren arteko erlazio estua eta norabide bakarrekoa lausotu egin zuen eta sistema frankista alertan jarri zuen. Euskal elizaren jarrerak euskalduna bezalako gizarte katoliko batean, min handia eragin zitzakeen, ezen frankismoaren kontrako propaganda bizia bihurtzen zen eta mezu hau euskal gizartearengana erraz iritsi zitekeen. Are gehiago kontuan izanik, zein zen oro har euskal diozesiaren izaera, alegia, jendearengandik oso hurbil zegoena eta pastoralala egiteko helburu nagusi zuena. Erregimenak motibo sendorik gabe, euskal diozesien jarrera eta gutuna bidaltzearen ekintza, separatismoarekin eta euskal nazionalismoarekin lotu zituen, nahiz eta bertako lekukoek esan, hasierako denuntzia ekintza horietan ez zegoela izaera politikorik inolaz ere eta oro har, politikoki aseptikoak zirela seminarioko gazteak.<sup>109</sup>

Gerraosteko testuinguru arrotz honetan beraz, erregimenak gogortu egin zituen euskal elizaren kontrolerako neurriak eta 1949.urtean, Gasteizeko diozesi handia banatu egin zuen, kolektiboaren indarrak zatitzeko helburuz. Modu honetara, Donostiako, Bilboko eta Gasteizeko diozesiak sortu ziren eta obispo berriak ezarri zituzten hauetako bakoitzean, euskaldunak eta euskal zaleak ez zirenak jakina. Erregimenaren neurri hauek, giroa baretu beharrean, are gehiago astindu zutela esan genezake. Izan ere, euskal elizkoi asko, errepresioaren aurrean Elizaren hierarkiak zuen mututasuna salatzen eta honen kontra protestatzen hasi zen. Gauzak honela, 1950.urtean *Egiz* aldizkari klandestinoja jaio zen pastoralaren arazoan eta egoera sozio politikoaren berri emateko helburuz. Bere zenbakietan, osotara 18, erregimenaren politika kritikatu, euskaldunon herriaren eskubideak aldarrikatu eta Elizaren autonomia zein askatasunaren auziak planteatu ziren. 1950.hamarkadan zehar halaber, zeinean aldaketa eta eraldaketa sozioekonomikoak sumatzen hasiak ziren, Bizkaia zein Gipuzkoan bereziki, sazerdote asko langile klaseak bizitzen zituzten zailtasunak gaintzen laguntzen saiatu zen. Hala nola, auzo berriak eratzen hasiak ziren eta hauek ez zeuden beti kondizio duin eta onetan. Horrez gain, lan erregulaziorik gabeko estatu batean sortzen ziren gehiegikeriak salatu zituzten eta lan baldintza duinen alde ekin zuten. Zenbait grebetan babesa eman zieten langileei (Euskaldunaren greban esaterako 1953an) eta giza eskubideen aldeko homiliak egin zituzten.<sup>110</sup> Arazo sozialak bihurtu ziren eguneroko ekintza pastoralaren ardatz Euskal Herrian eta honek, euskal kleroa

---

<sup>109</sup> *Ibidem* 210.orria.

<sup>110</sup> Bizkaiko sazerdote asko santzionatua izan zen 1950.hamarkadan grebetan izandako parte hartzearengatik.



langile klasera hurbilarazi zuen. Gizarte sektore laiko eta elizkoien bat egite horren beste adibide bat *Egi Billa* aldizkari klandestinoak izan zen, 1954.urtean publikatzen hasi zena eta *Egiz* aldizkariaren jarraipena kontsideratu ahal dena. Honetan modu guztiz, ez ziren soilik elizgizonak idazleak, euskal katoliko orori begiratzen zion aldizkaria baitzen.

1950.hamarkadan zehar geroz eta elizgizon gehiago batu zen euskal kleroak hartutako bideari, hots, erregimenaren injustizien salaketari eta Euskal Herriaren berezko eskubideen defentsari. Elizgizonen belaunaldi berriak, euskal kulturaren berpiztea eta euskal hizkuntzaren salbazioaren aldeko apustu argia egin zuen eta kasu batzuetan, haratago joan nahi izan zuten. Askok pentsatzen baitzuten, herri euskaldunaren liberalizazioaren aldeko apusturik egin gabe, tamalez lortuko zela euskal identitate, kultura, hizkuntza, etab.en biziraupena. Honek are gehiago piztu zuen Elizaren eta euskal nazionalismoaren arteko harremana. Giro honetan sortu zuten 339 euskal apezek euskal herritarren eskubideen aldeko manifestua. Idazkia, 1960.urteko Maiatzaren 30ean egin zen publiko eta honetan, erregimenak Euskal Herrian burutzen zituzten jazarpen etniko, linguistiko eta sozialak kondenatzen ziren. Lau diozesi euskaldunen artzapezpikuei bidalitako gutun honetan salatu egiten zen, euskaldun izateak automatikoki zekarren errepresioa. Gutunak halaber, erregimena eta hierarkia Espainia osoan eta bereziki Euskal Herrian Gerra Zibilaz geroztik bizitzen ari zen askatasun faltaren erantzule egiten zituen. 1960.urteko dokumentu honek, are gehiago distantziatu zituen euskal kleroaren gehiengoak eta hierarkia frankista eta jada zabalik zegoen zauria handiagotu zuen. Era berean, apez gazte askoren eredu izan zen bai ekintza hau, baita beste batzuk ere.1960.urteko gutunak, etapa berri bati hasiera eman ziola uste dute hainbat adituk.<sup>111</sup> Izan ere, sinatu ez arren, elizgizon askok bat egin zuen manifestuarekin eta injustiziak salatzeke konpromisoa hartu zuen, zentsurari muzin eginez eta pulpituak erabiliz denuntziarako eszenatoki gisa.

Argi dago beraz, 1950.hamarkadetan zehar, euskal elizaren barruan erregimen frankistaren kontrako korrante bat garatuz joan zela eta honetan inplikaturik egon ziren apez eta sazerdoteak, giza eskubideen aldeko defentsa egin zutela haien inguruko artean. Iruñeko seminariotik pasaturiko Lezaun, Ekiza, Fagoaga, Larrantzar, etab., horren proba izan daitezke. Apez hauek, euskal kleroaren taldearekin identifikaturik, era kontziente edo inkontzientean, haien ikasleei balore demokratikoen defentsa transmititu zieten eta euskal kulturarengana hurbildu zituzten. Interesgarria suertatuko litzateke ikertzea zein elizgizonek sinatu zuten 1960.urtean lau euskal

---

<sup>111</sup> *Ibidem* 215.orria.

diozesien artzapezpikuei idatzitako salaketa gutuna. Alegia, 339 horien artean Iruñeko seminarioan egondako edo bertakoengan eragina izan zuen pertsonarik egon ote zen. Honen ildora, galdera eta zalantza anitz datozkigu burura; nolako inplikazioa izan zuten Iruñeko seminarioaren barruko irakasle eta apezek euskal kleroak harturiko borroka eta ekintzetan? Eta nolako eragina izan zuen honek guztiak Jesus Buenoren kintako pertsonengan? Galdera hauei erantzutea zaila suertatu arren, agerikoa da, Iruñeko seminarioan egondako apez irakasle askok, nahiz eta artzapezpikuei eginiko gutuna sinatu ez izan, bat egiten zutela bertan idatzitakoarekin. Horrela baieztatzen dute Ekizaren elkarrizketako hitzek; *“compatíamos muchísimos, muchísimos más”* (2015-05-05).

Argi dagoena da, Euskal Herriko kleroaren eta diozesien artean 1960.hamarkadaren hasierarako jada korrante kritiko, euskaltzale eta demokratikoa jorratuta zegoela eta honek are indar gehiago hartu zuela aurrerantzean, euskal apezgoaren artean berau nagusituz. Giro horretan barreiatu zen haatik Iruñeko seminarioa, bertako irakasle ziren apezak eta nola ez, apezgai ikasleak. Tarte kronologiko hau bat dator halaber Euskaltzaindiko erakundearen indartze prozesuarekin. Gerra zibilaren osteko “lokartzearen” ondotik, Resurrección Maria de Azkuek, Federico Krutwigen lankidetzarekin, Euskaltzaindia berriz ere abian jartzeko lanari ekin zioten. 1954.urtean aurrera euskaltzain belaunaldi berria iritsi zen erakundera, horien artean, Antonio Arrue, Koldo Mitxelena, Txilardegi, Jose Maria Lujendio (euskaltzain burua 1964-66), Lekuona... Haatik, 1956.urtean, Arantzazun, gerraosteko lehenengo batzarra antolatu zuen Euskaltzaindiak. Euskaltzainen artean, Iruñeko seminarioarekin zuzeneko edo zeharkako erlazioa zuten kideak zeuden, esaterako, Blas Fagoaga irakaslea, José Miguel Barandiarán eta Jose Maria Satrustegi antropologoak.<sup>112</sup> Lehenengoak, jada aipatu bezala, euskara klaseak ematen zien Jesus Buenoren kintakoei eta bigarrenak, nola edo halako erlazioa zuen seminarioarekin eta bertan zeuden apez eta apezgaiekin. Barandiaran, Jesus Ekizak horrela baieztatu bezala, seminarioak antolaturiko ikastaroetara behin baino gehiagotan izan zen gonbidatu, izan ere, harreman estua zuen presbiterioaren kontseiluarekin.<sup>113</sup> Orobat, Barandiaranek Nafarroako Unibertsitatean

---

<sup>112</sup> Jose Maria Satrustegi, Arruazun jaiotako elizgizon, antropologo eta etnografoa, Iruñeko seminarioan egin zituen ikasketak eta Ekizaren belaunaldikoa izan zen (biak 1930.urtean jaiotak). Elkarrekin ikasi zuten seminarioan eta haien arteko lotura estua izan zen oso eta elkar kolaboratu egin zuten anitzetan.

<sup>113</sup> Ekizak kontatu bezala (2015-05-05) Iruñeko seminarioko irakasleek maizetan jo zuten Barandiaranengana kontsultak egitera; *“Mucho, mucho, le llamamos varias veces, al consejo del presbiterio aquí, (...) para que nos informase precisamente de esto, (...) nos habló varias veces de la cultura vasca, de claro, su fuerte era la antropología (...). Yo he estado en su casa dos veces fijate, para invitarlo a que viniera, que vivía en Ataun. (...).*

ematen zituen klaseak (1964.urtean etnologia katedra eskaini zioten) eta arestian aipatu den moduan, bertara joaten ohi ziren seminarioko ikasleak entzule gisa.<sup>114</sup> Nola edo hala, argi dagoena da, Jesus Bueno eta bere belaunaldiko gazte apezgaiak, euskal kultura zein euskararen aldeko apustua egiten zuten garrantzizko pertsona eta emerituekin kontaktuan egon zirela eta honek nola edo hala, haien euskal identitatearen kontzientzian urratsa utzi zuela.

Euskaltzaindiaren gaiari berriz ere helduz, aipatzeko da, instituzioak erronka garrantzitsua hartu zuela garai honetan, alegia, euskara normalizatzeko eta bizirik mantentzeko konpromisoa. Honetarako, hainbat eta hainbat ekimen bultzatu zituzten, horien artean bi izan zirelarik nabarmentzekoak ezberrik gabe: euskara estandar bat sortzea zein zabaltzea eta euskara eskoletan txertatzea. Testuinguru honetan bertan hasi ziren gerraz geroztik garaturiko lehenengo ikastolen mugimendua eta euskararen alfabetatze prozesua sustatzeko ekimenak Euskal Herriko bazter eta txoko guztietan. Izan ere, Iban Izak bere ikastolen historiari buruzko ikerketa lanean jasotzen duen moduan, *“Francok ez zuen lortu erabat itzaltzea euskal irakaskuntzaren aldeko sua. Txikitu edo arindu bai; ez ordea, guztiz amatatu, frankismoan zehar sugar ezberdinak piztu baitziren Euskal Herrian, euskara eta euskal hezkuntza bultzatzeko askoz”*.<sup>115</sup> Nafarroan esaterako, aipagarriak dira besteak beste bi ekimen hauek; Vianako Institutuaren barnean sorturiko euskara sustatzeko sekzioa (Nafarroako Diputazioak onartu eta babestutakoa, 1957.urtean sortua) eta lehenengo ikastolen sorrera Iruñean, (Irantzuko Andra Mari izenekoa, 1963.urtean fundatua baina bertan behera gelditurikoa eta Uxueko Andra Mari izenekoa, 1965.urtean sortua). Lehenengo auziari dagokionean aipatzekoa da, Nafarroako Diputazioak, nola edo halako ekimenak sustatu zituela euskara arloan. 1949.urtean, Jose Angel Zubiaur<sup>116</sup>

---

*Su esto, su método, el método antropológico de estudio de los pueblos, bueno, lo distribuimos, lo analizamos (...). Y con su esquema, hemos hechos muchos estudios, de los pueblos...”*

<sup>114</sup> Jesus Ekizari Unibertsitate Pribatuko klaseen inguruan galdetzerakoan, hau da erantzun zuena: *“A sí, sí, si el que quisiera... Pero lo trajo la Universidad de Navarra, o sea, cada uno lo suyo, pero nosotros al que quisiera, sí, sí, sí, lo animábamos a ir”* (2015-05-05)

<sup>115</sup> Iza I, *Ikastola mugimendua dabilen herria, ikastola eredu 1960-2010*, Euskal Herriko Ikastolak-Euskaltzaindia, Jagon Saila, Bilbo, 2010, 22.orria).

<sup>116</sup> Jose Angel Zubiaur: 1918.urtean Bilbon jaiotako abokatua eta nafar pertsonalitate nagusienetako bat frankismoaren garaian. Karlisten kide izanik zenbait kargu izan zituen Iruñeko udaletxean lehenik eta Nafarroako Diputazioan ondoren. 1949.urtean, Zubiaur diputatu izendatu berri izan zela, euskara susatzeko planteamendua egin zuen. Bere ekimenez beraz, euskararen aldeko lehenengo ekintza instituzionala garatu zen Diputazioaren aldetik, euskara klaseak ematean zetzana. Zubiaur eta bere emaztea izan ziren euskarazko klase hauetara apuntatu ziren lehenetako batzuk (Lopez I. *Ikastola un movimiento popular y pedagógico*, 133.orria).

Nafarroako diputatuaren proposamenez, euskarako klaseak ematen hasi ziren Iruñean, hau kontsideratuz Irene Lópezen arabera, euskararen aldeko lehen keinu instituzionala Diputazioaren eskutik.<sup>117</sup> Jimeno Juriok bere liburuan agertzen duen legez, Luis Bermejo gobernadore zibila honen kontra azaldu zen eta akordioaren baliogabetzea eskatu zuen, baina diputatu foralak tinko mantendu ziren eta Iruñeko Komptos Ganbaran hasi ziren euskara klaseak ematen. Jurioren hitzetan, arrakasta itzela izan zen eta aurreikuspen guztiak gainditu egin ziren.<sup>118</sup> Urte batzuk geroago, euskaltzale talde batek, euskara babestu eta sustatzeko ekimen berriak abiatzeko mugitzen hasi ziren. Talde honen barruan, orduko arlo sozio-politiko, ekonomiko eta kulturean inportantzia handiko pertsonak aurkitzen ziren, zeinen artean Miguel Javier Urmeneta politikaria (Iruñeko alkate izan zena 1958-64 artean eta Nafarroako gorteen diputatu 1964-71 bitartean), Pedro Díez de Ulzurrun medikua, José Agerre idazle zein politikaria eta Jose María Satrustegi elizkoi antropologoa nabarmenduko genituzke. Jurioren esanetan, talde honek eskuraturiko lorpenak agian txikiak izan ziren, baina orduko egoera sozio politikoa aintzat harturik, gogoangarriak oso.<sup>119</sup> Lorpenen artean aipagarriena dudarik gabe, 1957. urtean sorturiko euskara sustatzeko sekzioa izan zen, (*Sección para el fomento del vascuence*), Nafarroako Viana Printzerria instituzioaren barruan kokatu zena eta Nafarroako Diputazioaren babespean jaio zena, (orduko Diputazio burua Carlos Gortari Errea izanik). Sekzioak, zeinaren zuzendaritza Díez de Ulzurrun medikuari egotzi zitzaion, euskararen bultzada eta salbazioa zituen helburu eta xede hau, argi jasotzen da Nafarroako Buletineko aktetan; “*Nafarroko Diputazioa naigabe samiñarekin ikusten ari da itzkuntze guzietan ederren eta arrigarrien dan Euskera, jakintsu aundiak diotenez, Nafarroko euskal erriak beren euskal itzkuntza beren etxetatik kanpora botatzen ari dirala. Galtze negargarri au gertatu ez dedin, dei egiten die euskeraz itz egiten dakitenei, jarraitzeko euskeraz itzegiten, beren umetxoei erakusten eta egiñalak egin ditzaten euskera zabaltzen. Euskeraren ikasbide, bizkortze eta iraupenerako lan egingo duen sail berri bat (una Sección nueva) Institución Príncipe de Viana’n badu Diputazioak. Sail ontan lan egiten dutenak pozik lagun egingo die euskaldun guziei euskeraren sendotzen eta iraupenerako lanetan (...)*”.<sup>120</sup>

---

<sup>117</sup> Lopez Goñi, Irene: *Ikastola: un movimiento popular y pedagógico. Historia de las Ikastolas en Navarra*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea, 2007, 134. orria.

<sup>118</sup> Jimeno Juri, J.M., *Navarra, historia del euskara*, Txalaparta, Tafalla, 1998, 230. orria.

<sup>119</sup> Ibidem, 231. orria.

<sup>120</sup> Lopez Goñi, Irene, *Ikastola; un movimiento popular*, 137. orria.

Nafarroako Viana Printzerri barneko euskara batzorde honek ekimen ugari burutu zituen euskal hizkuntzaren bultzada, babes eta salbaziorako, baina horiek guztiak zerrendatzen hastea ez da lan honen ikergaia eta xedea. Gauza bat argi dago ordea, nola edo hala, 1960.hamarkadako testuinguru honetan, nafar elite politiko, elizkoi, intelektual eta kulturalaren parte batek, euskararen aldeko jarrera eta apustua egin zuela eta hauetariko asko, gertu egon ziren Iruñeko seminarioko pertsona, ekimen edo eta girotik, hala nola, jada aipaturiko Satrustegi, Urmeneta, Montoro Sagasti... Hauetariko asko halaber, beste hainbatekin batera, 1960.urtean *Iruñeko Euskalerrriaren Adiskideak* elkarte osatu eta berpiztu zutenak izan ziren. Elkarte honen ekimenez ireki zen gerraosteko lehenengo ikastola Iruñean 1965.urtean, Pozoblanco alde zaharreko kalean kokatu zena hasiera batean. Ikastola oso ikasle gutxirekin abian jarri zen arren, denbora gutxian matrikulazioak ikaragarri egin zuen gora, 1968-69.urterako jada, 205 ikasle zegoelarik bertan matrikulatua.<sup>121</sup>

Azken paragrafoetan aipaturiko guztiak, hots, euskal klero eta diozesien harremana eta batasuna frankismoaren aurkako jarreraren, Euskaltzaindiaren suspertzea, Vianako Printzerriaren barruko euskara sekzioaren sorrera, Iruñeko "Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte", lehenengo ikastolen fundazioak, etab. lagundu egin zuten euskal kontzientziaren nolabaiteko berpiztean. Esan daiteke, 1960.hamarkadan zehar, euskararen, Euskal Herriaren eta euskal kulturaren kontzientzia esnatuz joan zirela Iruñerrian eta poliki-poliki, modu kontziente edo inkontzientean bada ere, euskaltzaletasuna eta abertzaletasunak garrantzizko toki bat aurkitu zuela Nafarroako panorama sozio-politiko eta kulturalean. Giro honek zalantzarik gabe, Jesus Bueno eta bere inguruko hainbat "harrapatu" egin zituen eta horrela euskal identitatearen sendotzean lehenengo haziak landatu ziren. Bai Jesus Ekizarentzat bai eta Irigoyenentzat ere, seminarioan eta orduko giro sozio kulturalean bizitutakoa, euskal identitatearen pizgarrian erabakigarriak izan zen, baina giro honek utzitako urratsaz, aurrerago hartu dute kontzientzia. Izan ere, Irigoyenek baieztatu bezala, euskal kultura eta identitatea, gutxinaka-gutxinaka deskubrituz joan ziren zerbait izan zen. Seminarioan ez zen ez alde eta ez kontra mintzatzen Euskal Herriari buruz, baina emeki-emeki, norbere identitatearen sustraiak ezagutzen eta bereganatzen joan ziren.

Aipatzekoa da ere, testuinguru honetan ezagutu zituela Buenok bere euskal identitatearen errotzean eragina izan zuten bestelako pertsona batzuk, hala nola, Estornes anaiak eta Marcelino Garde. Bernardo, José eta Mariano Estornes Lasa izabarrek, hego Ameriketara alde

---

<sup>121</sup> Pagola, Rosa Miren, *Mikela Gastesi, bidegileak (49)*, Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 2007. (17.orria).

egin zuten Gerra Zibila amaitzean. Euskal kulturaren erreferente kontsideratzen diren anaiak, 1950.hamarkadaren bukaeran itzuli ziren Euskal Herrira 20 urteko erbeste luzearen ondotik eta bizilekua Donostian kokatu arren, denboraldiak pasatu zituzten Iزابako haien jatorrizko etxean. 1960.hamarkadaren hasieran Auñamendi editoriala abian jarri zuten eta Erronkariko uskararen inguruko hainbat ikerketa eta liburu argitaratu zituzten. Testuinguru honetan, Uztarroze eta Iزابako edadeko euskaldunak elkarrizketatu eta ezagutu zituzten eta honetarako, orduan Uztarroze eta Gardeko apeza zen Marcelino Garderen lankidetzarekin kontatu zuten.<sup>122</sup> Buenok gertutik ezagutu zuen Marcelino, ezen, Jesus seminarioko ikasle zela, Iزابara igotzen zenean, Erronkariko bailara guztiko apezekin biltzeko eta egoteko ohitura izaten zuen, Marcelinorekin barne. Ezin daiteke jakin ordea zertaz mintzatuko ziren eta ezinezkoa da beraz neurtzea, Marcelinok Buenorengan izandako eragina. Baina Marcelino Garde zalantzarik gabe, Euskal Herria, bere hizkuntza eta kultura demokratikoaren defendatzaile sutsua izan zen eta Jesus Buenorengan nola edo halako urratsa utziko zuela esatera ausartu gaitzek.

Euskal Herriko kultura eta identitate sentimendura hurbildu zuen beste faktore bat garai honetan mendizaletasuna izan zela esan daiteke. Buenok beti maitatu zuen mendia eta goizale afizionatua izan zen. Iruñeko seminariotik Iزابara igotzen zen aldioro, Belagoara eta nafar Pirinioetako tontorretara igotzea atsegin zuen. Asko dira mendizaletasuna eta abertzaletasuna uztarturik ikusten dituzten pertsonak. Irigoyenen hitzetan, *“el monte siempre ha sido un ambiente muy pro-euskaldun”*. Koldo Irigoyen apezari mendia ikaragarri gustatu izan zaio beti eta berak dio, jada seminarioko ikasle zela, mendi taldeetan haize euskalduna arnastu egiten zela nolabait, mendia eta abertzaletasuna in situ batuta egongo bailitzan (2015-02-09). Fermin Etxegoien idazle kazetariak Euskal Herria irratan egindako adierazpenetan haatik, (bere eleberria “Zinegotzia”

---

<sup>122</sup> Marcelino Garde Villafranca, 1925.urtean Zarrakaztelun, familia jeltzale batean jaiotako apeza izan zen. Iruñeko seminarioan ikasketak egin ondotik, Castillo Nuevo, Uztarroze eta Gardeko apeza izan zen 1950 eta 1960.hamarkadetan zehar. Euskararen eta euskal kulturaren maitale izanik, euskara ikasi eta Erronkariko euskalkia ikertu zuen, jendea elkarrizketatuz eta toponimia ikertuz, besteak beste. Jose Estornés Lasari, *“Erronkariko uskara”* liburua sortzen lagundu zion (Auñamendi editorialak 1968.urtean argitaraturikoa) eta “El Pensamiento Navarro” aldizkarian zenbait euskal idazki eta poesia argitaratu zituen. 1964.urtean Euskaltzaindiko kide egin zuten eta 1973.urtean, Vianako Printzerriko aldizkariko “euskara” gehigarriaren zuzendaria izan zen. Claveriak bere nazionalismoaren inguruko liburuan baieztatu egiten du, Marcelino Garde 1960.urtean, jada aipaturiko 339 euskal sazerdoteek sinaturiko idazkian zer esan handia izan zuela: *“(…) El prebitero navarro Marcelino Garde en su <Vespa> fue recorriendo poblaciones del viejo Reino, para reunir el mayor número de firmas que alaran el documento que ha pasado a la Historia como <Carta del Clero Vasco>”* (Claveria Carlos, *Navarra 100 años de nacionalismo vasco*, Sabino Arana kultur elkargoa, Bilbo, 1996, 1005.orria).

aurkeztera joandakoan egindakoak), antzerako erlazioa egin zuen; "*Euskalduna mendizalea da. Eta mendia gainera aterpea, topalekua izan da abertzaleentzat, frankismoaren garairik ilunenetan*".<sup>123</sup> Eta hein batean horrela dela esan genezake, izan ere, mendizale eta mendi elkarte gehienek frankismoaren garaian, Euskal Herriko eskubideen defentsa egin zuten modu zuzen edo zeharkako batean. Baina mendi taldeen izaera euskalduna nola edo hala, Francoren garaian aurrekoa da. 1924.urtean sortu zen lehenengo euskal alpinismoaren federazioa, (*federación vasco-navarra de alpinismo*), zeinak hego Euskal Herriko lau probintzietan zituen delegatuak. Gerraostean Nafarroan mendi talde ezberdinen sorrera emango da eta nola edo hala, horietariko gehienak, euskararen aldeko ekimen xumeak burutzen hasiko dira, besteak beste, euskal publikazioak eginez. Mendi federazioak haatik, lau probintzien arteko jarduerak koordinatzen zituen. Hauek, inolako helburu politikorik ez zuten arren, modu naturalean hartzen zituzten lau euskal probintzien arteko harremana eta batasun sentimendua. 1960.hamarkadan zehar, hainbat euskal mendigoizale ikurriaren aldeko ekintza xume batzuk burutzen hasi ziren, zigor eta isun ekonomiko ezberdinekin kondenatu zirenak. 1967an esaterako, zazpi mendizale euskaldun Peruko Andeetara egindako espedizioan, bandera espainiarraren ordez, ikurriña zintzilikatu zuten sei milako tontorretan. Kideen artean, Juan M.Feliú nafarra zegoen. Zazpiak atxilotuak eta zigortuak izan ziren ekintza honenengatik. 1968.urtean haatik, Iruñeko San Miguel parrokiako dorreetatik ikurriña bat zintzilik agertu zen eta hilabete batzuen ondotik, Urbasako mendizerran. Ekintza hauengatik nafar mendizale ezberdinak izan ziren atxilotuak eta kartzela zigorrera kondenatuak. Jesus Bueno ez zen ikurriñaren defentsa egiten aritu ekintza konkretuen bitartez seminarioko gaztea zela, baina nola edo hala, giro hau mamitu eta ezagutu zuen eta mendizaletasun taldeetan murgilduta egon zen, hots, giro euskaldunean. Honek zalantzarik gabe, lagundu egin zuen haatik bere identitate euskalduna definitzen.

---

<sup>123</sup> Etxegoienek Euskal Herria irratan, 2013-10-17an egindako adierazpenak (Euskal Herria irratiako web orritik harturiko informazioa).

### III. ATALA: BIZI ESPERIENTZIA BATEN AMAIERA ETA BERRI BATEN HASIERA (1967-74)

#### 3.1. NOIZ ETA ZERGATIK ATERA ZEN JESUS BUENO SEMINARIOTIK?

1966-67.eko ikasturtea berezia izan zen seminarioko gazteentzat. Izan ere, Jesus Buenoren kintakoak esperientzia pilotu baten protagonistak izan ziren. Alegia, seminarioko ikasketak oraindik egiten ari zirela, seminariotik atera eta Iruñerrian pisu konpartituetan bizitzeko aukera luzatu zien Jesus Lezaun zuzendariak lehenik, (1966-67.ikasturtean) eta Javier Osések ondoren (1967-68).<sup>124</sup> Klaseak jasotzera seminaria joateko beharra zuten, baina gero, Burlata eta Etxabakoitzeko pisuetan bere kabuz bizitzeko aukera izan zuten. Zer dela eta onartu zitzaizen horrelakorik? Askatasun maila horrek ez al zituen “arriskurik”? Erantzuna arestian aipatu dugun testuinguruan aurki daiteke. Alegia, jada mintzatu gara AC barneko mugimendu espezializatuek eta Kontzilio II.ak bultzatu zuten kristautasuna ulertzeko eta praktikatzeko modu berriaz, hots, “militantziaren” ikuspuntutik ulertutako fedez. Jesus Lezaun eta bere irakasle taldea zentzu honetan irekiak ziren eta etorkizuneko apezak, Eliza “berri” horren moldeetara hurbildu nahi izan zituzten. Garrantzitsuena jendartean, jendearekin eta hauen arazoetatik gertu egotea zen eta zentzu honetan, seminarioak errealitate zuzen horretatik aldentzen zituen. Pisuetan bizitzeak aukera ematen zien jendearekin kontaktu zuzenagoa izateko eta une horretan sortzen edo handitzen ari ziren auzo zein herri berrietako arazoetatik gertuago egoteko. Horrez gainera, apezgai gazteak, seminarioko monotoniarekin apurtzeko eta nor bere bizitza propioa egiteko desiotan zeuden. Gauzak honela, gazte multzo batek, seminarioko zuzendariari talde txikietan kanpora ateratzeko eskaera egin zion, onartu egin zitzaiena. Batzuk Burlatako pisuetara joan ziren, beste batzuk, Jesus Bueno barne, Etxabakoitzera (Urdanotzeko urbanizaziora). Irigoyenek urte zorotzat hartzen du kanpora bizitzera irten ziren lehenengo hau, bere hitzetan, gehienek ez

---

<sup>124</sup> Javier Osés Flamarique, Tafallan 1926.urtean jaiotako elizgizona izan zen. Iruñeko seminarioan ikasketak burutu zituen eta Erroman teologiako ikasketak egin ondoren, seminarioko irakasle eta errektore izatera iritsi zen. Azken kargu honetan Jesus Lezaunen ondotik sartu zen 1967.urtean eta 1969ra arte egon zen. Urte horretan, Hueskako artzapezpiku izendatu zuten. Lekukoen hitzetan, Osés izan zen seminarioko gazteen mentalitatea irekitzen eta errealitatera hurbiltzen lagundu zuten irakasleetako bat.



baitzuten kolpe zorrerik jo eta askok, kurtsoa errepikatu zuten.<sup>125</sup> Esperientzia honek halaber, askorengan zalantzak piztu zituen, hots, apez izatearen zalantzak. Irigoyen, Portillo... pisuan bizitzen egon ondotik denboraldi sabatiko bat hartu zuten eta Bartzelonara joan ziren bizitzera. Beste batzuk, ikasketak amaituta, ez zuten apez karreran jarraitu eta kanpora joan ziren ikastera (Manolo Burgete kasu). Baina Jesus Bueno, horretan salbuespena izan zen. Izan ere, apezgai ikasketak amaitu eta segituan, Diakono izendatua izan zen. Pauso hori eman izanak erakusten du, bai Irigoyenen bai eta Ekizaren hitzetan ere (2015-02-09 eta 2015-05-05), oso argi zuela apez izatearen bokazioa. Diakono ordenatzea ofizialki apez izatearen aurreko pausua zen eta hori soilik, jada bere bizia horretara bideratu nahi zuenak egiten zuen; diakono izateari uzteko Erromako Vatikanoren eta Aita Sainduaren baimena behar izaten baitzen. Irigoyenek horrela baieztatuta, bere kintako gutxi batzuk baino ez zuten pauso hori eman eta horietako bat, Jesus Bueno izan zen.<sup>126</sup> Autore askok Elizaren barruko krisi garaiaz mintzatzen dira 1960. hamarkadako lehen urteetatik aurrera, ezen aldi horretan nabarmenki jaitsi egin zen Espainia mailan ordenatzen ziren apez kopuruaren zifra. Marcellanen hitzetan, hamarkada eskas batetan orduko seminario kopurutsuenak Espainian ia desagertzera iritsiko dira, Santiago, Donostia eta Iruñekoa kasu.<sup>127</sup>

Ustekabean eta inork uste ez zuenean, bere errenuntzia aurkeztu zuen Jesus Buenok seminarioko irakasle taldearen aurrean 1967.urteko udaren amaieran. Baina, zerk eragin zuen bat bateko uzte hori? Zergatik erabaki zuen Diakono izateari utzi eta apezgai karrera baztertzea? Zaila da horrelako galderari erantzun bat ematea, izan ere, Buenok ez zuen argudiorik aurkeztu,

---

<sup>125</sup> *“Nosotros ahí fuimos pioneros en eso, (...) pero fue un desastre (...) con Javier Osés, que fue maravilloso, pero que le hicimos sufrir muchísimo hasta que lo conseguimos”.* Irigoyenek onartzen du 1966-67 ikasturtea, hots, lehendabizikoa seminariotik kanpo, ez zutela kolperik jo eta apezgai gazte askok kurtsoz errepikatu zutela, (ez da Jesus Buenoren kasua). Hurrengo ikasturtea, 1967-68, jada Osés zuzendari zela, lortu zuten Irigoyenek dioen moduan, fundamentua egin eta seminarioko ikasketak amaitzea. (Irigoyen, 2015-02-09).

<sup>126</sup> 1966.urtean Iruñeko Seminarioan Teologia ikasketak 138 gizonak amaitu zituzten; horietatik, soilik 25 ordenatu ziren apez. Zifra antzerakoa da 1967.urteko datuei erreparatuta, zeinean 18 apez izan ziren ordenatuak. (Marcellán, Cierzo y Bochorno, 110.orria).

<sup>127</sup> *“La crisis del seminario de Pamplona, pues, hay que entenderla dentro de un contexto mucho más amplio que abarcó a toda la Iglesia y dentro de ella, a las universidades pontificias y seminarios: <coincidiendo con el Concilio y con la aceleración del desarrollo económico español, comienza el descenso del número de seminaristas (...) La crisis se va sucediendo en los diversos centros de formación, y seminarios caracterizados por su número como Santiago, Pamplona o San Sebastián, prácticamente desaparecen. De 8.021 seminaristas ene l curso 1963-64, se llega a 2.500 en 1974 (...)”.* Marcellán, “Cierzo y Bochorno”, 12.orria.

ez seminarioan ezta etxean ere. Apez bidea utzi aurretik, bi esperientziek markatu zuten bere ibilbidea. Lehena, Donostiako Martutene auzoko erreformatarioan egondako denboraldia eta bigarrenik, Alemaniara egindako bidaia landa eremuko apostolutza kongresu eta topaketa batzuetara. Diakono izendatu zutela Martutenera joan zen gazte erreformatorio batera lanera eta familiak horrela baieztatuta, gazte hauen laguntzara entregatu zen bete betean. Bertan izan zuen funtzioa baztertze egoeran zeuden gazteak heztearena izan zen. Hauetako batzuk, Izabara eraman ohi zituen 1967.urteko Aste Santuko oporretan eta bere kargu egon ziren orobat zenbait asteburutan, borondatez eramaten baitzituen berarekin Erronkarira. Diakono zela biziki markatu ohi zuen beste esperientzia bat, arestian jada aipatu dugun Alemaniara egindako bidaia izan zen. 1967.urteko udan, Alemaniako Essen hiriko Klausenhof akademiara joan zen JARC taldeko kide gisa, bertan ospatu ziren nekazal eremuko gazte kristauen topaketa batzuetara. Irigoyenen esanetan, arrunta zen seminarioko apezgaiak Alemaniara bidaiatzea, izan ere, Iruñeko eta Alemaniako zenbait tokietako diozesien artean harreman estua zegoen. Harremana nagusiki Akisgraneko diozesiarekin izaten zen, baina Alemaniako beste zenbait tokietan halaber espainiar estatuko seminario ezberdinetako apezak zeuden.<sup>128</sup> Iruñeko seminarioko hainbat diakono eta elizgizon ere Alemaniara joan zen apez gisa lanera, horien artean, Carlos Armendariz (ondoren Lizarrako apez izan zena). Irigoyenen hitzetan, soilik eta bakarrik inteligenteenak joaten ziren Alemaniara, prestakuntza benetan ona zutenak eta baliteke, Jesus Buenori momentu batean, Alemaniako irteera burutik pasatu izana. Ez dakigu ordea zehatz-mehatz zein burutazio izan ohi zuen Buenok honen inguruan, ezta noizbait ere burutik pasa ote zitzaien Alemaniara apez lanetara joatea. Argi dagoena da, Klausenhofeko (Esseneko) bidaiak nola edo hala markatu egin zuela, izan ere, bertatik bueltan Diakono izateko errenuntzia aurkeztu zien seminarioko errektore eta irakasle taldeari. Erabakia bertan hartu ote zuen ere ez dago argi, izan ere, ez zuen guk dakigula, inorekin partekatu honako hau. Denak harrapatu zituen sorpresaz aurkezturiko errenuntziak, bere familia eta baita bere apez nagusiak ere. Beraiek ez zuten deus berezirik atzeman Buenorengan Alemaniako bidaia hori egin aurretik, ez zuten inolaz ere imajinatzen Buenok horretatik bueltan apez bidea utziko zuenik. Baina Jesus Ekizak horrela baieztatuta, bidaiatik bueltatu eta gutxira azaldu zen Bueno apez nagusien aurrean bere errenuntzia aurkeztera. Ekizak komentatu bezala, ez berak ez bere ingurukoek ere ez zioten inolako trabarik jarri honetan, ezen errespetu handia erakusten zuten horrelako erabakien aurrean. Jesus Bueno gainera, estima handian zuten eta bazekiten gizon serioa eta erreflexiboa zela eta konbentzitura

---

<sup>128</sup> Alemaniako bidaiako programan zehazten den legez, arratsalde batez Mantinghausen hiria bisitatu zuten (Paderborn ondoan dagoena) eta bertan zeuden hiru sazerdote espainiar bisitatu zituzten.

zeuden erabakia ez zuela bat-bateko batean hartu, gogoetaren ondoko erabakia izanen zela. Apezek ez zioten ere erabakiaren arrazoirik eskatu, zentzu honetan, bere intimitatea errespetatu zuten guztiz.<sup>129</sup> Marisa Buenok, ongi gogoratzen du bere anaia Jesus Bueno apez bidea utzi zueneko momentu hura, baina aitortzen du, ez dituela ezagutzen erabaki horren arrazoiak. Gogoratzen duena da egun batean bere anaia apez batekin Andres Bueno etxean azaldu zela gurasoekin biltzera, antza denez, erabakiaren berri ematera eta honen arrazoiak aurkeztera. Marisa gonbidatuei harrera ona egiteaz eta afaria prestatzeaz arduratu zen, baina ez du ideiarik izandako solasaldi horretaz hitz egin zutenaz.<sup>130</sup> Horrez geroz gainera, ez zen berriro inoiz ez etxean solas egin Buenok hartutako erabaki honetaz.

Inork egun ez daki zer izan zen zehazki Bueno Asin erabaki hau hartzera eraman zuena, baina zenbait pista hori argitzen laguntzen ahal digute. Lehenik eta behin kontuan hartzekoa da bere alde egitea Seminarioko bizitzatik bat etorri zela hain zuzen ere Jesus Lezaun errektore kargutik kentzearekin. Lezaun 1967.urteko irailaren 1ean izan zen kargugabetua, eta zaila da jakitea Buenok erabakia data honen aurretik edo ondotik hartu ote zuen. Modu guztiz ere, testuinguru horretan izan zela argi dago. 1967ko udarako jada, seminarioko errektorearen eta Delgado Gómez artzapezpikuaren arteko polemika piztua zegoen. Polemika hau, nola edo hala, estatu espainiar mailan piztua zegoen eztabaida zen. Izan ere, autoritate frankistek eta Elizaren hierarkiako zenbaitek, ezin zuten esparru moralizatzailean gertatzen ari zen irekierarik onartu.<sup>131</sup>

---

<sup>129</sup> Jesus Ekizari egindako elkarrizketan (2015-05-06) emandako erantzuna Jesusen errenuntziari buruz galdetzerakoan honakoa izan zen: *“habían estado en un congreso, él y otros y otras del apostolado rural, en Alemania, sí, sí. Y entonces viene de allí, y nos dice que ha decidido dejar, dejar. La verdad que yo en esto siempre fui muy respetuoso con los seminaristas, muy respetuoso, y la verdad es que yo lo único que le dije fue, bueno, como tú ya eres un joven maduro, si has tomado esta decisión, yo no lo dudo de que la has tomado a ciencia y conciencia, entonces, no te pregunto nada (...) Y entonces yo, no te pregunto nada, pues ahora tú has tomado una decisión, pues haz (...) Pues bueno, la verdad es que yo tampoco se y nada, a mí me dijo que había decidido cambiar de ruta. Pues nada, que seas tan fiel y tan honrado como has sido hasta ahora.”*

<sup>130</sup> *En el año 67, no me acuerdo de las fechas, en aquel año es cuando Jesús sale del seminario (...) y vino aquí un cura a casa a decirnos, a dar una explicación a los padres. Y teníamos que hacer la cena. Y ahí me tienes a mí, cenó con nosotros en la cocina de casa. Y había que prepara la cena (...) habíamos comprado una merluza, fijate tú, lo que habría sido para nosotros (...) Tengo el recuerdo ese, que vino el cura aquel, y yo no sé qué explicación le habría dado al padre, solo sé que, supongo que habrían hablado con él. Yo no tengo ningún recuerdo de lo que hablaron, porque yo estaba con el preparar la cena. Supongo que le habría dado alguna explicación, para que se tranquilizara, porque se había salido el hijo del seminario. (Marisa Bueno Asin, 2015-01-02)*

Egoera bazter guztietatik eskapatzen ari zitzairen, ezen, erregimen frankistaren kontrako oposizioa jada erabat zabala zen eta nazional katolizismoaren ardatzak kinka larrian zeuden egoera honetan, ezin zuten inolaz ere onartu Elizaren barruko irekierarik. Oposizioa, edozein izanik ere, izaera politikoa hartuko zuen beldur ziren autoritateak. Juan Pablo Fusiren arabera 1960.hamarkada izan zen Frankoren kontrako oposizioa modu orokor eta masibo batean antolatzen hasi zeneko garaia eta oposizio hau, lau ardatzetan garatu zen; langile mugimenduaren antolaketa, indar nazionalisten agerpena (ETA kasu), ikasle mugimendua eta Elizaren barruko distantziamendua autoritate frankistetatik.<sup>132</sup> Mugimendu hauek guztiak antolatzeko arrazoieta sakontzea ez da ikerketa lan honen helburua, baina interesgarria da ulertzea, zein testuinguruan suertatu zen eta zerk bultzatu zuen oposizioaren agerpena.

Hau ulertzeko ezinbestean 1953.urteari egin behar zaio erreferentzia, hots, Espainia bloke kapitalistarekin harremanak "berreskuratuko" ditueneko datari, zeinean Eisenhower presidente estatubatuararekin egindako akordioek Espainiako norabide berria markatuko zuten. Gerra Hotzaren testuinguru honetan Espainia frankistak AEBekin akordioak sinatu zituen eta honela 1953.urtean, blokeoa altxatu eta ordura arteko isolamendu egoera gainditzten hasi zen. Nazioarteko erakundeetan onartua izatearekin batera (NBE 1955ean, OECEN 1958an) eta barne zein kanpo presioek eraginda, ekonomiaren liberalizaziorako pausoak ematen hasi ziren (egonkortze planekin lehenik eta garapen planekin ondoren). Gauzak honela erregimen frankistak, autarkia ekonomikoa baztertu eta ekonomia liberalizatzeko prozesua hasi zuen, garapen industrial, ekonomia eta merkataritzaren irekiera zein liberalizazioa, turismoaren hedapena, etab. bultzatuz. Alabaina, barne politikaren ildoak bere horretan mantendu zituen, Frankoren diktadura gaindiezinezko kontraesanean murgilduta geratu zelarik horrela. Alegia, modernizazio ekonomikoa *versus* tradizionalismo kultural eta immobilismo politikoa. Diktadurak ez zuen amorerik eman nahi eta lorpen demokratikoen bidean, ez zuen pauso bakar bat ere gauzatu. Are gehiago, diktaduraren irekiera eta demokratizazioaren aldeko mugimendu guztiak, indarrez erreprimitu zituen.

---

<sup>131</sup> "Contemporáneamente a la crisis del seminario, (...), se daba en la Iglesia una crisis teológica. Crisis que en España tuvo características singulares, por haber permanecido anclada en planteamientos teológicos ya desfasados, al margen de las corrientes que circulaban por Europa (...) Por eso cuando, a raíz del concilio, la comunicación se hizo muy intensa, el impacto fue mucho más fuerte". (Marcellán, Cierzo y Bochoro, 11.orria).

<sup>132</sup> Fontana J, *España bajo el franquismo*, Crítica, Barcelona, 1986. (160-169.orriak).

Baina immobilismo politiko hori ez da bat etorriko garaiko testuinguru sozial berriarekin. Industrializazioaren ezarrerak, nazioarteko eskenatokiarekin harremanak estutzeak, turismoaren erakuslehoak, belaunaldi berrien agerpenak, hiritartze prozesuak, kontsumo gizartearen garapenak, unibertsitate tasen handitzeak, Vatikanoko Kontzilio II.ak eta AC talde espezializatuek harturiko konpromiso soziala eta norabide berriak... gizarte moderno eta diktadura onartzeko prest ez zegoen gizarte baten garapena ahalbidetu zuten. Testuinguru honetan, gizarte eskakizunak eta beronen ezinegona areagotuz eta orokortuz joan ziren. Carmen Medinak idatzitakoaren arabera, garai hauetan gizarte mailan sortu ziren transformazio anitz erradikalak izan ziren eta gizarte berri zein modernoaren garapenerako funtsezkoak. Gaineratzen du halaber, kontsumo gizartearen garapenak erregimen frankistarekin loturiko baloreen desagerpena eragin zuela.<sup>133</sup> 1960.hamarkadan, gizarte mugimendu desberdinek eztanda egin zuten eta erregimenari, hauen guztien kontrola egitea ezinezkoa bilakatu zitzaion. Modernizazio eta aldaketaren prozesu guztiei frenoa ezartzen ahalegindu ziren arren, frankistak galduz joan ziren diktaduraren lehenengo urteetan gizarte enkoardatzeko eta bideratzeko izandako gaitasuna.

Kontzilio II. eta AC espezializatuak garatzen ari zireneko une hau bat dator hain zuzen ere aipatu berri dugun testuinguru sozio-ekonomiko zein politiko horrekin guztiarekin. Elizaren barruko entitate zein organismo anitz eta kristau asko, geroz eta gertuago zeuden egosten ari zen oposizio berri horretatik, autoritate frankistetatik baino. Horren adibide dira esaterako, jada aipatu dugun 1960.urtean 339 apez euskaldunek idatzitako eskutitza, 1963.urtean Montserrateko Escarré abadeak *Le Monde* egunkarian egindako deklarazioak,<sup>134</sup> HOAC eta JOC taldeek erakutsitako jarrera langile mugimendu eta grebetan, teologo batzuen irekiera eta ideologia marxista eta sozialistarenganako hurbiltzea, (Díez Alegría, Dalmau, González Ruiz...), etab. Autoritate eta hierarkia eliztar frankistak nola edo hala Elizaren barruko irekiera mugimendu hauei guztiei frenoa jarri nahi izan zieten, elizgizon anitz haien karguetatik kaleratuz, pertsonak jazarritik eta haien mugimenduak kontrolatuz, etab. Giro eta egoera honek guztiak eragina zuzena izan zuten dudarik gabe Lezaunen kargugabetzean eta iritzi honetakoak dira halaber, Irigoyen eta

---

<sup>133</sup> Medina Sola, Carmen. "Rompiendo moldes, mujeres en Pamplona desde el franquismo a la emancipación", *Geronimo de Uztariz*, 23-24.zenbakia, Iruñea, 2008. (178-179.orriak).

<sup>134</sup> Aureli M. Escarré Montserrateko abadeak 1963.eko azaroaren 14an *Le Monde* egunkari frantses ospetsuan erregimen frankistaren kontrako adierazpen sonatuak egin zituen. Besteak beste, honako baieztapen polemikoak egin zituen; «*El régimen español se dice cristiano, pero no obedece a los principios de base del cristianismo*» edo «*Allí donde no hay libertad auténtica, no hay justicia, y es lo que pasa en España*» (<http://www.catalunyareligio.cat>.)

Apezetxea esaterako (haien elkarrizketan adierazi bezala). Lezaunek berak ere, Castor Olcozekin izandako elkarrizketan onartzen zuen, (*La afonía de Ezequiel*, Txalaparta, 2009), Delgado Gomez Iruñeko artzapezpikuak ez zuela Kontzilio II.ak suposatu zuen irekiera hori ulertu eta errezeloa ziola aldaketari.<sup>135</sup> Gauzak honela eta Delgado Gomez en erabakiz, Lezaun Iruñeko seminarioko errektore izateari utzi zion 1967. urteko udaren amaieran. Polemika dena den, ez zen Lezaunen kargugabetzearekin amaitu. Izan ere, Delgado Gomezek, Rufo Ayestarán ezarri nahi izan zuen seminarioko errektoretza karguan, Marcellanen liburuan zehazten den legez, izaera integrista gogorreko apez zaharra zena. Baina seminarioko goi karguek ezezko borobila erakutsi zuten pretentsio honen aurrean eta blokean dimititzearekin mehatxu egin zioten artzapezpikuari. Asuntua Erromara iritsi egin zen eta azkenean, hezkuntza katolikoaren Kongregazioak horrela behartuta eta presiopean, Delgado Gomezek Javier Oses izendatu zuen errektore, seminarioko goi kargu guztiek onartu zutena.<sup>136</sup>

Jesus Bueno Asinek apez izateko bideari uko egitea hain justu ere momentu honetan ez da nire uste apalean kasualitate hutsa. 1967. urtean zehar gainera, polemika piztua zegoen Nafarroan Iruñeko seminarioa zela eta ez zela eta komunikabideetan, adar tradizional eta kontserbadoreenek seminarioaren kontrako kanpaina burutu zuten, bertako irakasle eta zuzendaritza taldea kritikatu eta mezu apokaliptikoen bitartez berauek desprestigiatuz.<sup>137</sup>

---

<sup>135</sup> Jesus Lezaunek *La Afonía de Ezequiel* liburuan egiten dituen adierazpenak (25. orria): *“El arzobispo de Pamplona, don Enrique Delgado Gómez, y sus colaboradores no entendieron lo que representaba el Concilio, ni lo aceptaron; se resistían a iniciar un cambio. Me lo confirmó el arzobispo Maximino Romero de Lema, quien tomó parte en el Vaticano II. Quienes me nombraron para el cargo de rector se equivocaron de plano; yo no era el hombre que buscaban. Sin embargo, el prelado no podía dar marcha atrás a mi nombramiento sin escándalo. Mientras permanecí al frente del Seminario, no faltaron sufrimientos e incomprensiones; pese a todo, me esforcé en la tarea iniciada con dedicación y lealtad, lealtad que no incluía la sumisión a una mente como la de monseñor Delgado Gómez, estrechamente ligado a los cardenales romanos Ottaviani y Antoniutti, tan distantes del espíritu del Vaticano II. Mi equipo y yo nos arriesgamos con ilusión en una empresa que quedó abortada, ya que me destituyeron de forma violenta. ¿Cómo podíamos encajar en el marco de los proyectos del prelado, siendo, sin él sospecharlo, su polo opuesto?”*

<sup>136</sup> *“(…) el arzobispo desautorizó al rector del seminario, doctor Lezaun, y pretendió sustituirlo en el cargo por medio de un sacerdote, de edad bastante avanzada, considerado en medios religiosos de Navarra como de fuerte integrismo religioso. Los superiores del seminario no se avinieron y amenazaron con la dimisión en bloque. (...) la Congregación de la enseñanza católica impuso al arzobispo de Pamplona la designación de (...) Javier Osés (...) identificado con las miras del dimisionado Lezaun”.* (Marcellán, Cierzo y bochorro, 116-117. orriak).

<sup>137</sup> 1967. urteko udan zehar, Diario de Navarra seminarioko norabidea eta arduradunak gogor kritikatu zituzten artikulak publikatu egin ziren. Adibide gisa, aipagarriak dira titulu hauen pean argitaraturikoak; *“A los que ayudan*

Testuinguru honetan guztian, apezgai askok Eliz bidea utzi zuten, izan ere; zein norabide hartuko zuten aurrerantzean Elizaren hierarkiak? Sektore kontserbadoreenek, zer nolako askatasun maila utzi behar zuten garatzen hasia zen Elizaren irekitze eta berritze prozesu honetan? Argi geratzen hasia zen hierarkia eliztar espainiarrak erregimenaren eta autoritate frankisten aldeko apustua egingo zuela. Eta beraz, zer egiterik zuten marko honetan Eliza berri eta desberdin bat proposatzen zuten elizgizonek? Ze etorkizun izango zuen Buenok apez gisa eragozle eta trabaz beteriko instituzioarekin topo egin behar bazuen? Koldo Irigoyenekin izandako elkarrizketan onartu zuen apez ugarik garai honetan zalantza hori bera planteatu zutela. Alegia, konpromisozko bizitza bat aurrera eramateko asmoa zuten askok pentsatu zuten, espainiar Elizaren barruan bidea itxita izango zutela, instituzioak berak hegala moztuko baitzizkien. Zentzu honetan askok bere buruari galdetu egin zioten; non izango naiz ni baliagarriagoa? Elizaren barruan hala kanpoan? Era berean, apezgai gazte anitz Eliza instituzioarekin kritiko izaten hasi zen Eliza motaren inguruan hausnartzen hastearekin batera. Kasu hauetan seminarioko mutilak haien buruari Eliza espainiar zaharkitu horren kide izan nahi ote zuten planteatzen zioten; zer pintatzen dut nik horrelako erakundearen barruan? <sup>138</sup>. Jesus Buenok horrelako burutaziorik izan ote zuen ezin dugu baieztatu, ezen ez zuen honen testigantzarik utzi, baina gauza bat argi dago; une konkretu batean, instituzio eliztarraren parte izateari uko egin ziola eta sustraitik moztu egin zuela ordura arteko bizitza estilo eta moduarekin.<sup>139</sup>

---

*a que avance la GRAN REVOLUCIÓN más les valiera no haber nacido” edo “Sin filia y sin fobia. EL seminario de Pamplona, un barco sin timón”. (Marcellán, Cierzo y Bochorno, 119.orria).*

<sup>138</sup> “(...) hablando con la gente, (...) vas viendo los problemas que tiene la gente, y si tienes un poco de sensibilidad, (...) te planteas; bueno ¿yo qué hago aquí? ¿Qué clase de Iglesia quiero? Y además esta Iglesia hoy ¿no tiene que decir algo? ¿no tiene voz? ¿es la Iglesia sin voz o tiene que decir algo? ¿no tiene que dar a la gente una respuesta? Algún mensaje tendrá que dar” (A. Andueza, 2013-01-09, Nerea Perez Ibarrolak egindako elkarrizketatik harturiko testigantza).

<sup>139</sup> Gerora ere, Buenok ez zuen inoiz erakutsi Elizarekiko sinpatiarik eta erabat aldendu egin zen mundu kristau instituzionaletik. Ez zen sekula borondatez gehiago ospakizun elizkoietara sartu, ez zen bat etorri bere seme-alabak bataiatzeko eta komulgatzeko erabakiarekin eta Izabako San Zipriano elizan bere hileta ospatu zen arren, ez zen hau bere eskaeraz egin, bere senideen desioz baizik. Hala eta guztiz ere, adiskidetasun handia mantendu zuen zenbait elizgizonekin eta errespetu handia erakutsi zuen haien egitearen aurrean. Hauetako zenbait proiektuetan haatik, kolaborazioa eskaini zuen, bai Diputazioan egon zela (1979-83), bai eta aholkulari gisa jardun zuela ere. Horren adibide dira esaterako, Eugenio Lekunberri eta Koldo Irigoyenek martxan jarritako Ilundain fundazioa, Bautista Irazoki eta Ramon Apezetxeak bultzaturiko Oronozko landa eskola edo eta Gongorako zabortegiaren kontra Ekizak bideraturiko borroka luzea.

Testuinguru honetan seminarioko gazte apezgaiak nork bere bidea jorratu zuen. Hauetariko asko, indarra hartzen hasia zen langile mugimenduaren kide izatera pasa ziren, bai apez izanik, bai apez bidea utzita ere, talde sindikal ezberdinetan parte hartuz edo eta hauen liderrak bilakatuz. Majuelok idatzitako lerroetan oinarriturik, ("Movimientos sociales y protesta social en Navarra durante el siglo XX"<sup>140</sup>) 1956.urtetik aurrera, Nafarroako estruktura sozio ekonomikoan aldaketak ematen hastearekin batera, langile mugimenduaren hastapenak finkatzen hasi ziren. Iruñea industrializazioaren ardatz nagusi bihurtu zen, bere periferian kokatu baitziren Nafarroako industria gune nagusienak. Honen proba da Iruñeak bere biztanleriaren kopurua bikoiztu izana hogeitaz eskasetan, 72.394 biztanle izatetik 1950.ean, 147.168 izatera heldu zelarik 1970.urtean<sup>141</sup>; eta Iruñerria kontuan izanik, hots, Berriozar, Antsoain, Atarrabia, Burlata... zifra are gehiago handitzen da, (osotara, Iriarte Aresoren ikerketen arabera, 194.219 biztanle biltzen zituelarik Iruñeak eta bere inguruak)<sup>142</sup>. Iruñea hazten eta industrializatzen ari zen momentu honetan, langile klaseak norabide berria hartuko du, XX.mende hasieran proletarioek erakutsitako jarrera antiklerikala zokoratuko dutelarik talde katolikoaren bitartez antolatzeko. Errealitate soziologikoak frankismoaren garaian horretara bideratuko du gizarte masak modu natural batean, langile mugimendua birsortuz katolizismoaren magaletan. Aditu askoren aburuz, (Majuelo eta Iriarte kasu), Nafarroako langileek 1960.hamarkadan ez zuten apenas kontakturik izan alderdi sozialista eta komunistarekin, bai ordea, mundu kristauaren barruan sorturiko talde espezializatuekin, hala nola, VOJ (*Vanguardias Obreras Juveniles*), ACko HOAC zein JOCekin edo ASTrekin (*Acción sindical de trabajadores*). Majueloren arabera, CCOO 1968.urtean modu ofizialean sortua izan arte, mugimendu apostolikoek izan zuten gehiengo batez langile mugimendua antolatzeko ahalmena.<sup>143</sup> Seminariotik edo bestelako zentro katolikoetatik ateratako apezgaiak sentzibilizatuta zeuden kapitalismoaren eta industrializazio bortitzaren ezarrerak sortzen zituen injustizia eta desoreka sozialekin eta hauek gelditzeko konpromisoa hartzeari ekin zioten.<sup>144</sup> Honela, batzuk sortu berriak ziren auzoetako parrokietatik borrokatu zuten, beste

---

<sup>140</sup> Lana Berasain J.M. (coor.). *En torno a la Navarra del siglo XX: veintidós reflexiones acerca de la sociedad, economía e historia*, Iruña, 2002, (307.orria).

<sup>141</sup> Ibidem.

<sup>142</sup> AA. *Euskal Herriaren Historiari buruzko bigarren biltzarra*, VI.alea. Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 1988, 93.orria.

<sup>143</sup> Lana Berasain J.M. (coor.). *En torno a la Navarra del siglo XX: veintidós reflexiones acerca de la sociedad, economía e historia*, Iruña, 2002, (309.orria).

<sup>144</sup> Garai honetan zehazki nabari egiten da autore askoren arabera sazerdote anitzen eta Estatu zein hierarkia eliztarraren arteko distantziamentua; "el lugar donde iban destinados mayoritariamente los jóvenes sacerdotes – muy numerosos en la época- eran esos suburbios de las ciudades en los que se estaba produciendo, en las



batzuk, fabriketan lanean sartu ziren, (apez langileak), beste hainbat sindikatu sortu berrien kide izatera pasa ziren... Eta hauetako anitzak halaber, unibertsitateetan formatzen hasi ziren, jakintzak zabaldu nahian injustizien aurrean borroka intelektualagoa egiteko asmoz. Apezgai asko, seminarioa utzi eta ekonomiak, zuzenbidea, etab. bezalako karrerak egiten hasi zen. Azken kasu honetan sartuko litzateke Jesus Bueno Asin, 1967.urtean seminarioa utzita eta Huescan soldadutza egin ondotik, Lovainara joan zena “ekonomiak” karrera egitera (1969-73), etorkizunean, euskal gizartea ikuspuntu ekonomiko sozial, kooperatibista eta gizatiarragotik antolatzeko itxaropenarekin.

Jesus Bueno gizon tematua izan zen eta bere pentsamenduei zein idealei guztiz fidela. Zerbaitetan tematzen zenean, ez zion deusek ere trabarik egiten eta bere helburuak lortu arte ez zion lan egiteari uzten. Konpromiso handiko pertsona zen gainera eta ez zen garaiz etsitzen zen pertsona horietako bat, ezen bukaerara arte ahalegintzen zen bere xedean. Buenoren ahalegintzeko eta lan egiteko zuen gaitasuna apartekoa zen eta bidean oztopoak aurkituta ere, bukaeraraino bere helburuak lortzeko prest egoten zen (beti ere beste pertsonak zanpatu gabe). Buenoren izaera hau kontuan izanik, ez da beraz inolaz ere harritzekoa apez bidea uzteko hautua egin izana. Izan ere, Elizaren hierarkia eta instituzioak bere borroka bidean lagundu baino, trabak jarri behar zizkion eta bera, ez zegoen horiei men egiteko prest. Buenok ongi baino hobeto ezagutzen zuen Eliza espainiarra eta susmatzen zuen ez zegoela berau aldatzeko itxaropenik. Ez zuen hegalak behin eta berriz moztuko zizkion instituzio baten kide izan nahi eta ez zuen ziurrena txotxongiloen modura ibili nahi. Alegia, libre izan nahi zuen bere bidea pertsonal zein profesionalean eta Elizak, askatasun hori guztia mugatzen ziola argi dago. Nola edo hala, Euskal Herria, Nafarroa, Erronkari, Izaba... aldatu nahi zituen, gizarte justu eta demokratikoago batera irekiz eta ekonomikoki norabide irmo zein itxaropentsu batean murgilduz. Ezagutu zuten askoren aburuz, Bueno orobat pertsona idealista izan zen, amets egiten zuena eta errealitatea aldatuko zelakoan konbentziturik zegoena. Buenok bere mundu idealista edo errealista horretan ez zuen ziurrena eragozpenik nahi eta hori izan daiteke, apez karrera utzi eta bizitza berri bat

---

*condiciones que sabemos, el asentamiento de la nueva clase obrera. Allí no había católicos, (...). Allí lo que había eran masas de proletarios rurales o semi/rurales, recién transplantados a la ciudad (...). Fue, precisamente, en la necesidad del tránsito de cristiandad a misión cuando todas las certezas doctrinales y todas la estrategias pastorales propias del nacionalcatolicismo (...) se vinieron abajo (...) La nueva generación de católicos tuvo que renunciar al lenguaje de cristiandad para aprender el más limitado de la misión” (Santos Juliá, “Obreros y sacerdotes:cultura democrática y movimientos sociales de la oposición” en, *La oposición al régimen de Franco*, Tusell, Alted, Mateos (coor), UNED, Madrid, 1990. 158.orria.*

ekitera eraman zuen arrazoietakoa bat. Ikerketa lan xume hau egin ondotik, argiagoak eta ulergarriagoak egiten dira apez bidea utzi izanaren arrazoiak. Argi dagoena da bere patua ez zegoela Eliz usteldu eta zaharkitu horretan, ezen bere konpromiso mailak ez zuen sekula ez mugarik onartuko.

## **3.2. SEMINARIOAREN ONDOKO GARAIA (1969-1974)**

Seminario utzita Jesus Buenoren bizitzan etapa berri bat hasiko da, interesgarria oso, baina lan honetan aipatu baino egingo ez dena, ezen honetan sakontzeak, beste lan bat egiteko adina emango luke. Gainera bada ere, ikertuko den azken etapa 1967-73.urte bitartekoa izango da, hain zuzen ere, unibertsitate garaia. Lovainako esperientziaren ondotik, Bueno Euskal Herrira itzuli eta Trantsizioaren lehenengo unetik, konpromiso sozial, ekonomiko eta bereziki politikoa hartzen hasiko da, Eiknor sindikatua fundatuz, 1977ko hauteskunde orokorretara aurkeztuz, "Punto y Hora" aldizkariaren partaide eta fundatzaile izanik, Orhi Mendi koalizioaren buruzagitzara hartuz... Diputaziora iritsi aurretik, zeinetara 1979.urteko hauteskunde foralak Zangozako merindadean irabazi ondotik heldu zen, esparru ezberdinetan lana lepotik egin zuen demokratizazio prozesuaren alde. Alabaina, kontu horiek guztiak etorkizuneko ikerketa lan baterako utzi beharko dira. Seminarioaren ondoko garaiari ordea atentzio minimo bat paratu nahiko nioke, harturiko erabakiak erabateko lortura izan zutelako apezgai urteetan izandako esperientziarekin. Bi izanen dira zentzu honetan aztertuko diren kontuak; lehena, Lovainako garaia eta bigarrena, "Zain Dezagun Belagoa" mugimenduaren sorrera: zergatik Lovaina? Zergatik ekonomikako karrera? Zer nolako urratsa utzi zuen esperientzia honek bere traiektorian? Eta zergatik sartu zen buru belarri Etudesa-Bankuni6n enpresak Belagoan egin nahi zuen proiektuaren kontra?

### **3.2.1. LOVAINA; UNIBERTSITATE GARAIA (1969-73)**

Jada aipatu dugun legez, Jesus Buenok 1967ko udan seminario utzi eta bere bizitzari norabide berria eman zion. Seminarioetik atera eta berehala, soldadutza egitera behartu zuten autoritate frankistek eta honela, 1968.urtea Huescan eman zuen, zehazki, Sabiñanigon. Lekukoek esaten dutenarengatik, Bueno kuartelean administrazio lanak egiten eman zuen soldadutzak iraun zuen denboraren gehiena. Derrigorrezko zerbitzu militarra bukatu bezain pronto, Lovainara joateko aukera mamitzen hasi zen. Honetarako ordea, finantziario behar zuen, ezen, ez zuen sosarik. Gertuko familiak ere oso zaila zuen laguntza ekonomikoa emateko, justu 1968.urtean, bere anai helduenak eta bere amak, Izaban, Kartutxo izeneko taberna alokatu eta

martxan jarri baitzuten. Alokairua ordaindu behar izateak, hornitzaileak finantzatu beharrak... margen gutxi uzten zien aparteko dirua eduki eta Jesusi prestatzeko. Baina Jesus Buenok argi zuen Unibertsitatera joan nahi zuela eta argiago zuen oraindik, goi mailako ikasketak Espainiatik kanpo egin nahi zituela, estatuak eta hierarkia katoliko espainiarrak kutsatu gabeko unibertsitate batean, alegia. Otu zitzaion lehenengo gauza honetarako Erronkari Bailarako Juntetxeari laguntza ekonomikoa eskatzea izan zen. Presidentearekin eta juntakideekin hitz egin zuen eta finantziazioaren trukean, behin lizentziatuta, Erronkariko Bailararentzako ekonomialari gisa dohainik lan eginez zorra kitatuko zuela proposatu zien. Juntetxeak ordea, ezezko borobila eman zion. Baina Jesusek ez zuen amore eman eta bankura diru eske joan zen. Urtebete Lovainan ikasteko eta bizitzeko adina dirua behar zuen, baita matrikula ordaintzeko ere. Bankuak ordea, abaldunik gabe ez zion zentimorik ere prestatu nahi izan. Azkenik Agustin Bueno izeneko osaba batek bermatu zuen bere prestamua eta Lovainara joan zen 1969.urteko irailean.

Gertuko familiak ez du gogoratzen zergatik tematu zen Bueno Lovainara ikastera joatearekin, eta ez dakite ere zergatik “ekonomika” karrera aukeratu ote zuen. Baina ikerketa lan hau egin ondotik, nire uste apalean, argi dago zerk eraginda aukeratu zuen bide hori. Hasteko eta behin kontuan izatekoa da Lovaina garai horretan nola edo hala “modan” zegoela apezgaien artean eta Euskal Herriko seminario ezberdinetako jende askok hartu zuela bide hori bera. Baina, zergatik jarri zen modan? Galdera honi erantzuna emateko kontuan hartu behar da Lovainako Unibertsitatea katolikoa zela eta ondorioz, seminarioko gazteei ikasketak baliozkotu egiten zietela (Irigoyenek eta Ekizak haien elkarrizketetan ziurtatu bezala). Beste unibertsitateetan ordea, seminarioko ikasketek ez zuten goi mailako ikasketak egiteko adina baliorik eta batxilergoko kurtsoren edo ikasgairen bat egitea beharrezkoa izaten zen. Lovainan ordea, zuzenean sar zitezkeen unibertsitate karrera batean. Horrez gain, atzerrira ikastera joatearena seminarioko irakasleengandik jasotako eraginaren ondorio ere izan zitekeen. Izan ere, Buenok izandako irakasle gehientsuenak Teologiako ikasketak egiten European ibiliak ziren eta denek, oso positiboki baloratzen zuten Espainiatik ateratzearen esperientzia hori. Espainia gainera zaharkitua zegoen, erregimen ustel eta totalitario batean murgilduta, zentsura indarrean zuena eta beraz, inolako askatasunik gabekoa. Bueno gainera Alemanian egona zen, baita Londresen ere, eta bidai horien ondotik, argi zuen ez zuela Espainia frankistan gehiago formatu nahi.<sup>145</sup> Lovaina gainera, Belgikako zonalde frankofonoan kokatuta egonik, ez zuen hizkuntzarekin

---

<sup>145</sup> Maria Luisa Barazek baieztatu bezala, Bueno Londresen 1969.urteko udan denboraldi bat eman zuen ingelesa ikasteko helburuz.

gehiegizko mugarik planteatzen, ezen frantsesa primeran dominatu ez arren, guztietan txikitatik bai eskolan bai eta seminarioan landutako hizkuntza zen. Honek guztiak, Lovaina destino erakargarria egiten zuen orduko gazteentzat eta Bueno bertara iristean, harriturik gelditu zen topatu zuen jende euskaldun kopuruarekin. Izan ere, Lovainako hiria apezgai izandakoentzat destino nola edo hala “naturala” izan arren, errefuxiatu politiko askoren kokaleku izan zen ere 1960.hamarkadaren bukaeratik aurrera.

Geure buruari egiten diogun beste galdera nagusienetako bat ekonomia ikasteko aukera hartu izanarena da. Bere familiak ere, ez daki honi erantzun konkreturik ematen, baina argi dago, seminarioko giroak eta JARCen izandako esperientziak honetara bultzatu zutela. Batetik kontuan izan behar da Iruñeko seminariora iristen ziren irakurgaien artean, arestian aipatu bezala, eragin nola edo hala marxista eta kultura libertarioarekin lotura zuten testuak aurkitzen zirela. Asko ziren HOAC zein JOC mugimenduek argitaratzen zituzten testuak eta Jesus Bueno zein seminarioko gazteen irakurgai zirenak; ZYX editorialeko aldizkariak, Besteiro bezalako idazlearen testuak... Poliki-poliki testu hauek, ideologia marxistarekin loturiko mezuak sartzen hasi ziren lerro artean; orduan ezagutuko zuten Buenok eta bere inguruko apezgaiek materialismo historikoa. Ekonomiak azken batean gizarte arlo guztiak baldintzatzen zituen; gizarte harremanak, herrien bizimodua...<sup>146</sup> Eta herrialde, hiri edo herri baten antolaketarako eta biziraupenerako, funtsezkoa zen jarduera ekonomiko eraginkor eta planifikatu bat martxan jartzea. JARCen bizituriko esperientzietan ageri gelditu zen, arazo nagusia herriek bizitzen zuten dekadentzia prozesu larria zela eta asanbladetan planteatzen zituzten irtenbideen oinarrian, bailara horietako planifikazio eta garapen ekonomiko on bat zegoela. Baina irtenbide eraginkorrak planteatu ahal izateko, ekonomia arloan formazio ona izatea beharrezkoa zen eta hori izan zen ziurrenik Bueno karrera hori eta ez beste bat ikastera bultzatu zuen arrosi nagusienetako bat.

Lovainara zehazki 1969.urteko Irailaren bukaeran joan zen eta justu aurretik, Maria Luisa ezagutzen hasi zen. Biak izabarrak izanik ere, apenas ezagutzen zuten elkar, Buenok urteak eman baitzituen bailaratik kanpo seminarioan eta egunerokoan ez zuten ia topo egin. Maria Luisa, 1947.urtean Izaban jaiotakoa, “Txantero” etxekoa eta bailarako ehungintza kooperatibako langilea zen orduan. 1969.urteko udan maite kontuetan hasi arren, haien erlazioa ez zen hilabete batzuen ondorenera arte formalizatu, Bueno jada Lovainan zegoela. 1969 eta 1972.urtera arte,

---

<sup>146</sup> *“Prácticamente el análisis marxista te valía para todo, era el análisis de la lucha de clases, la economía, la economía como motor de la existencia y del poder, el capital”* (Irigoyen, 2015-02-09)

gutxi izan ziren elkar egondako uneak, ezen Bueno, soilik eta bakarrik udan eta eguberrietan itzultzen zen Izabara. Bitarte horretan gutzian, karta edo gutun bidezko harremana izan zen Jesus Bueno eta Maria Luisa Barazerena eta azkenik, 1972.urteko Irailaren 8an ezkondu egin ziren. Ezkontzea zen garai horretan zegoen aukera bakarra elkar egon eta bizi ahal izateko. Buenok Maria Luisa Lovainara joatea nahi zuen, Izabatik atera eta mundua ezagutu zezan, Belgikako bizitza europar kosmopolita zeharo ezberdina baitzen Espainia frankistan zegoenaren aldean. Buenok ezkondu gabe berarekin Lovainara joateko aukera planteatu zion Maria Luisari, baina honek ezkondu nahi zuen. Buenok halaber ez zuen Eliza bidez ezkontzerik nahi eta atzerrian ezkontzeko proposamena egin zion. Hau ordea, ez Jesus Buenoren amak, ezta Maria Luisarenak ere, ez zuten inolaz ere onartu.<sup>147</sup> Azkenik, 1972.ko Irailaren 8an Burlatako San Blas elizan ezkondu zituen Ciriako Asin osabak. Ezkontza xumea izan zen oso, soilik eta bakarrik gertuko familia gonbidatu zutelarik (gurasoak eta anaia-arrebak). Egun batzuk Donostian eman eta gero, Belgikara elkarrekin joan ziren.

Modu guttiz ere, Maria Luisa Baraze Lovainara heldu orduko, Jesus Buenok jada hiru urte zeramatzan Belgikan. Lehenengo urtea gogorra izan zen oso, ezen karrerako lehenengo bi kurtsoak bakar batean egin zituen. Ahalik eta notarik onena eskuratzen ahalegindu zen gainera, nota altu batekin beka akademiko bat lortzeko aukera baitzuen. Bekarik gabe asko konplikatzen zitzaion Lovainan ikasten jarraitzearen aukera, ezen bankuak eta osabak jada, ezin zioten gehiago prestatu. Baina Bueno ikasle ona zen, argia eta arduratsua, eta lehenengo urte horretan izan ezik, gainerako urteetan beka ekonomiko batekin ikasten jarraitzea lortu zuen bikaineko emaitzak lortzeari esker. Bekei esker biziraun zituen 1970-73.urte bitarteak.<sup>148</sup>

---

<sup>147</sup> *“Nos casamos porque me quería casar yo, él no quería casarse y menos por la Iglesia... uff, su madre, que cisma fue aquello. Porque él quería que yo fuera a Lovaina, que yo conociera otras cosas, no vivir sólo en el pueblo, que yo conociera otras cosas. Y la manera de que yo conociera mundo era marchándome con él allá, a Lovaina. Pero tú te imaginas en aquellos años sin casarte, ¿cómo me iba yo a ir a vivir con él allá? Eso era impensable, impensable. Y entonces si yo tenía que ir el último año que él iba a estar allá, había que casarse. Y él no quería casarse por la iglesia, pero buff, que cisma, ¿te puedes imaginar no?”* (Maria Luisa Baraze, 2014-12-22).

<sup>148</sup> *“Le dieron beca sí, con eso vivíamos. Con lo que le dieron a él vivíamos. Claro el primer año tuvo que sacar todo bien y con buenas notas para mantenerla claro, que si no no le daba (...). Estaba todo el día estudiando, todo el día, todo el día. Ir a la Universidad, volver y a hincar codos hasta las tantas de la noche”* (Maria Luisa Baraze, 2014-12-02).

Lovainan bizitutakoak zeharo markatu zuen Jesus Bueno bere emazte zenaren esanetan. Azken batean, Espainiarekin alderatuta beste mundu bat zen hura, askoz irekiagoa eta modernoagoa zentzu guztietan. Herrialde indartsua kontsideratzen zen gainera Europan, izan ere, Belgika NATOren, Europako komunitate europarraren eta Europar Batasunaren fundatzaileetako bat zen. Brusela gainera, lehenengo momentutik izan zen europar batzar nagusien biltoki. Espainia ez bezala, estatu demokratikoa zen belgikarra eta herriak adierazpen askatasuna aitortua zuen. II.Mundu Gerra ondotik Leopoldo III. erregeak jarraitu zuen erreinatzen baina ez zuen herritar askoren babesa eta honek, erreferendum bat ospatzera behartu zuen 1950.urtean. Erreferenduma irabazi arren, oso margen txikiarekin egin zuen eta kalean protestek jarraitu zuten. Azkenik, iritzi publikoa kontrari zuela ikusirik eta monarkia ziurtatzeko asmoarekin, bere seme Balduino I.aren abdikatu zuen 1951.urtean. Buenok ez zuen inolaz ere ezagutu hau guztia, baina herri belgikarrak ordutik, kontzientzia demokratikoa sendotu zuela esan genezake. 1968.urteko ikasle mugimenduak ere indar berezia izan zuen Belgikan, bereziki Lovainan, hau baitzen unibertsitate hiririk inportanteena herrialdean. Jesus Bueno Belgikara iritsi zenean 1969.urtean, indarrean zegoen beste auzi bat kontzientzia eta nazio identitatearena zen. Belgika bi zonalde ezberdinetan banatua zegoen hizkuntzaren eta kulturaren arabera, Flandes eta Valonia. 1960.hamarkadan sentimendu eta aldarrikapen politiko nazionalistek indarra hartu zuten Flandrian, mugimendu politiko flamenkoak haien erregioarentzako autonomia maila handiagoa exijitzen hastearekin batera. Aldarrikapen hauek denbora gutxian Valoniara hedatu ziren ere, bertan halaber haien nazionaltasuna azpimarratu nahi izan zutelarik. Mendez Lagoren arabera, nazionalismoak bere isla izan zuen 1960.hamarkadetako hauteskundeetan eta lortutako emaitza onek presiopean utzi zuten sistema politiko belgikarra.<sup>149</sup> Alegia, indar nazionalisten goratzeak agerian utzi zuten batasun politikoan oinarrituriko estatu estrukturak, (ordura arte nagusiki dominazio frankofonoarekin identifikaturik egon ohi zenak), bideragarritasunik ez zuela. Giro sozio-politiko "nahasi" honen aurrean 1970.hamarkadaren hasieratik soluzioak bilatzen hasi ziren eta instituzio erreforma ezberdinak martxan jartzen hasi zen Belgikako parlamentua (prozesua guztiz loratuko da 1990.hamarkadaren hasieran, Belgika estatu federala aldarrikatuta geldituko delarik). Hizkuntza bien ofizialtasun aitortzea (flamenkoa eta frantsesa) eta nazio aniztasunaren onespina pil-pilean zeuden gaiak ziren Jesus Bueno Belgikara heldu zenean eta honek dudarik gabe, bertan zeuden euskaldun kontzientziadunak markatu zituen. Europako estatu printzipalenetako batek horrelako pausuak ematea nazio aniztasunaren aitortzen bidean eta demokratikoki hautestontzietako

---

<sup>149</sup> Chavari Sidera, Delgado Sotillos (coor). *Sistemas políticos contemporáneos*, UNED, Madrid, 2013 (342.orria)

emaitzak errespetatzea erreferente bat izan zitekeen etorkizunezko Espainia batean. Bueno Belgikan halaber, benetako sistema demokratiko baten funtzionamenduaz jabetu egin zen, pluralismo politikoan eta hauteskundeetan oinarriturikoa. Sekula haien bizitzan ezagutzeko aukera izan ez zuten erregimen politikoak ikusgai zuten Belgikan Buenok eta bere belaunaldiko gazte espainiarrek. 1968.urteaz geroztik gainera, ugaritu egin ziren Belgikan koaliziozko alderdi politikoak eta gobernu gehientsuenak garai horietan koaliziozkoak ziren. Mendez Lagoren hitzetan, honek are aukera gehiago ematen zion eztabaida eta entendimendu politikoari, Espainian usaindu ere egiten ez zen zerbait izanik<sup>150</sup>. Alderi nagusienak alderdi sozial kristauak ziren, CVP Flandesen eta PSC Valonian, liberalak eta sozialistek gertutik jarraitzen ziotelarik, baita nazionalista eta erregionalistek ere, (“Volksunie” nagusi izanik Flandesen eta “Frente Demokratiko Frankofono” Valonian). Pluralismo politiko hau guztiz berria zen Espainia frankistatik zetozen gazteentzat eta dudarik gabe, erakusleho ezin hobea bihurtu zen haientzat. Giro politiko honetatik asko ikasi zuen Buenok eta Belgikako bizi esperientzia honek bere sentimendu antifrankista are gehiago sendotzen laguntzeaz gainera, bere etorkizunezko ibilbide politikoa egiten lagundu zion.

Lovainak halaber, jende ezberdin asko ezagutzeko aukera eman zion Jesus Buenori. Lovainara heldu zen momentutik, beste euskaldun batzuekin pisua konpartitu zuen. Maria Luisa 1972.urtean iritsi zenean, Idiazabal eta Zaldibiako beste bikote batekin bizi izan ziren. Gizonak Lovainako Unibertsitatean ikasten zuen Buenorekin. Emakumea Juan Manuel Galarraga ustezko ETA kide izandakoaren arreba zen. Juan Manuel Galarraga hilabete batzuen buruan bizi izan zen ere pisu horretan, Espainiatik alde egin behar izan zuenean jazarria izatearen beldur.<sup>151</sup> Familia honekin elkarrekin bizi izanak, kontaktu zuzenean jarri zituen erregimen frankistaren kontrako oposizio aktiboarekin eta lehenengo pertsonatik jaso zuten halaber, Frankoren aparatu errepresiboaren testigantza. Oso bikote atsegina zirela gogoratzen du Maria Luisa Barazek eta haiekin, egunero otorduak egiten zituzten eta gauetan, afal ostean, kartetara jolasten ohi zutelako kontatzen du. Bueno eta Idiazabalgo gizona oso ongi moldatzen ziren eta harreman estua izatera

---

<sup>150</sup> Ibidem 350.orria.

<sup>151</sup> *“Ese estuvo viviendo allí en Lovaina con nosotros algún mes. Y ese, ese se tuvo que escapar por lo que se escapaban todos, por tirar octavilla o... yo que sé. Y se fue y vino allá y estuvo algún mes con nosotros. Y era un chaval, para nada lo que le achacaban. Y luego, cuando mataron a Carrero Blanco, me acuerdo que estábamos en el bar y dicen, Juan Manuel Galarraga, nos quedamos haciendo cruces, y no no, luego se supo que no”* (2014-12-22).

iritsi ziren. Bere emazteak kontatu bezala, gau askotan bi gizonak sukaldean gelditzen ziren barra-barra hizketan berandura arte. Emazteak ordea ez daki zertaz hitz egiten ote zuten. Garai horretan, berak aitortu bezala, oso inozentea zen ez baitzen benetan jabetzen Espainiak bizi zuen egoera sozio-politikoaz. Ez zegoen hitz egiteko, hausnartzeko eta publikoki nor bere iritzia emateko ohiturarik, are gutxiago emakumeen artean. Maria Luisa Barazek azken batean, Izaban bizi osoa eman ondoren, ez zuen Jesusen adina formaziorik, ezta kontzientzia politiko-sozialik ere. Ezkongaiak eta ezkondu berri zirela, Buenorekin Frankoren inguruan apenas hitz egiten zuela aitortzen du. Diktadura eta Franko bera kritikatzeko gai tabutzat zuen Maria Luisa Barazek eta diktadura ez gustatu arren, ez zuen honen inguruan iritzi kritiko sendorik. Bueno ordea, luze egoten zen Lovainan egindako lagun euskaldunekin hizketan eta ziur asko, egoera politikoaz, Euskal Herriaren entitateaz, demokraziaren beharraz... mintzatuko ziren. Baina bere emazte zena, Maria Luisa, guztiz margenera egoten zen hitzaldi hauetan.

Buenok Lovainan egindako lagun talde nagusia euskalduna izan zen. Horietariko gehienak unibertsitatean ezaguturikoak ziren, baina asko ere, jada seminario garaietatik ezagutzen zituen, (Araiz, Zabalza, Burgete...). Errefuxiatuekin ere larunbatetan elkartzen ohi ziren Lovainako "Don Munder" izeneko taberna batean. Bere emaztea Maria Luisak egungo garagardotegi antzerako bat izango bailitzan gogoratzen du, zeinetan Lovaina eta Bruselan zegoen euskaldun asko topatzen zen. Bertan ia larunbatero plater edo bokataren bat afaltzen zuten eta ondoren, dantza egiten zuten. Maria Luisaren esanetan, normalean emakumeak izaten ziren dantzan ibiltzen zirenak eta gizonak, garagardoak edaten eta hizketan egoten ohi ziren. Errefuxiatuz beterik egoten zen taberna hura eta Maria Luisak gogoratzen du, Bueno jende askorekin hizketan ibiltzen zela. Egunerokoan ordea, errefuxiatuekin egoten ez zirela esaten du eta ez ditu zehazki haien izenak gogoratzen. Jesus Bueno gainera, seminarioan mamituriko diskrezioarekin jokatu zuen beti Lovainan zegoela eta nahiz eta bertan zeuden euskaldun askorekin patxadaz hitz egitea atsegin, ez zen haien ekintzetan eta militantzia konpromisoetan sartu. Buenok argi zuen Lovainako estantziaren helburu nagusia karrera ateratzea eta ongi formatzea zela eta ez zuen bere burua konprometiturik ikusi nahi.<sup>152</sup> Espainiatik urrun egonik ere, frankismoaren beldur ziren eta ez zuen bere etorkizuna nola edo hala hipotekatu nahi. Honen proba da esaterako, Buenok

---

<sup>152</sup> Honen harira bere arreba Marisa Buenok hau komentatu zuen elkarrizketan (2015-01-02); *"Yo me acuerdo que cuando se iba a Lovaina le decía a Ignacio: Ignacio, cuando vuelva yo seré diputado y tú alcalde. Y le decía Ignacio, ¡alá! Ya estaba entonces en todos estos jaleos."* (Ignacio Marisa Buenoren senarra da). Bitxieta da Jesusek bere pronostikoan bete-betea asmatu zuela, izan ere, Ignacio Garcés Izabako alkate izatera iritsi zen 1979.urtean eta urte horretan bertan Jesus Nafarroako Diputaziora heldu zen.



ez zuela sikiera errefuxiatu zirenekin argazkietan atera nahi izaten, nahiz eta beraiekin harremana izan. Bera zen beti argazkiak ateratzen zituena baina ez zen sekula hauetan jartzen.<sup>153</sup> Hala eta guztiz ere argi dago Lovainan ezaguturiko pertsonak urratsa utzi zutela berarengan eta jada seminarioan mamitzen hasia zen kontzientzia euskaldun eta demokratikoa are gehiago sendotu edo errotu zuela giro horretan.

Karrera egiten bere burua ongi formatu zuen eta Espainian une horretan sekula ikasi edo landuko ez zituen ekonomia gaiak ikertu zituen. Honen proba dira bere etxeko liburutegiko apalategietan aurki daitezkeen irakurgaiak, denak frantsesez idatziak eta Lovainako garaietan erositakoak. Nabarmentzekoak dira esaterako autore klasikoen liburuak, esaterako Karl Marx eta Rosa Luxemburgorenak, (hurrenez hurren *Le Capital* -1960- eta *La acumulation du capital* -1969-). Hauez gain, izaera marxista zuten autore askoren obrak ere aurki daitezke bere ganbaran, hauek izanik horietariko batzuk; Ernest Mandel orduko belgikar militante troskista nagusienetakoaren obrak (*Traité d'économie marxiste* obraren hiru tomoak -1961,1969-), Samir Amin egiptiar neomarxistarenak (*L'accumulation a l'échelle mondiale* -1971-), Jacques Gouberneur Buenoren “ekonomia kapitalistaren analisi marxista” izeneko ikasgaiaren irakasle izandakoaren obrak, (*Notes d'économie marxiste*), Christian Palloixen *L'économie mondiale capitaliste* (1971), Arghiri Emmanuele inspirazio marxista duen ekonomistaren obrak (*L'échage inégal*, 1972), Jean M. Anzia idazlearenak (*Structuralisme et marxisme* -1971-), Maurice Dobb ekonomista ingeles marxistaren obrak (*Etudes sur le développement du capitalisme*, 1971), etab. Seminarioan ezagutzen hasitako ekonomia eredu ezberdinen inguruko formazio sakona eskuratu zuen Lovainan eta hauekin halaber, ekonomia antolatzeke eta ulertzeke beste bide berri batzuk ezagutu zituen. Buenori gainera, biziki gustatu zitzaion beti irakurtzea eta zaletasun honek, liburuak eta liburuak irenstea erraztu zion. Bueno ezagutu genuenok beti gogoratuko dugu libururen batekin esku artean.

Ekonomia lau urteetako lizentziatura izanik ere, Jesus Buenok hiru urteetan amaitu zuen, ezen jada aipatu den legez, lehenengo bi kurtsoak urte bakar batean atera zituen. Baina karrera

---

<sup>153</sup> “Y luego pues nuestros círculos eran sobre todo la gente que iba a estudiar allá de aquí, y luego con los de Bruselas, claro, que hablaban mucho, (...) pero eso sí, Jesús nunca se quiso sacar fotos con ellos. Porque había muchos que hala, enseguida a sacar fotos alegremente, pero Jesús no quería nunca ponerse para sacar fotos. Porque claro Jesús pues intuía, porque claro, según con que estos, eran fotos comprometidas. Y si estás de refugiado porque has puesto una bomba o has atentado contra alguien, que te vean a ti en una foto pues... ¿no?” (Maria Luisa Baraze, 2014-12-22).

amaituta urte bete gehiago gelditu zen Lovainan master bat ateratzen, hots, 1972-73.urteko ikasturtea. Masterreko titulazioa lortzeko, ikerketa lan sendo bat egin behar izan zuen, master bukaerako lana izango litzatekeena. Hau egiteko seminario urteetan eta JARCen egondako garaietako gai eta irrieki heldu zien berriz ere eta Europako nekazal esparruko garapenari buruzko ikerketa lana egin zuen.<sup>154</sup> Europako lehenengo sektorearen egoera eta etorkizunari buruzko lana egiten aritu zen, nekazal politikak ikertuz eta hauen garapena bultzatzeko modernizazio bide zein eredu ezberdinak aztertuz. Hau guztia ikertzeak helburu jakin eta konkretu bat zuen, alegia, ongi formatzea ondoren Euskal Herrira itzultzean baliagarriak izan zitezkeen nekazal politika eta proiektuak garatu ahal izateko. Buenok garai bateko irrika eta xedeei jarraitu zien zentzu honetan, hots, herri despulazioa ekiditearen ideari eta nekazal eremu zein bailarak bizibide duin eta modernoan murgiltzeko adina formazio eskuratzeko asmoari. Buenok ez zituen zentzu honetan inoiz ez bere sustraiak ahantzi eta Erronkari Ibaixaren biziraupena ziurtatzeko irtenbideak bilatzen jarraitu zituen Belgikan zegoela ere. 1972.urterako gainera, jada Belagoan egin nahi zuten proiektua martxan zegoen, zeinaren inguruan orain mintzatuko garen. Jesus Bueno garai honetarako jada gogoz lanean zebilen Bankunion enpresak Belagoan burutu nahi zuen obra faraonikoa gelditzeko. Erabat motibaturik zegoen Erronkarin garapen iraunkorrean oinarrituriko etorkizun bat garatzeko desioarekin eta ekonomikoki bideragarria eta naturarekin zein betiko bizibidearekin oreka mantenduko zuen proiektu bat garatzearen ideiarekin. Honek guztiak, master bukaerako lanaren gaia aukeratzen lagundu zion. Tesina egiteko askotan Bruselara joaten zirela gogoratzen du Maria Luisa Barazek, dokumentazioaren bila artxibo ezberdinetara hain zuzen ere, (ez du ordea zehazki oroitzen zein eraikin konkretuetara joaten ziren). Bertan Buenok orduak ematen ohi zituen artxibo ezberdinak kontsultatzen, liburuak hartzen eta datuak apuntatzen. Ondoren Maria Luisak, grafikoak egiten eta makinaz apunte guztiak pasatzen laguntzen zion. Tesina aurkeztuta Euskal Herrira itzuli ziren 1973.urteko udan, hemen etapa guztiz berriari hasiera emanez.

### **3.2.2. ZAIN DEZAGUN BELAGOA**

---

Zain Dezagun Belagoa izeneko mugimendua izan zen zalantzarik gabe Jesus Buenoren lehenengo borroka aktibo sutsua eta publikoa. Bere inguruko guztiek horrela esanda, Buenok azala utzi zuen Belagoan egin nahi zuten makro proiektuaren kontrako borrokan eta bera izan

---

<sup>154</sup> Ikerketa lanaren izenburu zehatza ezin izan dut momentuz konfirmatu, bere fondo dokumentalean nonbait egon beharko litzateke baina ez dugu izan oraindik hau topatzeko aukerarik. Beste bide bat hau eskuratzeko zuzenean Lovainako Unibertsitateari eskaera egitea izango litzateke baina ez dut momentuz honetarako betarik izan.

zen nagusiki, “Zain Dezagun Belagoa” izeneko plataforma eta mugimenduaren lider nagusia. Borroka luzea izan zen oso, 1969.urtean hasi eta 1980.hamarkadara arte oraindik iraun zuena. Prozesu luze honetan guztian Bueno buru belarri aritu zen lanean eta esfortzu handiarekin bada ere, azkenean lortu egin zen Belagoan egin nahi zuten proiektua gelditzea. Borrokak iraun zuen bitartean bizitutako gora behera guzti horiek ikertzea ezinezkoa suertatu zait lan honetan, ezen denbora luzea exijitzen du berau fundamentuz eta patxadaz ikertzea. Mugimendu honen inguruko ikerketa sakona etorkizuneko lan baterako utzi beharko den gaia da beraz, baina gainera bada ere, heldu diezaiozun proiektuaren nondik norako nagusienak ikertzera eta ulertzera, zerk eraman zuen Jesus Bueno honetan barruraino sartzera. Era berean, Bueno ezagutzen duten guztiek baieztatzen dute, Belaguako borroka honek zeharo markatu egin zuela eta aukera eman ziola orobat, garai horretako intelektual anitz ezagutzeko eta panorama politikora salto egiteko.

Hasteko eta behin beharrezkoa da ulertzea zer izan zen Belagoan egin nahi izan zuten proiektua eta zer nolako helburuak izan zituen. Denari hasiera eman zitzaion 1967.urtean ETUDESA izeneko sozietatea eratzen duenean Nafarroako mendizale eta eskiazaile talde batek. “Explotaciones Turístico-Deportivas” izena zuen sozietate anonimo honen hasierako helburua Belagoa aldean eskia promozionatzea zen eta eski estazio bat sortzeko asmoa erakutsi zuten. Herritarrek harrera ona egin zioten hasiera batean proiektuari, zonaldeari bizitasuna eta aberastasuna ekarriko ziolakoan. Izan ere, lehenengo proiektuaren arabera, estazioa “Rincon de Belagoan” egingo zen baina honek, soro bakar batzuetara baino ez zion eragingo, horien artean, Buenotarren soro batzuetara. Buenotar familiak dena den, ez zuen hasiera batean arazo larririk ikusi soro horien galeran, trukean, beste batzuk ematen bazizkieten. Baina eski estazioaren hasierako helburu xumea, anbizio handiko proiektua bihurtu zen 1971.urtetik aurrera, BANKUNION enpresak (“Unión Bancaria Industrial”) ETUDESA bere gain hartzearekin batera. Une horretatik aurrera, proiektu xume izateari utzi eta Izabako zein Belagoako soro gehienak hartzen zituen proiektu higiezin eta urbanistiko erraldoia bihurtu zen, eski estazioaz gainera, ehunka etxebizitzaren eraikuntza planteatzen zuena.<sup>155</sup> Honek bete betetan izabarrak desjabetzea

---

<sup>155</sup> Fernando Bueno (2015-01-02); *“el proyecto en sí empieza en el año 69 si no es en el 68. Y entonces están, Echalecu, que había estado en la mili con Fidel Zalguizuri y otros tres pelaus ahí que se les ocurre la idea. Y la primera idea es hacer del Rincón para arriba una estación. Cogían el campo nuestro, lo de Intxa. Y ahí, yo recuerdo de estar en el Rincón con el padre y gente de esta, y más o menos de acuerdo. Estábamos nosotros, los de Intxa... y no sé qué más gente. Y vienen hablar con nosotros al Rincón. Y entonces la verdad es que ni me entero. Además si alguno de nosotros de aquí, podíamos sino cambiar las tierras por algunas de más abajo que*

zekarren eta beraz, abeltzainen bizibidearen desagertzea. Jendea, ikusirik haien lurak galduko zituela, kontrari jarri eta proiektua gelditzeko antolatzen hasi zen. Espekulazioan oinarrituriko negozioa egin nahi izan zuten BANKUNION-ETUDESako enpresarioek eta Belagoako soron eta bailaran lurak zituzten jabe gehienek ezezik borobila esan zieten haiekin negoziatzera joandako enpresa buruei.<sup>156</sup> Egoera are gehiago larritu zen 1972. urtetik aurrera, higiezin enpresak Nafarroako Diputazioaren babes jasotzearekin batera. Diputazioaren ordezkariak Izabara joan ziren eta bizilagunak deitu egin zituzten bilera batera. Bileraren helburua egoeraz informatzea ez ezik, lurren salmentaren proposamena luzatzea izan zen, metro karratua 25 pezetetan saltzeko bizilagunak animatu zituztelarik Diputazioko ordezkari zirenak. Herritarren gehiengo zabalak uko egin zion guztiz haien lurren salmentari. BANKUNION-ETUDESAK halaber, Izabako udaletxeari lur komunalen salmenta proposatu zion, baina honek ere ez zuen argi ikusi. Nafarroako Diputazioak 1972. urteko otsailean, Izabako udaletxearen eskaerari jarraituz, "Promoziorako, babeserako eta Belagoako Bailararen ordenaziorako plan berezi" bat egiteko enkargua egin zion Fernando Redón eta Francisco Inza izeneko arkitektoei. Proiektuak, 1972. urteko abenduan aurkezturikoak, Belagoako ekosistema naturala nabarmentzen zuen eta zonaldea, parke naturala deklaratzeko proposamena egiten zuen. Honek, BANKUNION delako enpresaren anbizioak tratatu egiten zituen. Nafarroako Diputazio Foralak arkitektoek egindako proiektua artxibatu egin zuen hau publiko egin gabe. Honek, are gehiago astindu zituen bazterrak eta Izabako herritar askoren haserrea eta antolaketa beharra piztu zuen. Horrela sortu zen, "Zain Dezagun Belagua-Salvemos Belagua" izeneko mugimendua.

Nafarroako Diputazioak, jada aipaturiko enpresarekin aliaturik, hitzarmen bat sinatu egin zuen 1974. urtean, ("Belagoako Plan Berezia" izenarekin bataiatua), zeinaren arabera, Diputazioa

---

*estaban entonces alquiladas. Pero claro, al poco tiempo ya no vienen con esa noticia. Al poco tiempo es coger todo Belagoa, pero con las limitaciones desde Isaba. Se ve que lo vieron todo tan fácil que a continuación, cambian el chip, se alían con el gobierno, y no no, todo el término de Isaba, de Isaba para arriba. Entonces es cuando surge el movimiento".*

<sup>156</sup> "El proyecto fue acogido con entusiasmo. Sin embargo, la aparición de artículos en el periódico en los que se decía, más o menos, que el proyecto se iba a hacer a expensas de la desaparición de las propiedades de Belagua, hizo que el pueblo se diera cuenta del peligro de perder la mejor parte de su patrimonio y quedar aislado económicamente. Hubo conversaciones entre los empresarios y los propietarios del llano, que son unos noventa vecinos, y se vio claramente que se iba a producir una especulación a costa de los vecinos. No se pudieron obtener datos, planos ni maquetas del proyecto. Había el deseo de los empresarios de comprar sin entrar en explicaciones" (Estornés Lasa, Jose. *Nuestro pirineo y la defensa de la naturaleza; Belagua*. Itxaropena S.A, 1973, Zarautz, 19. orria).

izanen zen Belaguako lur sail pribatu zein komunalen eroslea eta beharrezkoa ziren azpiegitura nagusien eraikitzailea; honetan guztian Diputazio nafarrak 872 miloi pezeta inbertitu beharko zituen.<sup>157</sup> Hitzarmenaren ondotik bigarrenkoz saiatu zen Diputazioa Izabako bizilagunak eta udaletxea konbentzitzen haien lurak sal zezaten eta oraingo honetan, 50 pezeta eskaini zien metro karratuko. Gehiengoak berriz ere, ezezko borobila eman zion.<sup>158</sup> Baina zergatik tematu ziren izabarrak ezezko borobil horretan? Zer zegoen arriskuan? Zer zegoen galtzeko?<sup>159</sup>

---

<sup>157</sup> Interesgarria litzateke oso garai honetan Diputazioan Belagoako proiektuaren alde lerrokatu eta honen burutzean tematu ziren pertsonak zehazki zentzuk izan ziren ikertzea. Lekukoen arabera une horretan, gai honen atzean zeuden pertsona nagusienak Jose Ignacio Irazoki, (Berako alkate izandakoa eta Diputatu forala zena 1971. urtetik) eta J.I del Burgo, (1970. urtean Nafarroako Ogasuneko idazkari tekniko izendatua eta 1973. urtetik aurrera, Diputazioko Koordinazio, Planifikazio eta Garapen sektoreko zuzendari izandakoa) izan ziren. Hauek izango lirateke, (beti ere lekukoen testigantzetan oinarriturik), Nafarroako Diputazioan une honetan Belagoako proiektuaren aldeko apustua egin zuen pertsona nabarmenenak. Une honetan haatik, Amadeo Marco zen Diputazioaren buru eta interesgarria litzateke ere sakontasunean ikertzea, zer nolako jarrera hartu zuen Marcok gai honen aurrean. Lekukoen arabera, Amadeo Marcok ez zuen sobera argi ikusten Belagoan egin nahi zutena, ezen jabetza pribatuaren kontra atentatzen zuen. Fernando Buenoren hitzetan; *“En Diputación, Amadeo Marco, que era el presidente de la Diputación, a la comisión de aquí, les dice que la propiedad privada era sagrada. Y que lo que les ha dicho Irazoqui, que es el consejero que lleva el tema, hay que revisarlo. No les dice ni que sí ni que no, pero que eso hay que estudiarlo porque la propiedad privada es sagrada. Y Irazoqui, que era el responsable de Diputación en este tema, estaba por la labor, había que hacerlo (...). Y a favor están también Del Burgo, Aizpún...”* (2015-01-02).

<sup>158</sup> Jesus Buenok *Punto y Hora* aldizkarian publikaturiko “Belagua en Venta” artikuluan, (6. zenbakia, 1976-06-15), soroak saldu zituztenen eta saldu ez zituztenen zifrak publikatu zituen. Datu hauen arabera, soilik jabeen %38ak saldu zituen lurak (osotara, hektareen %32a suposatzen zutenak). Saldu ez zutenen kopurua %62koa zen, %68ko hektarea kopurua osatzen zutenak. Aipagarria da haatik artikuluan jasotzen den honako beste datu hau; soilik eta bakarrik Belagoako soroak bizibidetzat zituzten jabeen %13ak saldu zituen bere lurak. Alegia, lurak saldu zituztenen gehiengoak ez zituen horiek apenas erabiltzen edo ez ziren garrantzitsuak haien bizibiderako, errekreio gisa erabilitako finkak izanik eta ez nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako.

<sup>159</sup> Argi gelditu behar da modu guztiz, Belagoaren aldeko pertsonak ere egon zirela Erronkariarren eta iritzi publiko nafar orokorraren artean. Belagoako asuntuak gainera, herria bitan banatu zuen, aldekoak eta kontrakoak zirenak, eta elkarbizitza zeharo zaildu egin zuen haustura honek. Bueno Asin eta bere familia gainera, mehatxatuak izan ziren eta anonimoen bitartez, Izabara ez hurbiltzeko “gonbitea” egin zieten heriotzarekin mehatxatuz. Nafar pertsona eta komunikabide nagusienak halaber, Belagoako proiektuaren alde egin zuten eta gogotik kritikatu zituzten honen kontra zeudenak. Diario de Navarra esaterako, 1972ko Ekainaren 18an, honelako gutuna publikatzen zuen; *“¡Enhorabuena, señores! La diosa Fortuna les ha venido a ver, trayéndoles algo así como el premio GORDO de lotería... y todavía no están conformes. La Excma. Diputación ha sido en exceso generosa con Vds. Al ofrecerles por unos terrenos baldíos, que nada producen, pues la mayor parte del año no sirven ni para pastizales, un precio muy superior a su valor real (...) y Vds (...) no se contentan con un valor cinco o seis veces*

Izabarrak ongi informatzeko lana funtsezkoa izan zen eta honetan askotxo inplikatu egin ziren zenbait pertsona, hala nola, Jesus Bueno eta Estornes Lasa anaiak. Belagoako soroak enpresa pribatu baten esku uzteak arrisku handiak zituen, eta honetaz guztiaz jendea kontzientziatu beharra zegoen. Batzuk dirua oso erraz eskura ikusirik saldu egin zituzten lurrak, baina gehiengo batek, ongi informatua izan ondotik, uko egin zion salmenta egiteari; zergatik? Honetan arrazoi ekonomikoak, ekologikoak eta sentimentalak batu egin ziren. Izan ere, Belagoa antzinako garaietatik zen izabarren bizibidearentzako leku funtsezkoena, abeltzaintzako ezinbesteko sostengua eta paraje natural gisa erronkariarren altxorra. “Belagoako Plan Bereziak” eski estazioaz gainera, 20.000 etxebizitza eraikitzeko pretentsioa zuen, hotelak, apartamentuak, txaletak... eta baita instalazio ezberdinak ere (igerilekuak, komertzio zentroak...). Honek automatikoki abeltzaintzaren desagerpena suposatzeaz gainera, Erronkariko bailararen bizibide bakarra turismoa izatea suposatuko luke. Garai honetan turismoaren bultzada zen Espainiako gobernu frankistak harturiko neurri nagusienetako bat ekonomia nazionalaren hazkundera sustatzeko eta kanpo inbertitzaileak bilatzeko. Espainia iparraldeko europarren destino bihurtu zen *Spain is different* lemapean eta honek, BPG nazionalaren igoera suposatu zuen eraikuntza eta higiezinaren sektorea dispartzearekin batera. “Desarrollismoaren” garaiko Espainian, Franga Iribarne Informazio eta Turismo ministroarekin buruan, turismoa izan zen dudarik gabe gobernu frankistaren apustu nagusienetako bat. Zentzu honetan estatuko ordezkari frankistak Belagoako proiektuaren bultzadarekin bat etorri ziren eta hau burutzeko Ministerioaren babesa eta laguntza jasoko zutela adieraztera iritsi egin zen Fraga bera.<sup>160</sup> Baina turismoaren esku utzi behar al zen Erronkariko ekonomiaren sostengu guztia? Turismoa bailararentzako oinarri inportante izan zitekeela defendatzen zuten “Zain Dezagun Belagua” mugimenduaren kideek, baina soilik eta bakarrik turismotik bizitzeak arrisku handiak zituela aurreikusten zuten, hau oso ezegonkorra izan

---

*superior al real (...) y además con condiciones y no pocas pretensiones (...). Lo malo será para Vds., el que por las causas que sea, incluida naturalmente su ambición, fracase ese proyecto y tengan Vds. Que seguir con la propiedad de sus tierras, cosechando, cosechando... nada. Se lo merecen y aunque yo no entro ni salgo, en lo referente a la utilidad de ese complejo, soy de la opinión de que esos millones tal vez estuviesen mejor empleados en casas más necesarias para Navarra. Firmado; Fermín López” (Estornes Lasa, J. Nuestro Pirinio y la defensa de nuestra naturaleza. Belagoa, Itxaropena, Zarautz, 1973, 139-40.orriak).*

<sup>160</sup> *El pensamiento Navarro* egunkariak argitaratu zuen bezala (1969-09-24); “(...) *El domingo, a las nueve y media de la mañana y ene l <Hostal Baztan> de Elizondo, fue presentado al Ministro de Información y Turismo, Fraga Iribarne, el plan de promoción del Valle de Belagua (...). Durante tres cuartos de hora lagos, el Ministro analizó el proyecto para terminar entusiasmado por el mismo. SU resumen final fue el siguiente: <Es la estación mejor planeada de todas las existentes en España. Todos los esfuerzos de mi Ministerio, (...), irán encaminados a esa tarea>*” (Estornés J, 1973, 44.orria).

zitekeelakoan.<sup>161</sup> Iزابako udaletxea ere iritzi berekoa zen eta horrela erakutsi zuen 1974.urtean egindako ohar publiko batean, zeinean turismoaz gainera, Erronkariko bailarak bestelako inbertsio guneak beharrezkoak zituela esaten zuen, lehenengo sektorea modernizatzeraz eta bultzatzeraz bideraturik egongo zirenak hain zuzen ere.<sup>162</sup>

Jada aipatu bezala, Belagoako proiektu handinahiak lurren pribatizazio automatikoa zekarren. Horren ondorioz, lur sail pribatizatu horien guztien gestioari dagokionean guztiz jokoz kanpo uzten zituen Erronkariko biztanleak. Hemendik aurrera, ez ziren erronkariarrak izanen haien lur sailen gaineko erabakiak hartuko zituztenak, pribatizazioak automatikoki, Belagoako soro gehienen kudeaketa BANKUNION-ETUDESAREN esku uztea suposatzen baitzuen. Zentzu honetan Erronkariko Juntak eta Iزابako udaletxeak argi utzi zuten, bailarako garapena eta etorkizuna erronkariarrenak zirela eta ez, soilik eta bakarrik aberaste propioa helburu zuen enpresa batenak.<sup>163</sup> Horrez guztiaz gain, Erronkariko Juntak erabat ilegaltzat ikusten zuen Nafarroako Diputazioak 1974.urteko ekainaren 8an egindakoa lur komunalen desjabetzea. Data horretan instituzio nafarrak, Erronkariko erakundeen kontrako botoarekin, "Etudesa-Bankunionen planarentzako" beharrezkoak ziren lur komunalen salmenta dekretatu zuen. Hau guztiz ilegaltzat

---

<sup>161</sup> *"los recursos ecológicos, racionalmente explotados, es decir, sin menoscabo de su carácter renovable, proporcionan una estabilidad en el espacio y en el tiempo muy superiores a la de los recursos deportivos o turísticos. Pastos, bosques y ganados son más independientes de los vaivenes económicos nacionales o internacionales que el turismo (...) El turismo nunca ha sido ni puede ser una base sólida que fundamente el desarrollo y equilibrio de una comarca, ya que está sujeto más que ninguna otra actividad a los vaivenes económicos (...) lo cual le da un carácter eventual y vaporoso. La experiencia de la costa mediterránea muestra claramente cómo el turismo ha "desarrollado" sociedades anónimas, especialmente de tipo inmobiliario, y cómo no ha aportado un desarrollo y un equilibrio a la región"* (Bueno Asín, J. *Zain dezagun Belagua*, Gráficas Aralar, Pamplona-Iruñea, 1976, 9 eta 15.orriak)

<sup>162</sup> Ohar publiko horretan literalki honakoa esaten zuen Udaletxeak; "(...) el plan <elaborado por Bankunion-Etudesa y aprobado inicialmente por la Ecma. Diputación, es absurdo y científicamente inadmisibile, por varias razones: (...) el Valle del Roncal está exigiendo otro tipo de promoción sólidamente basada y planificada en sus riquezas naturales (ganado, agricultura, madera y derivados), que, eventualmente encontrarían un complemento en el turismo propio de la zona. Porque los miles de millones que va a costar a los navarros el "plan Bankuni3n-Etudesa", invertidos en ganadería-agricultura e industrias adecuadas al Valle darían más puestos de trabajo (...) No obstante el Ayuntamiento de Isaba no se niega, si las condiciones se prestan a que se lleve a cabo un proyecto de estación de invierno dentro de su término municipal" (Ibidem, 12 eta 13.orriak).

<sup>163</sup> "(...) El desarrollo auténtico del Valle debe estar protagonizado por los roncaleses y no por una <iniciativa privada> ajena al Valle y a Navarra (Bankuni3n-Etudesa), impulsada más bien por intereses propios de un negocio inmobiliario". (Ibidem, 13.orria).

hartu zuten erronkariarrek, izan ere, Erronkariko Bailarako Mankomunitatearen ordenantzetan horrela zehazten zen legez, lur komunalen administratzailea mankomunitatea bera zen eta soilik eta bakarrik horren aprobazioarekin sal zitezkeen erronkariarren lurak. Izabako udaletxeak eta Erronkariko juntak Diputazioaren ekintza hau salatu eta tribunaletara eraman zuten. Borroka beraz, bi norabideetan eman zen; herritarrak alde batetik eta erakunde erronkariarrak bestetik. Biak bat eginik, BANKUNION-ETUDESA eta Nafarroako Diputazioaren proiektuaren kontra egin zuten eta honen guztiaren bultzatzaile eta antolatzaile nagusienetako bat, Jesus Bueno Asin izan zen. Baina, zergatik sartu zen Bueno buru belarri borroka honetan? Zerk eraman zuen Bueno “Zain Dezagun Belagoa” mugimenduaren buru nagusienetako bat izatera?<sup>164</sup>

Jesus Buenok arrazoi franko izan zituen oposizio mugimendu honetan sartu eta Belagoan egin nahi zuten makro proiektuaren kontra borrokatzeko. Batetik kontuan hartzekoa da Belagoak bere familia eta senideentzako zuen garrantzia eta bestetik, Iruñeko seminarioan, JARC mugimenduan eta Lovainako unibertsitatean jasotako formazioarekin talka egiten zuen proiektua zela, ezen izabarren lurak enpresa pribatuaren esku uzteak ez zuen Erronkariko bailararen etorkizun duin eta iraunkorrik ziurtatzen. Izabak eta oro har Erronkariko Bailarak, bere baliabide naturalekin bateragarria eta uztargarria izango zen garapen ekonomiko iraunkor bat behar zuen, naturaren ustiapenean oinarriturikoa baina honen balio ekologikoarekiko erabat errespetagarria. Modernitate eta tradizio ekonomikoaren arteko oreka bilatzea funtsezkoa zen eta Belagoako proiektu faraoniko higiezinak oreka bilatu baino, hau erabat apurtu egiten zuen, ordura arte erronkariarrek mendeen buruan izandako bizimoduaren estiloa errotik moztuz. Izan ere, proiektua burutzeak automatikoki bazka lurren %90aren desagertzea suposatuko luke (Bueno Asín, 1976, 8.orria) eta izabarrentzako Belagoako soroen galerak abeltzaintza moderno baten garapenerako bideak itxiko zituen guztiz. Abeltzaintza baliabide ekonomiko gisa desagertzeak, Izabako jardura ekonomiko nagusienaren heriotza suposatuko luke eta honek herria eta herritarrak epe motz edo luze batean ekonomikoki erabat lur jota utziko lituzke. Horrez gain, proiektuak erronkariarrak eta izabarrak desjabetzea zekarren, belaunaldiz belaunaldi historikoki jasotako lur legatuarekin amaituz eta hauen kudeaketa enpresa pribatuaren interesen menpe utziz. Buenok seminarioaren garaietatik ikasi zuen zein garrantzitsua zen lurra euskaldunon historian, lur horien jabetza eta ustiapena baitzen herriaren sustrai nagusienetako bat. Belagoako proiektuak gainera, ez zien

---

<sup>164</sup> “¿Y qué le lleva? pues hija mía, que aquello era una atrocidad lo que iban a hacer. Iban a fijate, a Belagoa la iban a dejar... cómo estaría hoy, como un Jaca, qué horror. Hombre, siempre estuvo muy vinculado con el valle, él era de allí. (...) Y él con el tema Belagoa, pues se involucró por las dos cosas, porque le parecía inviable económicamente y porque era una atrocidad ecológica” (Maria Luisa Baraze, 2014-12-22).



soilik jabetza pribatuko lur loteei eragiten, proiektua haratago zioan, lur komunalen desagertzea ere suposatzen zuelarik. Ekizak, Montoro Sagastik... anitzetan hitz egin zieten seminarioko ikasle izandakoei lur komunal hauen garrantziaz eta Jesus Buenok ziurrena, oso presente zuen haiengandik ikasitako guztia. Herri batentzat bere lurren jabetza eta beraz, kudeaketa eskubidea galtzeak, herri horren suizidioa suposatu zezakeen. Jesus Bueno, Estornes anaiak, Izabako abeltzainak, Udaletxeko zein Juntetxeko ordezkariak... ez zeuden haien lur zirenak galtzeko inolaz ere prest. Halaber, oso argi zuten beste gauza bat honakoa zen; Izabako, Belagoako eta Ibañako etorkizunaren nondik norakoak bertakoen erabakiz hartu behar zirela eta ez BANKUNIONek ezta Nafarroako Diputazioak ere ezin zutela eskubide hori urratu. Diktadura batean murgildurik egon arren, "Zain Dezagun Belagoa" mugimenduko kideek eta honen jarraitzaileek zentzu honetan, apustu demokratikoa eta subiranoa egin zuten, Diputazioaren hitzak eta ekintzak salatuz eta hauei kontra eginez.

Ikuspuntu ekonomiko eta sozial horrez gain, Jesus Buenok eta berarekin batera Belagoako proiektuaren kontra egin zutenek oso argi ikusi zuten horrek suposatuko lukeen hondamendi ekologikoa. Belagoan eski estazioa, etxebizitzak, kirol instalazioak, azpiegiturak, etab. eraikitzeak Europako natura paraje ederrenetako baten eta ekosistemari begira aberatsenetako baten desagertzea automatikoa zekarren. Belagoa eta bere inguru guztia, interes ekonomiko konkretu batzuen menpean utzi baino, hauetatik babestu beharra zegoela uste zuen Bueno bezalako pertsonak. Larrako lapiaza, San Martineko haitzuloa eta sima, Aztaparreta, Ukerdi... bezalako aberastasun zientifiko eta naturala zuten inguru hauen suntsiketa ekidin beharra zegoen nola edo hala. Mugimenduarekin bat egiten zuten aditu askok gainera, zonalde karstikoren gainean eraikitzeak suposatzen zuen arriskua iragarri egin zuten.<sup>165</sup>

---

<sup>165</sup> "El plan Etudes-Bankuni6n (...) tiene un delgado barniz ecol6gico que intenta camuflar los graves atentados contra la Naturaleza que supondr6a su realizaci6n (...). La urbanizaci6n en el Llano de Belagua y en el Rinc6n, lo consideramos un grave atentado paisaj6stico, aparte de que gran parte de ella estar6a asentada sobre zona k6rstica con consecuencias absolutamente imprevisibles, adem6s de estar pr6cticamente en el centro de zonas de mayor inter6s cient6fico con las repercusiones que la mera vecindad de 20.000 personas causan en concepto de degradaci6n de las zonas circundantes (...) En definitiva podemos afirmar que el Plan Etudes-Bankuni6n atenta gravemente contra la Naturaleza e intenta salvar las apariencias ante la opini6n con un delgado barniz ecol6gico". (Elosegui Aldasoro J, "Belagoa Naturaleza en peligro", *Punto y Hora de Euzkalerria*, 2.zenbakia, 1976.). Jesus Elosegui Aldasoro biologoak Nafarroako Diputazioak Red6n eta Inza arkitektoei enkargaturiko plangintzaren partaide izan zen eta "Zain dezagun Belagoa" plataformarekin eta Erronakiko erakundeekin bat eginik, Izabako Udaletxeak enkargaturiko Plangintza Orokorrararen diseinuan lan egin zuen.

Arrazoi ekonomiko, sozial eta ekologikoei jarraituz, “Zain Dezagun Belagoa” plataformako kideek eta Izabako udaletxeak, Izabarako Plangintza Orokor baten diseinua burutzen hasi ziren 1975.urtean Belagoako auziari soluzio bat emateko helburuz eta bertako lurraldetasunaren inguruko ardatz nagusiak definitzeko. Plangintza hau burutu zuten pertsonetako bat Bueno Asin izan zen.<sup>166</sup>

Buenoren lehentasunetako bat Lovainatik Euskal Herrira definitiboki bueltatzearekin batera 1973.urteetik aurrera, dudarik gabe Belagoako auzia izan zen. Urte luzeko borroka izan arren, ez da honetan sakontzea ikerketa lan xume honen helburu. Nondik norako guzti horiek, etorkizuneko ikerketa sendoago baten fruitu beharko lukete izan baina momentuz, eta lan honi amaiera emateko, Belagoako proiektuaren kontrako borroka honek Jesus Buenorengan izandako garrantzia eta honengan utzitako urratsa aipatu da. Zer suposatu zuen mugimendu honek guztiak Buenorengan? Ze ekarpen egin zion?

Ekarpen pertsonala dudarik gabe handia izan zen oso eta zaila da lerro bakan batzuetan biltzea zer suposatu ote zuen Buenorentzat Belagoako borroka luze honek guztiak. Argi dagoena da garrantzi handikoa izan zela, ezen pertsona eta profesional bezala hezten lagundu zion. Honetan buru belarri sartzeak orduko pertsonalitate garrantzitsu asko ezagutu eta haiengandik ikasteko aukera luzatu zion ere. Jada aipatu dugu garai honetan estutu zituela Estornes familiarekin harremanak eta honek, Fernando Buenoren esanetan, nazionalismoaren mundura hurbiltzen lagundu zion.<sup>167</sup> Estornes anaiak jeltzaleak ziren eta II. Errepublikaren garaian, haien eskutik antolatu egin ziren Izaban lehenengo batzar eta mitin nazionalistak. Bueno jaio orduko ordea, 1944.urtean, ez zegoen Estornes anaien arrastorik Izaban, ezen Gerra Zibilaren ondotik, erbestera kondenatuak izan ziren. Baina urte batzuk beranduago, Belagoako proiektuaren kontrako mugimenduak aukera eman zion Estornes familia gertutik ezagutzeko eta ziur aski, haiengandik hurbil egonik eta haien eraginez, Jesus Buenok bere euskal identitatea sendotzeaz ez ezik, euskal kulturarekiko eta herriarekiko maitasuna errotu zituen. Estornes anaiez gain, garai

---

<sup>166</sup> Buenoren fondo dokumentalean plangintza osatzeko erabili zuten dokumentazio ezberdin pila aurki daiteke, baita borradore anitz ere. Izabako Udaletxeak lan hauek egin izanagatik Buenok kobratu zituen fakturetako batzuk ere aurki daitezke. Dokumentu hauek guztiak ikertzea, etorkizun baterako lana izan beharko da.

<sup>167</sup> Buenoren euskal nazionalismoarekiko hurbiltzeari buruz bere anaia Ferandori galdetzean, hau da erantzundakoa; *“yo creo que lo que le influyó fue el trato con los Estornés. El tema Belagoa de alguna forma pienso yo que le acercó a ese mundo, al PNV. Jesús entonces estaba con el PNV, eso sí que me acuerdo”* (Fernando Bueno, 2015-01-02). Azpimarratzekoa da modu guztiz, Jesus Bueno ez zela inoiz alderdi politiko konkretu baten kide izan.

honetan ezagutu zituen halaber ondoren arlo sozial, kultural eta intelektualean murgilduko diren bestelako pertsonak ere, hala nola, Tomas Urzainki Mina (Iruñea, 1949) edo Jesus Elosegui Aldasoro (Tolosa, 1940). Lehenengoa Iزابako Udaletxearen abokatu izendatu zuten 1974.urtean eta bere eskutik salatu zituen tribunaletan Iزابako erakundeak Nafarroako Diputazioak egindako desjabetzeak Belagoako proiektuaren harira. Bigarrena, Jesus Elosegui biologoa, Aranzadiko Zientzia elkartearen lehendakari gisa jardun zuen 1970.hamarkadako lehenengo urteetan eta Buenorekin kontaktu zuzena izan zuen Belagoako borrokak iraun zuen denbora luze osoan zehar. Hauxe gain, Bueno Asinek, Belagoako proiektuaren kontrako babesak han eta hemen bilatu zituen, eta nola ez, lehenik eta behin, mendi federazio euskaldunaren ordezkariekin kontaktatu zuen, (*federación vasco-navarra de montañismo*), baita Nafarroako mendi talde ezberdinetako kideekin ere. Hauek guztiek bat egin zuten Belagoaren kontrako mugimendurekin eta babesa eskaini zioten Iزابako udaletxeari zein plataforma herritarrari.<sup>168</sup> Testuinguru honetan mundu menditarrarekin erlazio zuzena zuten zenbait alpinista ezagutzeko aukera izan zuen Buenok, hala nola, Gregorio Ariz eta Juan Mari Feliu, zeinekin hil arte oso harreman estua mantendu zuen. Mendizaleen babesa jaso nahi izateaz gainera, Pirinioetako bailara eta Pirinio aurreko herritarren babesa ere eskuratu nahi izan zuten Belagoaren kontrako mugimenduaren kideek. Une horretan halaber, pil-pilean zegoen beste gai batean sartuta zeuden pertsona hainbatekin erlazio oso estua egin zuen Bueno Asinek, hots, Irunberriko pantanoen eraikitzearen kontra zeuden pertsonekin.<sup>169</sup> Jesus Buenok, borroka honetan sartuta zegoen seminarioko zenbait ikaskide ohi topatu egin zituen berriz ere, hala nola, Koldo Irigoyen. Eta bere bizian inportantzia handiko bestelako pertsonak izango direnak ezagutu zituen ere, guztien artean

---

<sup>168</sup> Bueno Asinen koordinazioz argitaratutako *Zain Dezagun Belagoa* liburuxkan (Iruñea, 1976), atxekimendu hau publiko egin zen: “*Adhesión a la nota informativa del Ayuntamiento de Isaba, de fecha 29-11-74, oponiéndose a ese proyecto. Total repulsa del plan de la empresa Bankuni6n-Etudes, por considerarlo contraproducente en todos los sentidos para Ronca y Navarra (...). Pamplona, 7 de febrero de 1975. Firma: todos los Clubs de Montaña de Navarra*”. (Bueno Asin, -coor-, Iruñea, 1976, 38.orria).

<sup>169</sup> 1974.urtean Irunberriko arroilan presa izango zuen pantano handi baten eraikuntzarako proiektua aurkeztu egin zen. Pantanoak Irunberriren desagerpena zekarren. Honez gain, Irunberriren iparraldean, txikiago bat egitea aurreikusi egin zen, baita beste bat ere Agoitz aldean (etorkizuneko Itoitz izango dena) . Honen kontra herritar anitz berehala antolatu eta mugitzen hasi zen eta mobilizazioen ondotik, 1975.urtean Nafarroako Diputazioak bertan behera utzi zuen Irunberriko pantano handia egitearen ideia, ez ordea, Irunberriko pantano txikia eta Agoitz aldekoa (Itoitz). 1979.urtean alde batera utzi ziren proiektu hauek guztiak 1983.urtera arte, alegia, Nafarroako kanala eta Itoitzeko pantanoa izango direnen gaiari berriz heldu zitzaizen arte.

aipagarriena Mari Jose Beaumont izanik.<sup>170</sup> Testuinguru honetan ezagutu zuen Bueno Asinek halaber, bere bizitzan inportantzia handikoa izango den beste pertsona bat, alegia, Otsagiko Jorge Cortes Iza.<sup>171</sup>

Bere bizitzan urrats handia utzitako pertsonak ezagutzeko aukera luzatzeaz gainera, Belagoako borrokak profesionalki hazten lagundu zion Bueno Asini. Iruñeko seminarioan nahiz JARCen mamituriko filosofiari jarraituz eta Lovainako unibertsitatean ikasitakoa praktikaturaz, bere perfil profesionala definitzen hasi zen Belagoako proiektuaren garaietan. Izan ere, asesore lanak egin zituen mugimenduaren kide izanik Ixabako Udaletxearentzako eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa ikertzeko gogotik egin behar izan zuen lan. Honez gain, jende andanarekin bildu behar izateak, epaitegietan borrokatu behar izateak, elkartaratze sozialak egin behar izateak... ezagutza eta esperientzia handia eman zioten eta egoera honetan jendartean mugitzen ikasi zuen. Bizipen hauek guztiek Trantsizioan izango duen kargu politikora iristeko baliagarriak izan ziren oso. Fernando Bueno bere anaiak esaten duen moduan, Belagoaren kontrako mugimendua bizitza publiko eta politikoarentzako “trapolina” izan ziren Jesus Buenorentzako (2015-01-02).

---

<sup>170</sup> Egun Nafarroako kontseilaria den Mari José Beaumont Aristu (Artieda, 1956), Buenorekin aritu zen buru belarri lanean trantsizioaren garai guztian zehar. Berarekin batera pantanoen kontrako borrokan aritu zen, baita Orhi Mendi alderdi politikoaren fundazioan ere. Beaumont haatik, Diputazioan bere idazkaria izan zen (1979-83) eta orduztik gainera, bere abokatu personala izan zen zendu arte 2005.urtean.

<sup>171</sup> Jorge Cortés Izal (Otsagi 1930-Iruñea 2010) euskal kulturaren erreferente nagusienetako bat Nafarroan, 1969.urteaz geroztik euskaltzain urgazle eta ikastolen mugimenduaren bultzatzaile nagusienetakoa. Diputazioko Principe de Vianako “Fomento del Vasconce” sailean parte hartze zuzena izan zuen euskararen sustatze lanetan eta sail horretatik euskara sustatzen eta zabaltzen joateko babesak jaso zituen, hala nola, Amadeo Marco edo Miguel Javier Urmenetarenak. Euskal Herriaren Adiskideen elkarteko kide izanik gainera, Iruñean 1960.hamarkadaren hasieran martxan jarri ziren lehenengo ikastolen ezarrera saiakeran buru belarri jardun zuen. 1980.hamarkadan, Euskal Herria irratia fundatzaileetako bat izan zen.

## IV. ONDORIOAK

Lan honen hasierako helburua ez zen ondorio orokor eta esanguratsuetara iristea. Xedea bestelako zen, alegia, Buenoren bizitza eta hastapenetara hurbilpen soil bat egitea. Ikertutakoaren ondotik ordea, konturatu egin naiz Bueno Asinek bizitutakoa aplikagarria dela nola edo hala une jakin batean apezgai bidea hartu zuten nafar belaunaldi oso batera eta beraz, lanak, biografia ikerketa xume baten gakoetatik haratago joateko aukera luzatu dit.

1960.hamarkada zentzu askotan izan zen berezia Iruñerrian. Mendiolak zehazten duen legez, frankismoaren azken garaietan errotu ziren aldaketa sozial eta politiko nagusienek zeharo markatu zuten etorkizunezko gizarte nafarra. Ez zen eraldaketa iraultzailerik eman, baina hirurogei eta hirurogeita hamargarreneko hamarkadetan zehar, gutxika-gutxika, diktadura frankistaren hasierako baloreak desagertuz joan ziren, erregimen faxistak ordura arte erregulatu eta monopolizatu nahi izan zituen arlo eta jarrerak apurtzearekin batera.<sup>172</sup> Testuinguru honetan erlijio katolikoaren irakurketa berria egiten hasi zen Kontzilio II.aren bultzadarekin batera, eta berrikuntza teologiko horiek guztiekin batera halaber, erregimen frankista eta nazional katolizismoaren dogmekin erabat kontrajarriak ziren mezuak transmititzen hasi ziren seminario diozesiarretan eta talde kristau ezberdinetako kideen artean. Testuinguru honetan berritu egin zen orobat Iruñeko seminarioa eta hau zuzentzen zuten irakasle zein errektoretza taldea. Giro honetan, balore demokratikoen garrantziaz kontzientzia hartuko duen belaunaldi gazte berri bat heziko da bertan. 1940.hamarkadan jaiotako gizonak izan ziren nagusiki, Iruñeko seminarioan eman zen zorioneko transformazio orokor horren guztiaren hartzaileak, hauetariko asko bihurtuz gainera, Trantsizio demokratikoaren garaian garrantzi handiko eragile zein erreferente sozial, sindikal, politiko eta kulturalak Nafarroan.

Garai honetan orobat euskal zaletasuna eta identitatearen kontzientzia berpiztuz joan ziren nafar jendartearen parte batean. Gerraz geroztik lokartuta edo ezkutaturik zegoen sentimendu euskaldun nazionalista esnatu egin zen berriz ere eta jada diktaduraren garaian jaiotako gazte askok, orduantxe ezagutu zuten nafar identitatea ulertzeko eta sentitzeko beste modu bat, diskurtso ofizialeatik aldentzen zena. Gauzak honela, gazte apezgai askok Nafarroako errealitate

---

<sup>172</sup> Mendiola, F. "Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981)", *Gerónimo de Uztariz*, 17-18.zenbakiak, 224.orria.

kultural eta linguistiko euskaldunaren kontzientzia hartu zuten eta hau bultzatu edo salbatzearen garrantziaz ohartu ziren. 1960.hamarkadako zenbait politiko, intelektual eta apez, (Urmeneta, Zubiaur, Barandiaran, Montoro Sagasti, Lezaun...), diktaturak uzten zituen aukeren barruan eta modu xume batean bada ere, euskaltzaletasunaren aldeko pausu txikiak ematen hasi ziren, nahikoak izan zirenak zenbait pertsonengan hazia utzi eta berauek euskal munduarengana hurbilarazteko. Kontuan izan behar da halaber, Euskal Herriko eliza eta euskal nazionalismoa bat eginik zeudela, garai horretan ideologia nazionalistak izaten jarraitzen baitzuen euskal elizaren motore nagusia. Bat egite hau nabariagoa zen Bilbo, Donostia eta Gasteizeko seminarioetan baina honen eragina Iruñean ukazina da ere.

Caspistegui adierazten duen moduan, 1960.hamarkadan komuna egin zen nafar jendartean suertatzen ari ziren aldaketen pertzepzioa. Alegia, jendea gizartean eta honen mentalitatean gertatzen ari ziren aldaketen kontzientzia hartzen hasi zen.<sup>173</sup> Baina, zerk eragin zuen aldaketa eta kontzientziario prozesu hori? Zerk piztu zuen hazia? Jakina, aldaketa horien guztien eta kontzientziario prozesuaren eragileak anitzak izan ziren, faktore ezberdinek baldintzaturiko prozesua izan baitzen; baina lan honen bitartez, prozesu honetan guztian, Iruñeko seminarioko giroak zer esana izan zuela agerian gelditu da. 1960.hamarkadako Iruñeko seminario azken batean, aldaketa hauen guztien abangoardia izan zela esan genezake. Irakasteko modua eta irakaskuntza gaiak aldatu egin ziren eta honek, kritikoagoa eta hausnartzaileagoa zen belaunaldi apezgai berriarengan eragin zuzena izan zuen. Seminarioan emandako irekiera, Nafarroan suertatu ziren mentalitate aldaketen jatorri nagusienetako bat bihurtu zen. Seminarioko irakasle taldeak konpromiso sozialaren alde eman zuen jauzia handia izan zen garai honetan, ezen Ekiza, Lezaun, Fagoaga, Oses, Larraintzar... bezalako apez seminaristek, haien ikasleak konpromisoaren, inplikazioaren eta ekintzaren beharrez kontzientziatu nahi izan zituzten. Nahi izateaz gainera, argi dago helburuak gehiengo batengan lortu zituztela, izan ere, 1960.hamarkadaren hasieran Iruñeko seminarioan zeuden apezgai gazte gehienengan, bertan ikasi eta entzundakoak eragin bizia izan zuten haien mentalitate eta pentsamenduengan. Nerea Perez Ibarrolak aipatzen duen moduan, *“kontutan hartu behar dugu, orokorrean nafar tradizio kultural eta bizitza soziala, katolizismotik zetozen erreferentzia kultural eta sozialei oso lotuak egon direla, eta beraz, Katolizismo sozialaren eragina halabeharrez izan*

---

<sup>173</sup> Caspistegui F.J. “Historia oral, inmaterial e intrahistoria en la recuperación de la memoria colectiva de la Navarra rural”, *Gerónimo de Uztariz*, 23/24.zenbakia, 2008, 209.orria.

*behar zuela agerikoa bai Iruñean zein Nafarroan*".<sup>174</sup> 60.eko hamarkadan, orduko Iruñeko seminaristak ikasle zirela bizi izan zituzten esperientziak, haien etorkizunezko bizitzan erreferentzia garrantzitsua bihurtu ziren, apez bidea jarraitu hala ez.

Jesus Bueno Asin 12 urterekin iritsi zen Iruñeko Seminariora eta ordutik, oso tarte txikiak igaro zituen bere senide zirenen artean. Seminarioko ikaskide eta irakasleak bihurtu ziren erreferente nagusi eta bertakoekin hazi eta hezi egin zen. Kontzilio II.aren testuinguruarekin bat eginez sortu zen giroak eta irekierak seminarioan, Bueno zeharo markatu egin zuten eta pertsona bezala formatzen lagundu zioten. Bertan ikasi, irakurri, entzun eta praktikaturiko irakaskuntza metodologiak, (bizitzaren berrikuspenean oinarriturikoak), bere izaera, pertsonalitatea eta pentsatzeko era eraikitzen lagundu zioten. Izan ere, Buenoren izateko, egoteko eta pentsatzeko era ez ziren kasualitatearen fruitu izan, Iruñeko seminarioan mamituriko guztiaren ondorio zuzena baizik. <Begiratu, juzgatu eta ekin> metodoaren bitartez, errealitatea eta arazoak aztertu eta ulertzeko modu bat bereganatu zuen, ondoren, bere bizi pertsonal zein profesionalaren esparru guztietan aplikatu zuena. Izan ere, Bueno oso pertsona analitikoa eta erreflexiboa izateaz gainera, inplikaturik eta eraginkorra zen, beti arazoei eta injustiziei irtenbidea bilatzen saiatzen zen pertsona horietako bat. Eta izaera hori ez da soilik nire uste apalean berezkoa edota jaiotzetikoa, seminarioan mamiturikoa baizik. Seminarioan izandako irakasleengandik jaso zuen halaber mundua ulertzeko era, solidaritatean, elkartasunean eta konpromisoan oinarriturikoa. Bertan hartu zuen ziurrenik diktadura batean egoteak suposatzen zuen injustiziaren kontzientzia eta bertan ezagutu zuen halaber, gerra zibilaren garaileek ez ezik, galtzaileen bertsioa. Honek guztiak, historiarekiko jakin-mina piztu zion eta diskurtso ofizialetik aldentzen zen errealitatea ezagutzen lagundu zion. Bidenabar, libreki nor bere pentsamenduak adierazteak zuen inportantziaz jabetu zen eta horrela, gutxika-gutxika, kontzientzia demokratikoa zein soziala errotu zituen.<sup>175</sup> Izan ere Iruñeko seminarioa eztabaidarako, hausnarketarako eta kritikarako eszenatoki bilakatu zen 1960.hamarkadan. Zentzu honetan aintzat hartzekoa da García

---

<sup>174</sup> Perez Ibarrola, N. "Klase komunitate baten hastapena, Txantrea eraikitzen", *Geronimo de Uztariz*, 26/27, 148.orria.

<sup>175</sup> Zentzu honetan interesgarria da García de Cortazarrek egiten duen baieztapena; *"La ideología nacionalista seguiría siendo entonces el gran motor de la Iglesia vasca en su toma de conciencia crítica respecto del Estado franquista y en su labor de socialización política de los militantes cristianos; más comprometidos en la lucha contra la injusticia y los atentados a la libertad"* (García de Cortazar, "Iglesia Vasca, religión nacionalismo en el siglo XX", en *Euskal Herriaren Historiari buruzko bigarren biltzarra*, AA., VI.alea. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1988, 209.orria).

Cortazarren iritzia, zeinaren arabera, Euskal Herrian urte askoren buruan askatasun eremu bakarra Eliza izan zen, hau izanik halaber, garatuko den oposizio antifrankista gorpuztuko deneko toki nagusienetako bat. Are gehiago, Garcia Cortazarren hitzetan, frankismoaren diktadurak euskal hizkuntza eta eliztar askoren kontra hasitako erasoak, apez komunitatearengan eta oro har nazionalismoaren gertuko zirkuluetan, kohesio eta mobilizazio instrumentu nagusienak bihurtu ziren diktaduraren kontra egiteko.<sup>176</sup> Testuinguru honetan, Bueno kontzientzia demokratikoa eta euskalduna garatzen hasi zen. Kontzientziazioa hau haatik, funtsezkoa izan zen Eliza espainiarren kide izateari uzteko, ezen hierarkia frankistak kontrolaturiko Eliz instituzioak defendatzen zuen doktrina, guztiz kontrajarria zen berak jada bereganaturiko balore politiko, sozial eta kulturelekin.

Era berean, seminarioko esperientziarik gabe, ez dago ulertzerik 1969.urtean Maria Luisa Baraze ezagutu zuenean bere burua euskalduntzat aurkeztu izana. Argi gelditu da Iruñeko seminarioan bildu zen apez irakasle gehiengoa 1963.urteetik aurrera euskal kulturarekin eta identitatearekin erabat identifikatuta sentitzen zela eta sentimendu hau bera ikasleei transmititu egin zirela. Orduko irakaslearen gehiengoa orobat, euskaltzaletasunaren eta abertzaletasunaren munduarekin erabateko kontaktuan egondako pertsonak izan ziren eta hauek, (Fagoaga, Lezaun, Ekiza...), Buenorengan utzitako urratsa ukalezina da nire ustetan. Horiekin eta horien ekimenez ezagutu baitzuen lehenengoz Bueno Asinek zer zen euskal kultura eta Euskal Herria eta zalantzarik gabe, seminarioan entzun, irakurri eta jasotakoak bere identitatea definitzen lagundu zioten.

Bueno Asinek bere bizitzan harturiko erabakiak ere ez dira kasualitate hutsaren ondorio eta hauek, Iruñeko seminarioak utzitako urratsa ulertu gabe ezin dira konprenitu. Horien artean, apez bidea utzi eta ekonomiak ikasteko hautua egin izana. Erabaki honetan zalantzarik gabe, JARC mugimenduak zer esan handia izan zuen. Bertan izan baitzuen Buenok aukera, herrien garapena ziurtatzeko beharrezkoak ziren ekonomia eredu zein jarduerak ezagutzeko eta hauen garrantziaz jabetzeko. Herri baten etorkizuna azken batean, ezin da politika eta plangintza ekonomiko eraginkorrik gabe eraiki, baina era berean, planifikazio ekonomiko horrek herriaren behar eta interesei jarraitu behar die eta ez, kapitalismo basatiaren xede zein onura hutsei. Seminarioko eta JARC mugimenduaren testuinguru horretan, herri eta langile kontzientzia piztu zitzaion, beti ere hau, elkartasun eta duintasunaren ikuspuntutik ulertuta.

---

<sup>176</sup> Ibidem, 211.orria.



Ikerketa lan xume honekin beraz, agerian gelditu da seminarioko esperientziek eta bizipenek utzitako urratsa Jesus Bueno Asinen figurarengan. Dudarik gabe, seminariotik kanpo bere izaera eta pentsamendua markatzen jarraituko zuten esperientziak bizi izan zituela, baina oinarri ideologiko eta pertsonalak, Iruñeko seminario diozesiarrean sustraitu zituen. Lovainan emandako urteak eta Belagoako proiektuaren kontrako borrokak halaber, bere konpromiso maila are gehiago errotu zuten eta esperientzia horietatik ikasitakoak, Trantsizioaren garaiko panorama politikora salto egiten lagundu zioten. Trantsizioaren garaian izandako inplikazio sozial, politiko eta kulturala ordea, etorkizuneko lan baterako uzten ditudan ate irekiak dira, Buenoren memoriaren izenean ez ezik, Nafarroako orainaldiko historiaren izenean ikertu beharreko gaiak direlarik nire uste apalean.

## V. IRUZKIN BIBLIOGRAFIKOA

Ikerketa lan guztiek ezinbestean oinarri bibliografiko ona, anitza eta zabala behar dute izan, ezen hori da azken batean, lan historiografiko guztien abiapuntua, baita ikerketa xumeenetakoen abiapuntu ere, nirea kasu. Edozein ikerketa lan egin aurretik, ezinbestekoa da ongi informatzea zein gaian janztea, eta hori eman behar izan nuen lehenengo pausua izan zen. Asmoa Jesus Bueno Asin nafar pertsonaiaren biografian arakatzea izanik ere, hau ezin da inolaz ere ulertu, bere gaztaroko testuinguru historiko zabalagoa ulertu gabe, Iruñeko eta Nafarroako historiaren mugak zeharkatzen dituen hain zuzen ere. Hori dela eta, frankismoaren garaia ikertzen zituzen obra bibliografiko orokorretara jo nuen, hauen artean, honako hauek izan direlarik erreferente nagusi; batetik, Enrique Moradiellosen *La España de Franco, 1939-75*, (Sintesis editorialeko obra, Madrielen 2000.urtean argitaraturikoa), zeinean gai ezberdinei buruzko datu zehatzak, (estatistikokoak, portzentajeak...), jasotzen diren. Sintesis editorialekoa da ere (2001.urtekoa), Garcia Garcia eta Ruiz Carnicerren *La España de Franco (1939-1975), cultura y vida cotidiana*, obra, zeinean beste gauza askoren artean, oso ongi deskribatu egiten den Eliza eta hezkuntza sistemaren nondik norakoak, datuak eta hausnarketak txertatuz eta hezkuntza frankistaren helburuak zein baloreak ongi definituz. Bestetik, Javier Tusellen *La España de Franco* obra izan dut hizpide, bereziki oposizioaren eboluzioa aztertzeko eta honen aurrean, gobernu frankistak harturiko neurri ezberdinak ezagutzeko. 1960-70.urteetako mugimendu sozio-politiko nagusien berri ere, Angousturesen *Histora de España en el siglo XX* obraren atal batean ere aurki daiteke. Honetan oso ongi deskribatu egiten dira irekiera ekonomikoaren ondorioz Espainian egondako aldaketa sozio-ekonomikoak, kontsumoaren sarrera, etab. Datu estatistiko franko biltzen ditu ere. Bukatzeko, Fontanaren lana, zehazki, *La España bajo el franquismo* (Critica, 1986). Azken honetan, interesgarria da oso Juan Pablo Fusiren atala, ("La reaparición de la conflictividad en la España de los sesenta"), zeinean 1960.hamarkadan sistema frankistaren kontra sorturiko mugimenduak eta gatazkak oso modu argian deskribatzeaz gainera, hauek Europa eta nazioarteko testuinguruan txertatzen diren, mundu mailako bestelako mugimenduekin lotura eginez. Oposizio frankistaren inguruko oso obra ona eta osatua halaber, *La oposición al régimen de Franco: estado de la cuestión y metodología de la investigación: actas del Congreso Internacional*, dugu (Javier Tusell, Alicia Alted, Abdón Mateos koordinazio pean UNEDek argitaraturikoa 1990.urtean). Aditu askoren kolaborazioarekin sorturiko obra dugu honako hau. Honetan, Santos Juliá, Cristobal Espinosa, Montero... Elizaren barruan sorturiko mugimendu ezberdinei buruzko artikuluak biltzen dira. Tuñón de Larak halaber, oposizio antifrankistaren

historia ikertzeko autore eta obra gakoen berri ematen du “Sobre la Historia de la oposición al franquismo; balance y perspectivas” izeneko artikuluan, oso baliagarria suertatu zaidana bibliografia eskuratzeko.

Bibliografia orokorraz gain, Jesus Bueno Asinen garaiko seminarioan suertaturiko aldaketa horiek guztiak ongi konprenitu ahal izateko, Elizaren barruan 1950.hamarkadatik aurrera eta bereziki 1960.hamarkadan sorturiko mugimendu guztien inguruan informatzea beharrezkoa suertatu zait, Vaticano II.aren Kontziliotik hasita, Acción Católicoaren barneko mugimendu espezializatuetara. Honetarako bi izan dira erreferentziazko autoreak; Feliciano Montero batetik eta Enrique Berzal de la Rosa bestetik. Hauen lanak funtsezkoak izan zaizkit erabat ezezaguna nuen mundu eliztarra ezagutzeko eta Elizaren barruko esparruetan suertaturiko mugimendu interesgarri guztien berri izateko. Autore hauen artikulua eta obrarik gabe, ezinezkoa suertatuko litzaidake 1960.hamarkadan Iruñeko seminarioan sorturiko giroa ulertzea. Monterok aldizkari eta obra askotan kolaborazioak egin izateaz gainera, 1956.urteetik 1975.urtera Eliza espainiarraren barruko korapilo guztiak goitik behera ikertzen dituen obra nagusi bat du, *La Iglesia: de la colaboración a la disidencia* (Historia Encuentro, 2009), ezinbestekoa suertatu zaidana Kontzilio Vaticano II.aren eragina eta garrantziaz jabetzeko, AC barruko mugimendu espezializatu guztien berri izateko, euskal Elizaren berezitasunen inguruan jabetzeko, etab. Berzal de la Rosa artikulua hainbaten irakurketa ere oso baliagarria suertatu zait, bereziki, “Sotanas, Martillos y Alpargatas. Las contradicciones de un movimiento obrero impulsado por el clero”, oso artikulua konpletua dena eta AC barruko mugimendu espezializatuen barruan emandako joera ezkertiarren sorrera zein garapena oso ongi deskribatzen duena.

Euskal Elizari buruzko zenbait artikuluen irakurketa ere funtsezkoa suertatu zait, garai horretan Euskal Herrian eta beraz, Iruñeko seminarioan piztu zen giroa, pentsamendua eta jokamoldeak hobeto ulertu ahal izateko. Gai honen inguruan ziur aski hamaika artikulua, obra eta autore daude, baina nik bi historialarien idazkiak izan ditut nagusiki eskuarteak; Anabella Barrosorenak eta García Cortazarrenak (ikus bibliografiaren atala). Frankismoaren garaietan Iruñeko seminarioari eta Nafarroako Elizaren norabideari erreferentzia zuzena egiten dioten obra monografikorik osatuenak orain arte, Marcellan Eigorrinenak dira, (*Cierzo y bochorno fenómeno vocacional de la Iglesia Navarra (1936-86)*, Verbo Divino, Lizarra, 1988, eta *La Iglesia Navarra a los 4 vientos (1936-1986)* Eunete, Iruñea, 1996). Oso obra onak izanik ere, ez ditu zuzen zuzenean 1960.hamarkadan Iruñeko seminarioan sorturiko “iraultzaren” gako eta zergatiak modu sakonean ikertzen eta funtsezko obrak izanik ere, suertatzen diren galdera askoren erantzunik ez

du jasotzen. Gai honen inguruan beraz, oraindik lan handia dago egiteke, *Principe de Viana* aldizkarian Molina Gonzalezek Iruñeko seminarioan idazki sakratuen trataeraren garapenari buruzko artikulua bat du idatzia, (“La enseñanza de las Sagradas Escrituras y Retórica Sagrada en el Seminario Conciliar de Pamplona 1831-1978”), baina honek ere, ez ditu zalantza konkreturik argitzen. Izan ere, Teologia ikasketen curriculumari, berau irakasteko metodo pedagogikoei eta hauen eboluzioari egiten die bereziki erreferentzia, ez horrenbeste, garai historiko bakoitzean seminarioan zegoen giro sozial eta erlijiosoari.

1960.hamarkadako seminario iruindarrean zegoen giroa ulertzen lagungarriak suertatzen diren bestelako arloetako artikulua irakurtzea ere ezinbestekoa izan da. Gauzak honela, garai horretan Iruñeko eta Nafarroako testuinguru sozial, politiko, kultural eta ekonomikoari erreferentzia zuzenagoa egiten dieten artikulua eta obren kontsultari ekin diot, (ezinbestekoak suertatu zaizkidanak halaber panorama orokorraren inguruan ongi jabetu ahal izateko). Zentzu honetan, *Geronimo de Uztariz* aldizkaria iturri ezinbestekoa suertatu zait, ezen bertan argitaratzen diren artikulua gehienak, historia lokalarekin erlazio zuzena dute eta gure lurraldearen inguruko datu zehatzak ematen dituzte. Erabilitakoen artean aipamen berezia merezi dute honako hiru hauek; batetik, Mendaza Clementeren “Cambio en la estructura de clases y procesos históricos en Navarra y Zaragoza, 1960-1980 (9/10.zenbakia, 1994), datu demografikoen bilduma estatistikoa eta iruzkin soziologikoa egiten duen artikulua dena. Bigarrenik, Javier Echeverriaren “Antecedentes de la Navarra actual algunos elementos sobre la estructura social de Navarra de los dos primeros tercios del siglo XX”, (9/10.zenakia,1994) eta azkenik, Fernando Mendilaren “Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca, 1951-1981 (17/18.zenbakia, 2002). Azken honetan bi dira jorratutako gai nagusienak, industrializazioaren eraginez sortzen diren lan harreman eta gatazkak batetik, (sindikalismo bertikalaren aurrean hartzen diren bide sindikal berriak ikertzen dituelarik), eta garai horretan sortzen den klima politiko berria (mugimendu antifrankistetatik, Trantsizio garaiko proposamenetara). Langile mugimendu nafarraren inguruan gehiago jakiteko kontsultatu behar den beste erreferentzia bat zalantzarik gabe, José Vicente Iriarteren obra eta artikulua dira. Era berean, Emilio Majueloren “Movimientos sociales y protesta social en Navarra durante el siglo XX” artikulua irakurri beharrekoa da, (*En torno a la Navarra del Siglo XX: veintiún reflexiones de la sociedad, economía e historia*, obran argitaraturikoa).

1960.hamarkadan Nafarroan eta bereziki Iruñerrian gauzatu zen euskal kulturaren eta nazionalismoaren indartze motelaren inguruan ere irakurtzea ezinbestekoa suertatu zait Jesus

Bueno Asinen lan hau egiterako orduan. Garai honetan eskuratu baitzuen Buenok eta beste hainbat apezgaik Euskal Herriaren kontzientzia. Gazte seminarista askok kontzientziazio prozesu honetan Iruñeko seminarioko giroak eta oro har, zenbait zirkulu politiko zein intelektualetan sorturiko ekimenek izandako eragina ezagutzea funtsezkoa da. Honetarako, Claveriaren, Lopez Goñiren, Izaren, Chuecaren... artikuluak eta obrak ezinbestekoak suertatzen dira. Claveriak batik bat, Nafarroako euskal nazionalismoaren eta mugimendu jeltzalearen nondik norako guztiak ikertzen ditu *Navarra cien años de nacionalismo vasco*, (Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 1996) obran, kronologikoki urtetik urtera jazotako gertaera nagusien kronikak biltzen dituena. Lopez Goñiren gai nagusia batez ere, ikastolen mugimenduaren hastapenak eta eboluzioa da, baina bere obra zein artikuluetan (kontsultatu bibliografiaren atala, 116.orria), 1950.hamarkadetatik aurrera sortzen den euskararen aldeko borroka soziala eta burutzen diren ekimenen berri ematen du. Ikastolen fenomenoak modu sakonean aztertzen duen beste obra bat, *Ikastola mugimendua dabilen herria, ikastola ereduak 1960-2010* da (Iban Iza, Euskaltzaindia, 2010).

Lanari amaiera emateko Belagoako proiektuaren kontrako mugimendua ikertu egin da, honetarako, jakina ahozko iturriez gain, bi izan dira erabilitako iturriak nagusienak, Jose Estornes Lasarena eta Jesus Bueno Asinena hain zuzen ere. Estornesen lana 1973.urtean argitaraturikoa da eta beraz, proiektuaren hasieran dago zentratuta. Modu guztiz, interes handiko obra da, ezen kapitulu gehienetan gaiarekin erlazionaturiko lehenengo iturrietako testuen bilduma da. 1967.urteatik aurrera orduko egunkarietan (nagusiki *Diario de Navarra* eta *El Pensamiento Navarron* publikaturikoak) eta artxiboetako dokumentazioetan Belagoako proiektuaren harira publikaturiko artikulua ezberdinak biltzen ditu. Hauetariko asko gainera, iritzi gutunak dira eta beraz, izen eta abizenarekin daude sinatuta, etorkizun batean gai honen inguruko ikerketa sakonagoa egiteko garrantzi handiko datuak izan daitezkeenak. Lehenengo kapituluan Jose Estornesek proiektuaren nondik norako nagusienak biltzen ditu, datu hainbat bilduz, egoera zenbait deskribatuz eta bere iritzi pertsonala agerian utzirik. Argi eta garbi erakutsi egiten du Belagoako makro proiektua ez egiteko dauden arrazoi ekonomiko, ekologiko, etab.ak. Azken orrialdeetan informazio bitxia biltzen da eranskin gisa, hala nola, Erronkariko ibaxako zenbait ordenantzen artikulua, jakina, Belagoako proiektuaren eraikuntzarekin bateragarriak ez direnak. Gai honekin erlazionaturiko bigarren lana, Bueno Asinen koordinazioz 1976.urtean editaturiko liburuxka da, *Zain Dezagun Belagoa* izenburua duena. Honetan, Bueno Asin, Tomas Urzainki eta Jesus Elosegui idatzitako artikulua biltzen dira, *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkarian ere publikatu egingo direnak. Honez gain, Nafarroako mendi talde ezberdinek 1975.urtean mugimendu herritarrari babesa eskaintzeko idatzi zuten gutuna erantsi egiten da. Belagoaren

kontrako plataformak proiektuaren kontra egiteko izan zituen argudio nagusi guztiak ezagutzera ematen dituen lana da honako hau, ezinbestean irakurri behar dena “Zain Dezagun Belagoa” plataforma zer izan zen ulertu ahal izateko.

Bibliografia ikerketa lan hau jaiotzeko ezinbestekoa izan den moduan, ezinbestekoa izan da ere ahozko iturria. Gertuko historia egiterako orduan lekuko zuzenen testigantzak urrezko iturria dira interpretazio historia egiten laguntzen diguten heinean eta beraiekin, bestelako modu batez lortu ezina den informazioa eskuratzera iristen baitzara.

## VI. BIBLIOGRAFIA

- A.A. Navarra 1936, *de la esperanza al terror*, Altfaylla Kultur Elkartea, Tafalla, 1986.
- ANGOUSTURES, A. *Historia de España en el siglo XX*, Ariel Historia, Barcelona, 1995.
- BARROSO ARAHUETES, A. "Luces y sombras de la Iglesia Vasca durante el franquismo y la transición", en *De la Cruzada al desengranche: la Iglesia española entre el Franquismo y la Transición*, Ortiz Heras M. (coor), Silex, Madrid, 2011. 207-233.orriak.
- BERZAL DE LA ROSA. E. "Cristianos en el nuevo movimiento obrero en España". *Historia Social*, 54. zenbakia, 2006, 137-156.orriak.
- BERZAL DE LA ROSA.E. "Sotanas, martillos y alpargatas. Las contradicciones de un movimiento obrero impulsado por el clero", en *De la Cruzada al desengranche: la Iglesia española entre el Franquismo y la Transición*, Ortiz Heras M (coor), Silex, Madrid, 2011. 103-131.orriak.
- BERZAL DE LA ROSA. E. "¿Un movimiento obrero controlado por el clero?", en *Ayeres en discusión, temas clave de Historia Contemporánea hoy*, Nicolás Marín M.E, González Martínez C., (coor), Universidad de Murcia, Servicio de Publicaciones, Murcia, 2008. 1067-1086.orriak.
- BUENO ASÍN, J (coor). *Zain dezagun Belagua*, Gráficas Aralar, Pamplona-Iruñea, 1976.
- DUBY G., PERROT, M. (coor), *Historia de la mujeres. El siglo XX*. Taurus. Madrid. 1993.
- BIDADOR, J.M. "Obra Histórico Literaria de José Joaquín Montoro Sagasti". *Revista del centro de Estudios Merindad de Tudela*, 12.zenbakia, 2002, 75-111.orriak.
- CASPISTEGUI F.J. "Sobre el papel social del investigador o, ¿para qué servimos?", *Memoria y Civilización*, 6. zenbakia, 2003, 191-207.orriak.

- CASPISTEGUI F.J. "Historia oral, inmaterial e intrahistoria en la recuperación de la memoria colectiva de la Navarra rural", *Gerónimo de Uztariz*, 23/24.zenbakia, 2008, 209-218.orriak.
- CASPISTEGUI F.J. "Sobre el papel social del historiador o ¿para qué servimos?", *Memoria y civilización*, 6.zenbakia, 2003, 191-207.orriak.
- CHAVARRI SIDERA, P, DELGADO SOTILLOS, I (coor). *Sistemas políticos contemporáneos*, UNED, Madrid, 2013, 335-376.orriak.
- CLAVERIA, C. *Navarra cien años de nacionalismo vasco*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 1996.
- CHUECA.J. "Nafarroatik Euskadira. 100 urte euskal nazionalismoaren historian barrena". *Gerónimo de Uztariz*, 9/10.zenbakia, 1994, 133-148.orriak.
- DI FEBO, G. *Resistencia y movimiento de mujeres en España 1936-76*, Icaria, Barcelona, 1979.
- ECHEVERRIA, JAVIER. "Antecedentes de la Navarra actual algunos elementos sobre la estructura social de Navarra de los dos primeros tercios del siglo XX", *Gerónimo de Uztariz*, 9/10.zenbakia, 1994, 31-54.orriak.
- ERIZE ETXEGARAI, XABIER. "*Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa, 1863-1936, soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*", Nafarroako Gobernua, Kultura eta Hezkuntza Departamentua, Pamplona-lruña, 1997.
- ESPARZA ZABALEGI, J.M. *Vasconavarros, guía de su identidad, lengua y territorialidad*, Txalaparta, Tafalla, 2012.
- ESPINOSA J.C. "Nacional-Catolicismo. Actitud de la Jerarquía Diocesana ante la oposición a la Dictadura", en Javier Tusell, Alicia Alted, Abdón Mateos, (corr), *La Oposición al régimen de Franco: estado de la cuestión y metodología de la investigación: actas del Congreso Internacional*, UNED, Madrid, 1990. 261-267.orriak.



- ESTORNÉS LASA, JOSE. *Nuestro pirineo y la defensa de la naturaleza; Belagoa*. Itxaropena S.A, Zarautz, 1973.
- FONTANA, J. *España bajo el franquismo*, Crítica, Barcelona, 1986.
- GARCÍA DE CORTAZAR RUIZ DE AGUIRRE, F. "Iglesia Vasca, religión y nacionalismo en el siglo XX", en *Euskal Herriaren Historiari buruzko bigarren biltzarra*, AA., VI.alea. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1988. 191-216.orriak.
- GARRIDO GONZALEZ E. *Historia de las mujeres en España*, Síntesis, Madrid, 1997.
- GRACIA GARCÍA, RUIZ CARNICER. *La España de Franco (1939-75), Cultura y Vida Cotidiana*, Síntesis, Madrid, 2001.
- IRIARTE ARESO, J.V. "Movimiento obrero y conflictividad social", en *Euskal Herriaren Historiari buruzko bigarren biltzarra*, VI.alea. AA. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1988. 92-104.orriak.
- IZA.I. *Ikastola mugimendua dabilen herria, ikastola eredu 1960-2010*. Jagon saila, Euskaltzaindia, 2010, Bilbo.
- JIMENO JURIO, J.M. *Navarra, historia del euskara*, Txalaparta, Tafalla, 1998.
- LARREA MUXIKA, P. "Helduen euskararen irakaskuntza: egoera eta bilakaera, (1956-86), *Gerónimo de Uztariz*, 19.zenbakia, 9-48.orriak.
- LOPEZ GOÑI, I. *Ikastola: un movimiento popular y pedagógico. Historia de las Ikastolas en Navarra*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea, 2007.
- LÓPEZ GOÑI, I. "Las ikastolas en Navarra (siglo XX): búsqueda de un modelo de escuela propio". *Historia de educación*, 24.zenbakia, 2005, 371-396.orriak.
- LÓPEZ GOÑI, I. *La Sección de fomento de Vasconia de la Diputación de Navarra (1957-1972): génesis y actuación*. Gerónimo de Uztariz, 19.zenbakia, 2003, 49-73.orriak.

- MARCELLAN EIGORRI, J.A. *La Iglesia Navarra a los 4 vientos (1936-1986)*. Eunate, Iruñea, 1996.
- MARCELLAN EIGORRI, J.A. *Cierzo y bochorno: fenómeno vocacional de la Iglesia Navarra (1936-86)*, Verbo Divino, Lizarra, 1988.
- MARIEZKURRENA ITURMENDI, D. "La historia oral como método de investigación histórica", *Gerónimo de Uztariz*, 23/24.zenbakia, 2008, 227-233.orriak.
- MAJUELO GIL, E. "Movimientos sociales y protesta social en Navarra durante el siglo XX", en *En torno a la Navarra del Siglo XX: veintiún reflexiones de la sociedad, economía e historia*, Lana Berasain, J.M. (coord.), UPNA-NUP, Iruñea, 2002, 289-321.orriak.
- MAJUELO GIL, E. *La generación del sacrificio: Ricardo Zabalza 1898-1940*, Txalaparta, Tafalla, 2008.
- MEDINA SOLA, CARMEN. "Rompiendo moldes, mujeres en Pamplona desde el franquismo a la emancipación", *Gerónimo de Uztariz*, 23/24.zenbakia, Iruñea, 2008, 175-204.orriak.
- MENDAZA CLEMENTE, D. "Cambio en la estructura de clases y procesos históricos en Navarra y Zaragoza (1960-1980)", *Gerónimo de Uztariz*, 9/10 zenbakia, 1994, 55-74.orriak.
- MENDIOLA GONZALO, F. "Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981)", *Gerónimo de Uztariz*, 17/18.zenbakia, 2002, 211-250.orriak.
- MOLINA GONZÁLEZ, J.R. "La enseñanza de las sagradas escrituras y retórica sagrada en el seminario conciliar de Pamplona de 1831 a 1978". *Príncipe de Viana*, 258.zenbakia, Iruñea, 2013, 637-652.orriak
- MOLINERO, Carme: "Silencio e invisibilidad: la mujer durante el primer franquismo" *Revista de Occidente*, 223.zenbakia, 1999, 63-82.orriak.

- MOLINERO, Carme. "Mujer, Franquismo, Fascismo. La clausura forzada en un "mundo pequeño", *Historia Social*, 30.zenbakia, 1998, 97-117.orriak.
- MONTERO, F. "Juventud y política: los movimientos juveniles de inspiración católica en España, 1920-1970". *Studia Histórica-Historia contemporánea*, 5.zenbakia, 1987, 105-121.orriak.
- MONTERO, F. *La Iglesia, de la colaboración a la disidencia, (1956-75)*. Ediciones Encuentro, Madrid, 2009.
- MONTERO, F. "La iglesia dividida. Tensiones intraeclesiales en el segundo franquismo: la crisis postconciliar en el contexto tardofranquismo". *Historia del presente*, 16.zenbakia, 2010, 51-75.orriak.
- MONTERO, F. *Los movimientos juveniles de Acción Católica: una plataforma de oposición al franquismo*, en Javier Tusell, Alicia Alted, Abdón Mateos, (corr), *La Oposición al régimen de Franco: estado de la cuestión y metodología de la investigación: actas del Congreso Internacional*, UNED, Madrid, 1990. 191-203.orriak.
- MORADIELLOS E. *La España de Franco (1939-75)*, Síntesis, Madrid, 2000.
- MORENTE VALERO, F. "Los fascismos europeos y la política educativa del franquismo". *Historia de la educación*, 24.zenbakia, 2005, 179-204.orriak.
- NICOLÁS ENCARNA. *La libertad encarcelada, España en la dictadura franquista, 1939-75*. Alianza Editorial, 2005, Madrid.
- NIELFA CRISTOBAL, G. *Mujeres y hombres en la España franquista, sociedad, economía, política, cultura*, Madrid Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid, 2003.
- HERIZ SARASIBAR, I. "Nevera, televisión y seiscientos: cambios y transformaciones en los valores y percepciones de la sociedad española, 1960-82", (en *La transición a la democracia en España. Historia y Fuentes Documentales*, Actas de las VI.jornadas de

- Castilla La Mancha sobre investigación en Archivos. Anabad Castilla la Mancha, Guadalajara, 2004, 30-41.orriak.
- PAGOLA, ROSA MIREN. *Mikela Gastesi, bidegileak (49)*, Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 2007.
  - PEREZ IBARROLA, NEREA. “Klase komunitate baten hastapena, Txantrea eraikitzen”, *Geronimo de Uztariz*, 26/27, 145-174.orriak.
  - SANTOS JULIÁ. “Obreros y sacerdotes: cultura democrática y movimientos sociales de oposición”, en Javier Tusell, Alicia Alted, abdón Mateos, (corr), *La Oposición al régimen de Franco: estado de la cuestión y metodología de la investigación: actas del Congreso Internacional*, UNED, Madrid, 1990. 147-.orriak.
  - SVEN REHER SULLIVAN, DAVID. *Perfiles demográficos de España, 1940-1960*, en CARLOS BARCIELA LÓPEZ –coord- *Autarquía y mercado negro; el fracaso económico del primer franquismo, 1939-1959*. Crítica, Barcelona, 2003, 1-29.orriak.
  - THOMPSON P, “Historia oral y contemporaneidad”, en *Historia, memoria y pasado reciente*, Anuario n.20, 2003/2004, 15-33.orriak.
  - TUÑÓN DE LARA M. “Sobre la Historia a la oposición al franquismo. Balance y perspectivas”, en Javier Tusell, Alicia Alted, abdón Mateos, (corr), *La Oposición al régimen de Franco: estado de la cuestión y metodología de la investigación: actas del Congreso Internacional*, UNED, Madrid, 1990, 421-431.orriak.
  - TUSELL, J. *La España de Franco*, Historia 16, Madrid, 1999.
  - TUSELL, J. “La historia del tiempo presente: algunas reflexiones sobre el caso español”, en Carlos Navajas Zubeldia (coor), *Actas del II.Simposio de Hisotria Actual*, Logroño, 2000, 15-36.orriak.

**ELKARRIZKETAK:**

- Gorka Bueno Baraze (2014-10-09)
- Maria Luisa Baraze Gayarre (2014-12-22)
- Marisa Bueno Asin (2015-01-02)
- Fernando Bueno Asin (2015-01-02)
- Jose Luis Irigoyen (2015-02-09)
- Charo Baraze Gayarre (2015-02-23)
- Jesus Ekiza (2015-05-05)
- Pilar Olague (2015-05-11)
- Javier Idareta (2015-05-11)
- Ramon Apezetxea (2015-07-29)
- Anuncia Artutx (2015-08-12)
- Patxi Urrutia (*Nerea Perez Ibarrola*, 2011-06-13)
- A.Andueza (*Nerea Perez Ibarrola*, 2013-01-09)
- Miguel Portillo (*Nerea Perez Ibarrola*, 2013-05-14)
- Pablo Ibañez (*Nerea Perez Ibarrola*, 2014-01-07)

**ARTXIBOA:**

- Jesus Bueno Asinen fondo dokumentala.